|                             | N          | 160    | 160    | 159    | 159    |
|                             | Desb. tip. | ,695   | ,697   | ,625   | ,613   |
| <b>HH eta LH irakasleak</b> | Batazb.    | 4,15   | 4,18   | 4,44   | 4,55   |
|                             | N          | 155    | 155    | 153    | 154    |
|                             | Desb. tip. | ,771   | ,760   | ,617   | ,537   |
| <b>BH irakasleak</b>        | Batazb.    | 4,25   | 4,22   | 4,40   | 4,45   |
|                             | N          | 130    | 126    | 130    | 128    |
|                             | Desb. tip. | ,660   | ,644   | ,630   | ,612   |
| <b>BH ikasleak</b>          | Batazb.    | 3,86   | 3,89   | 3,99   | 4,23   |
|                             | N          | 74     | 75     | 75     | 75     |
|                             | Desb. tip. | ,764   | ,689   | ,846   | ,847   |
| <b>Denera</b>               | Batazb.    | 4,19   | 4,18   | 4,38   | 4,47   |
|                             | N          | 709    | 705    | 707    | 705    |
|                             | Desb. tip. | ,718   | ,703   | ,668   | ,637   |



## E.- Bizikidetzeta eta talde lana


| Estamentuak                 |            | ITEM26 | ITEM27 | ITEM28 | ITEM29 |
|-----------------------------|------------|--------|--------|--------|--------|
| <b>Gurasoak eta tit.</b>    | Batazb.    | 4,52   | 4,49   | 4,48   | 4,31   |
|                             | N          | 191    | 191    | 193    | 193    |
|                             | Desb. tip. | ,614   | ,606   | ,596   | ,649   |
| <b>Zuzendaritza taldea</b>  | Batazb.    | 4,57   | 4,58   | 4,62   | 4,43   |
|                             | N          | 159    | 160    | 160    | 159    |
|                             | Desb. tip. | ,601   | ,577   | ,581   | ,689   |
| <b>HH eta LH irakasleak</b> | Batazb.    | 4,60   | 4,53   | 4,54   | 4,24   |
|                             | N          | 156    | 157    | 157    | 156    |
|                             | Desb. tip. | ,565   | ,572   | ,583   | ,713   |
| <b>BH irakasleak</b>        | Batazb.    | 4,62   | 4,59   | 4,50   | 4,28   |
|                             | N          | 127    | 128    | 129    | 130    |
|                             | Desb. tip. | ,533   | ,555   | ,588   | ,729   |
| <b>BH ikasleak</b>          | Batazb.    | 4,27   | 4,27   | 4,27   | 3,93   |
|                             | N          | 75     | 75     | 75     | 75     |
|                             | Desb. tip. | ,794   | ,811   | ,741   | ,905   |
| <b>Denera</b>               | Batazb.    | 4,54   | 4,51   | 4,51   | 4,28   |
|                             | N          | 708    | 711    | 714    | 713    |
|                             | Desb. tip. | ,616   | ,614   | ,611   | ,727   |



**F.- Balorazio orokorra**

**ITEM30**

| Estamentuak          | Batazb.     | N          | Desb. tip.  |
|----------------------|-------------|------------|-------------|
| Gurasoak eta tit.    | 4,38        | 193        | ,628        |
| Zuzendaritza taldea  | 4,52        | 159        | ,572        |
| HH eta LH irakasleak | 4,43        | 152        | ,572        |
| BH irakasleak        | 4,43        | 127        | ,584        |
| BH ikasleak          | 4,15        | 73         | ,720        |
| <b>Denera</b>        | <b>4,41</b> | <b>704</b> | <b>,613</b> |



## 6.- MARKO OROKORRAREN EBALUAZIO KUANTITATIBO ETA KUALITATIBOAREN LABURPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Curriculum bat egiterakoan, badaude oso erabaki funtsezkoak, hau da, ondoren curriculum hori garatzen eta zehazten denean eragin handia dutenak. Adibidez, honako hauek jo daitezke oso funtsezko erabakitzat: hezkuntza beharren diagnostikoa egitea, hezkuntzaren xedeak eta konpetentzia orokorrek hautatzea, curriculuma ikas arloen arabera antolatzea eta horiek hautatzea; izan ere, ikuspegi horien arabera, hezkuntzaren garapena era batekoa ala bestekoa izango da, ondorioz, ikas arloen planteamendua eta irakaskunta-ikaskuntza prozesua ere desberdina izango da. Funtsezko erabaki horiek ebaluatzea, gure ustez, hezkuntza komunitate osoari dagokio eta ez soilik irakaskuntzako profesionaleri. Are gehiago, hezkuntza eta gizarte eragileek ere badute horretan zer esana. Egia da ez dela erraza jakitea zein diren gaurko eta etorkizuneko euskal gizartearen beharrak, zein izan behar duten hezkuntzaren xedeak, zein diren bizitzarako beharrezkoak diren oinarriko konpetentziaak, ez irakasleentzat ez beste inorentzat ere; baina gai horien konplexutasunak ez du aitzakia izan behar eztabaida hori saihesteko eta ekiditeko. Bide horretatik jo da ausardiaz "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum"ren egitasmoan, eta ikastetxea osatzen duten estamentu guztiek (gurasoek eta titularrek), zuzendaritza taldeek, irakasleek eta ikasleek), zein aditu eta hezkuntza-gizarte eragileek parte hartu dute proposamenaren ebaluazioan.

Euskal Curriculumaren marko orokorra edo ardatza honako elementu hauek osatzen dute:

| Gaiak                                       | Azpigaiak  | Itemak   |
|---|--|--|
| <b>1.- Planteamendu orokorra</b>            | <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal Curriculumaren oinarriak<br/><i>Beharren diagnostikoa (8,3,2)</i><br/><i>Hezkuntzaren xedeak (1)</i><br/><i>Hezkuntzaren Konpetentzia Orokorrak (4,5)</i><br/><i>H.K.O.ak eta ikas arloak (6,7)</i></li> <li>Hautatutako ikas arloak</li> <li>Euskal Curriculum ebaluatzeko prozedura</li> <li>Planteamendu orokorraren balioespen globala</li> </ul>  | <p>1-8</p> <p>9-18<br/>19-21<br/>22</p>                  |
| <b>2.- Hezkuntza konpetentzia orokorrak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasten eta pentsatzen eta ikasi</li> <li>Komunikatzen ikasi</li> <li>Elkarrekin bizitzen ikasi</li> <li>Norbera izaten ikasi</li> <li>Egiten eta ekiten ikasi</li> <li>H.K.O.en balioespen globala</li> </ul>  | <p>1-6<br/>7-12<br/>13-17<br/>18-23<br/>24-28<br/>29</p> |
| <b>3.- Eduki metadiziplinarrak</b>          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Jarrera metadiziplinarrak:<br/><i>Pentsatzen, ikasten, egiten eta ekiten ikasi (1-9)</i><br/><i>Komunikatzen eta elkarrekin bizitzen ikasi (10-19)</i><br/><i>Norbera izaten ikasi (20-25)</i><br/><i>Jarrera metadiziplinarraen balioespen globala (26)</i></li> <li>Prozedura metadiziplinarrak:<br/><i>Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea (1-9)</i><br/><i>Informazioa bilatzea eta antolatzea (11-13)</i><br/><i>Ikaskuntza estrategiak eta lana antolatzea (14-21)</i><br/><i>Ekintzaille izan, gatazkak konpondu (22-25)</i><br/><i>Bizikidetzeta eta talde lana (26-29)</i><br/><i>Prozedura metadiziplinarraen balioespen globala (30)</i></li> </ul> | <p>1-26</p> <p>1-30</p>                                  |

## 6.1.- PLANTEAMENDU OROKORRA

Planteamendu orokorraren barruan, honako azpigai hauek sartzen dira:

| Gaia                      | Azpigaiak  | Itemak |
|---------------------------|--|--------|
| 1.- Planteamendu orokorra | • Euskal Curriculumaren oinarriak<br><i>Beharren diagnostikoa (8,3,2)</i><br><i>Hezkuntzaren xedeak (1)</i><br><i>Hezkuntzaren Konpetentzia Orokorrak (4,5)</i><br><i>H.K.O.ak eta ikas arloak (6,7)</i> | 1-8    |
|                           | • Hautatutako ikas arloak  | 9-18   |
|                           | • Euskal Curriculum ebaluatze prozedura  | 19-21  |
|                           | • Planteamendu orokorraren balioespen globala  | 22     |

Jarraian, emaitza kuantitatiboan eta kualitatiboan laburpena eta hobekuntza proposamenak aurkeztuko ditugu.

### 6.1.1.- Euskal Curriculumaren oinarriak (1.-8. itemak)

#### 6.1.1.1.- Emaitza kuantitatiboan laburpena:

Euskal Curriculumaren oinarrien inguruko itemek puntuazio altua lortu dute. 1 eta 5 bitarteko eskalan, denek lortu dute 4,26 puntu baino gehiago. Punturik baxuena 2.itemak lortu du (4.26 puntu) eta zera dio: *UNESCOko eta Europako Batzordeko txostenen (1996) erreferentzia esparruak, bai eta Euskal Curriculumaren proposamenen egiten den etorkizuneko beharren azterketak ere, egoki adierazten dituzte Euskal Herriko gizarteak eta hezkuntzak dituzten erroak.* 8. eta 4. itemek lortu dute puntu kopururik handiena, 4,71 eta 4,77, hurrenez hurren. 8. itemak zera zioen: *Euskal Curriculumak bermatu behar du euskararen eta euskal kulturaren transmisioa.* 4. itemak, berriz, esaten du *derrigorrezko eskolatzeak lortu behar duela ikasleak bizitzarako presta daitezela honako konpetentzia hauek barneratuta: pentsatzeko eta ikasteko gai izatea, komunikatzeko gai izatea, elkarrekin bizitzeko gai izatea, norbera izateko gai izatea, eta egiteko eta ekiteko gai izatea.*

Euskal Curriculumaren oinarrien inguruko balioespenetan antzemandako desberdintasunak analizatuko ditugu parte-hartzaileak taldekatze erabili ditugun aldagaien arabera (hizkuntza eredu, estamentua, lurralde eta eskola sarea). Honako hauek dira konturik aipagarrienak:

Hizkuntza ereduaren arteko desberdintasunak: kasu guztietan, D ereduak B eta A ereduak baino puntu gehiago ematen dituzte. Dena den, talde guztiek 4 puntu baino gehiago eman diete 8 itemei. Desberdintasuna ez da oso gorabeheratsua. Izan ere, 8. itemean bakarrik ailegatzen dira %10era desberdintasun horiek. Alderik handiena; euskara eta euskal kulturaren transmisioaz diharduenetan ematen da.

Estamentuen arteko desberdintasunak: bi kasutan izan ezik, talde guztiek, batez beste, 4tik gorako puntu kopurua ematen dute. Ikasleen taldea da kritikoa, eta, haren batezbestekoa 4tik behera dago 2. itemean (UNESCOren eta Europako Batzordearen erreferentzia esparrua) zein 5. itemean (Euskal Curriculumak nola interpretatzen dituen hezkuntza eskumen eta azpieskumen orokorrak), 3,89 eta 3,88 puntu ematen baitituzte hurrenez hurren. Maila guztietako irakasleek nahiz zuzendari taldeek oso modu positiboan balioesten dituzte galdetegi hau osatzen duten 8 gaiak.

Lurraldeen arteko desberdintasunak: lurraldeen artean ez dago desberdintasunik balioespenari dagokionez.

Eskola sareen arteko desberdintasunak: 8. itemean (*Euskal Curriculumak bermatu behar du euskararen eta euskal kulturaren transmisioa*) daude alderik handienak. Kristau Eskolak ematen dio puntu kopururik txikiena. Dena den, talde guztiek, batez beste, 4,20tik gorako puntuazio kopurua ematen diete item guztiei.

#### 6.1.1.2.- Euskal Curriculumaren oinarriak eta hobekuntza proposamenak:

“Euskal Curriculumaren oinarriak” izenburupean, hainbat oinarri daude: hezkuntza beharren diagnostikoa (8., 3., 2. itemak), hezkuntzaren xedeak (1. itema), hezkuntza konpetentzia orokorrak (4., 5. itemak) eta Hezkuntza Konpetentzia Orokorren eta ikas arloen arteko lotura (6., 7. itemak). Jarraian, oinarri horietako bakoitzaren balioespen kuantitatiboak eta kualitatiboak eta hobekuntza proposamenak aurkeztuko ditugu.

## 6.- Marko orokorraren ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboaren laburpena eta hobekuntza proposamenak

Egindako ebaluazioan oinarrituz, honako hauek dira, laburbilduz, oinarri horiei emandako puntuazioak:

|                           | Beharren diagnostikoa (8.,3.,2. itemak) |             |             | Hezkuntzaren Xedeak (1. itema) | Hezkuntzaren Konpetentzia Orokorrak (4.,5. itemak) | H.K.Oak eta Ikas arloak (6.,7. itemak) |             |             |
|---------------------------|---|-------------|-------------|--------------------------------|--|--|-------------|-------------|
|                           | 8                                       | 3           | 2           | 1                              | 4  | 5                                      | 6           | 7           |
| <b>ESTAMENTUAK</b>        |   |             |             |                                |  |  |             |             |
| Gurasoak eta titularrak   | 4.56                                    | 4.57        | 4.23        | 4.38                           | 4.75   | 4.29                                   | 4.57        | 4.58        |
| Zuzendaritza taldea       | 4.74                                    | 4.67        | 4.36        | 4.42                           | 4.76   | 4.38                                   | 4.64        | 4.69        |
| HH eta LHko irakasleak    | 4.88                                    | 4.62        | 4.33        | 4.40                           | 4.85   | 4.32                                   | 4.58        | 4.68        |
| DBH eta DBHO irakasleak   | 4.78                                    | 4.66        | 4.29        | 4.45                           | 4.78   | 4.31                                   | 4.60        | 4.68        |
| DBH eta DBHOko ikasleak   | 4.61                                    | 4.49        | 3.89        | 4.20                           | 4.69   | 3.88                                   | 4.26        | 4.35        |
| <b>IKASTETXE MOTA</b>     |   |             |             |                                |  |  |             |             |
| Ikastola                  | 4.94                                    | 4.68        | 4.35        | 4.59                           | 4.88   | 4.40                                   | 4.72        | 4.71        |
| Publikoa                  | 4.89                                    | 4.50        | 4.58        | 4.37                           | 4.71   | 4.27                                   | 4.63        | 4.54        |
| Kristau eskola            | 4.57                                    | 4.58        | 4.20        | 4.28                           | 4.72   | 4.22                                   | 4.47        | 4.58        |
| <b>LURRALDEAK</b>         |   |             |             |                                |  |  |             |             |
| Araba                     | 4.63                                    | 4.57        | 4.25        | 4.36                           | 4.62   | 4.32                                   | 4.66        | 4.63        |
| Bizkaia                   | 4.60                                    | 4.57        | 4.21        | 4.32                           | 4.77   | 4.18                                   | 4.59        | 4.60        |
| Gipuzkoa                  | 4.79                                    | 4.64        | 4.67        | 4.43                           | 4.80   | 4.34                                   | 4.63        | 4.65        |
| Nafarroa                  | 4.88                                    | 4.67        | 4.18        | 4.54                           | 4.86   | 4.33                                   | 4.54        | 4.52        |
| <b>HIZKUNTZA EREDUAK</b>  |   |             |             |                                |  |  |             |             |
| A                         | 4.38                                    | 4.49        | 4.13        | 4.16                           | 4.62   | 4.15                                   | 4.37        | 4.54        |
| B                         | 4.59                                    | 4.60        | 4.22        | 4.30                           | 4.71   | 4.23                                   | 4.53        | 4.57        |
| D                         | 4.91                                    | 4.67        | 4.33        | 4.53                           | 4.87   | 4.36                                   | 4.66        | 4.68        |
| <b>BALIOESPEN GLOBALA</b> | <b>4.71</b>                             | <b>4.61</b> | <b>4.26</b> | <b>4.39</b>                    | <b>4.77</b>  | <b>4.28</b>                            | <b>4.56</b> | <b>4.62</b> |

### A.- Hezkuntza beharren diagnostikoa:

#### Planteamendua:

Curriculuma baliagarria izango da baldin eta hezkuntza beharrei erantzuteko lagungarria bada. Euskal Curriculumean, hezkuntza beharren diagnostikoa egiten da (8.-14. or.), eta hiru itemen bidez (8.,3. eta 2. itemak) jaso da proposamen horren onespren mailaren informazioa:

**8. itema:** Euskal Curriculuma euskararen eta euskal kulturaren transmisioa bermatu behar du.

**3. itema:** Euskal Curriculuma barnean, Europan integratutako gizarte batean bizitzeko eta munduarekin elkareraginean bizitzeko beharrezkoak diren konpetentziaak sartu behar dira.

**2. itema:** UNESCOko eta Europako Batzordeko txostenen (1996) erreferentzia esparruak, bai eta Euskal Curriculuma proposamenean egiten den etorkizuneko beharren azterketak ere egoki adierazten dituzte Euskal Herriko gizarteak eta hezkuntzak dituzten erronkak.

Hiru item horiek bereizita agertzen dira, baina osotasuntzat hartu behar dira eta osagarritzat jo.

#### Balioespen kuantitatiboa:

- Euskal Curriculumean egiten den hezkuntza beharren diagnostikoak, goiko taulan ikusten den modura, onspren maila handia jasotzen du (balioespen globala: 8. itema=4.71, 3. item=4.61, 2. itema=4.26).

- Estamentu, ikastetxe mota, lurralde eta hizkuntza eredu desberdinen artean ez dago alde handirik; baina, hizkuntza ereduaren arabera eta ikastetxe-moten arabera, badaude aldeak, bereziki 8. itemean.
- Alde horiek, ez dira agertzen item horietan bakarrik, guztietan baizik. Joera moduan, hizkuntza ereduak dagokionez, onespren maila handiagoa erakusten dute D ereduak B ereduak baino, eta B ereduak A ereduak baino; eta ikastetxe motei dagokionez, onespren maila handiagoa erakusten dute ikastolek, eskola publikoak baino, eta eskola publikoak kristau eskolek baino. Betiere, esan bezala, guztietan, onespren maila handia da.
- 8. eta 3. itemek puntuazio handiagoa jasotzen dute 2. itemak baino.

#### **Balioespen kualitatiboa:**

- Sarritan gertatu da itemak modu soltean ulertu direla eta 8. itemari buruzko iritziak ematerakoan erdal hizkuntzen eta kulturen beharra azpimarratu dela. 3. itemari buruzko iritzietan, euskararen eta euskal kulturaren beharra azaldu da. Partikularra eta unibertsala uztartzea da Euskal Curriculumeko proposamenaren ardatzetako bat (“herritik mundura eta mundutik herrira”), eta bi mutur horien arteko etengabeko joan-etorria areagotu nahi da.
- 2. itemari buruzko iritzietan, maiz agertzen dira honako ideia hauek: planteamendua idealistegia eta utopikoa dela; Europako praktika oso urruti dagoela planteamendu teoriko horietatik; Euskal Herriaren beharren azterketa ez dela sakona; baterako hezkuntza ez dela aipatu ere egiten.

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

#### **Hobekuntza proposamenak:**

Planteamendua idealista eta utopikoa izatea eta Europako praktika planteamendu horretatik urrun egoteak ez dio balioa kentzen etorkizuna hobetzeko asmoz egiten den hezkuntza egitasmoari. Utopia beharrezkoa da tentsioa sortzeko eta ahaleginak helburu horri begira jartzeko.

Egia da Euskal Herriko egoeraren diagnostiko sakonagoa egin zitekeela. Euskal Curriculumaren egitasmoaren barnean, esparru teorikoa finkatu zenean (1988) eta adituen ekarpenak egin zirenean (2004)<sup>3</sup>, egoeraren diagnostiko sakonagoa egin zen, eta egina dago. Uste dugu eskolaldiari begira egiten den egoeraren diagnostikoa laburra baina esanguratsua dela eta, halaber, etorkizunari begira egiten den erronka (euskal kulturari dagokionez, zer dugun, eta, batez ere, zer eduki nahi dugun komunean Euskal Herrian bizi garenok) hezkuntza eragileoi dagokigun esparruko erronka dela. Sakon-sakoneko erronka gainera.

Baterako hezkuntzari egindako aipamena “berdintasunaren” arloaren barruan kokatu dugu, eta berdintasunaren aipamena maiz egiten da proposamen guztian zehar. Hala ere, komeni da generoen arteko berdintasuna eta baterako hezkuntzaren aipamena era esplizitoagoan egitea. Adibidez, “Beharren azterketa”ren atalean eta bereziki “Gizarte lotura gabeziatik, desberdintasunetik, bazterketatik eta indarkeriatik, gizarte kohesiora eta parte-hartze demokratikora” azpiatalean (13. or.), egin beharrekota da baterako hezkuntzaren eta berdintasunaren aipamena. Bestalde, komeni da Hezkuntza kompetentzia orokorraren barnean “Elkarrekin bizitzen ikasi” eta “Norbera izaten ikasi” kompetentziaetan ere aipamen zehatzagoak egitea.

Badira, testua hobetzen duten eta txertatzekoak diren ekarpen zehatzak.

## **B.- Hezkuntzaren xedeak**

#### **Planteamendua:**

Bizitza osorako hezkuntzaren xedeen proposamena egiten da, esanaz pertsonak gizabanako, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta kompetentzia gehien garatzea dela hezkuntzaren xedea. Bizitza osorako xede hori hartzen da derrigorrezko eskolaldirako oinarritzat (25.-29. or.). Proposamen horren onspen mailaren informazioa 1. itemaren bidez jaso da:

**1 itema:** Euskal Curriculumerako proposaturiko hezkuntzaren xedeak baliozko erreferentziak dira bizitza osorako, eta derrigorrezko eskolaldira zentzua eta orientazioa emateko.

#### **Balioespen kuantitatiboa:**

- Euskal Curriculumean egiten den hezkuntza xedeen proposamenak, goiko taulan ikusten den modura, onspen maila handia jasotzen du (balioespen globala= 4.39).

<sup>3</sup> GARAGORRI, X. / (Zuz): *Euskal Curricula: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*. EHIK, Donostia



- Estamentu, ikastetxe mota, lurralde eta hizkuntza eredu desberdinen artean ez dago alde handirik; guztiek onarpen maila berdintsua eman diote.

### Balioespen kualitatiboa:

- Behin baino gehiagotan aipatzen da hezkuntza xedek orokorregiak direla.
- Zentzu erlijiosoaren eta dimentsio espiritualaren hutsunea nabarmentzen dute beste batzuek.
- Genero ikuspuntutik, "giza, gizaki, gizabanako, gizarte..." hitzen erabilera aztertu behar litzateke, eta, "gizarte" terminoaren ordez, "jendartea" erabili.
- Hezkuntza xedek formulatzean, batzuen iritziak, ez da behar bezala (?) jasotzen hezkuntzaren bidez lortu behar den izaera askatzailea eta eraldatzailea.

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

### Hobekuntza proposamenak:

- Hezkuntzaren xedek orokorregiak direla aipatzen da, baina nahita daude horrela definituta. Batetik, xedek norabide osoa eta zabala erakusteko funtzioa dute, eta norabide horren zehaztasunak ondoren etorriko dira. Bestetik, zehaztasunak egiten hasiz gero, zaila litzateke gehiengoarentzat onargarria izan daitekeen proposamena egitea. Planteamendu orokorra egiteak eta testuan horrela jasotzeak ez du ukatzen, esparru orokor hori onartzen badu, bakoitzak bere aldetik zehaztu ahal izatea.
- Hezkuntza xedeei zentzu erlijiosoa eta espirituala falta zaiela esaten da. Aipatu berri dugun arrazoiarengatik, hau da, proposamena onargariagoa izan dadin, ez da azpimarratu bizitzaren zentzu erlijiosoa eta espirituala. Hala ere, pertsonaren ikuspegia norberaren esparru egozentrikotik gizartera eta izadira zabaltzen den neurrian, muin-muinean dago transzendentziaren ideia, eta, gizakia ulertzeko era azaltzen denean, esplizituki aipatzen da gizakiak berezkoa duen transzendentziarako kompetentzia. Edonola ere, proposamen horretan oinarrituz, posiblea da gizabanakoaren, gizartearen eta izadiaren izaerari eta garapenari zentzu erlijiosoa ematea.
- Ez dugu uste "jendarte" terminoak, genero ikuspegitik, "gizarte" terminoa hobetzen duenik. "Gizarte" terminoa genero markarik ez duen "izan" erroitik dator, giza, gizaki, izadi terminoen antzera. "Jendarte" terminoa, berriz, Erromako familia ulertzeko "gens" terminotik dator. "Gens" edo familia hori gure oraingo familia baino askoz ere zabalagoa zen, eta horren buru, famili osoaren jaun eta jabe, apaiza eta epaile funtzioa betetzen zuen "pater familias" zen.
- Hezkuntzaren izaera aldatzailea eta askatzailea ez da hezkuntzaren xedeen proposamenean jasotzen eta hori, gure ustez, hutsunea da. Hezkuntzaren beharrak aztertzen direnean (L, M, O puntuak, 13. or.) eta ondoren Hezkuntza Kompetentzia Orokorretan (bereziki Norbera izaten ikasi eta Egiten eta ekiten ikasi) eta Eduki metadiziplinarretan ere, hezkuntzaren izaera aldatzailea eta askatzailea kontuan hartzen dira. Beraz, logikoa da hezkuntzaren xedean ere dimentsio hori agertzea. Aurreko definizioaren ordez, beste hau proposatzen dugu: "Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, pertsona gizabanako gisa, gizartekide gisa eta izadikide gisa osoki eta era orekatuan garatzeko".

## C.- Hezkuntzaren Kompetentzia Orokorrak

### Planteamendua:

Hezkuntzaren xedek bizitza osorako formulatzen ditugu eta oso era zabalean. Hezkuntzaren xede horiek erdiesteko, Hezkuntza Kompetentzia Orokorrak lantzea bezalako biderik ez dago. Ondo pentsatzen eta ikasten dakiena, ondo komunikatzen dakiena, elkarrekin bizitzen dakiena, norbera izaten dakiena eta egiten eta ekiten dakiena prestatuta dago hezkuntzaren xedek lortzeko. Euskal Curriculumean, Hezkuntza Kompetentzia Orokorren proposamena egiten da (29.-36. or.) eta proposamen horren onespren mailaren informazioa bi itemen bidez (4. eta 5. itemak) jasotzen da:

**4. itema:** Derrigorrezko eskolaldiaren funtzio nagusia ikasleak bizitzarako presta daitezkeen lortzea da; horretarako, gai izan behar dute pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta egiten eta ekiten ikasteko.

**5. itema:** Bat nator hezkuntza kompetentzia eta azpikompetentzia orokorrei buruz Euskal Curriculumean egiten den interpretazioarekin.

#### **Balioespen kuantitatiboa:**

- Euskal Curriculumean egiten den Hezkuntza Konpetentzia Orokorren proposamenak, goiko taulan ikusten den modura, onespren maila handia jasotzen du (balioespen globala: 4. itema=4.77, 5. itema=4.28).
  - Estamentu, ikastetxe mota, lurralde eta hizkuntza eredu desberdinen artean ez dago alde handirik; guztiek onarpen maila berdintsua eman diote.
- Deigarria da, bereziki, 4. itemaren onespren maila handia, item guztien artean handiena. Emaitza horrek argi adierazten du, hezkuntza eragileen ustez, derrigorrezko eskolaldiaren funtzio nagusia bizitzarako prestatzea dela eta horretarako hezkuntza konpetentzia orokorrak landu behar direla. Ideia hori indarrean jartzen bada, orain arteko eskolaren funtzioa eta praktika eralda ditzake.
- Hemen ez dugu 5. itemaren iruzkinik egingo; izan ere, item horren edukia askoz ere zehatzago eta sakonago aztertuko da jarraian.

#### **Balioespen kualitatiboa:**

Item horien inguruan ez da balioespen kritikorik egiten proposamena hobetzeko asmoz, onarpen maila handia jasotzen baitu. Hezkuntza konpetentzia orokorren ardura norena den argitzeko asmoz egiten dira iruzkinak. Gurasoengan eta titularrengan ez ezik, profesionalengan, antzeko kezka azaltzen da: nori dagokio hezkuntza konpetentzia orokorrak lantzea? Iritzien artean, badira zenbait irakasle erantzukizun gehiegi eskatzen zaiela diotenak; eta gurasoen eta irakasleen artean, badira familiaren funtzioa funtsezkoa dela eta familiaren eta gizartearen inplikazioa behar dela aipatzen dutenak.

#### **Hobekuntza proposamenak:**

Hezkuntza Konpetentzia Orokorren proposamena aztertzen bada, berehala jabetu daiteke horiek lantzea ez dagokiela irakasleei soilik, neurri handi batean gurasoei dagokiela eta gizartearen eta komunikabideen ardura ere badela. Hori horrela da Hezkuntza Konpetentzia Orokor guztietan eta, bereziki, "Elkarrekin bizitzen ikasi" eta "Norbera izaten ikasi" konpetentziaetan. Irakasleei dagokienez, bakoitzak bere ikas arlotik landuko ditu konpetentzia orokor horiek, eta gurasoen eginkizuna izango da eguneroko bizitzaren arian konpetentzia horiek lantzea. Hala, batetik, gurasoen eta irakasleen arteko lankidetzaren beharra areagotzen da, eta, bestetik, Hezkuntza Konpetentzia Orokorren ebaluazioan, gurasoek ere badute zer esana.

Ez da hitz egiten familiak eta gizarteak hezkuntzaren garapenean, oro har, eta, zehazki, hezkuntza konpetentzia orokorren garapenean duten arduraz, eta, hobekuntza moduan, hutsune hori bete egin behar da.

### **D.- Hezkuntza Konpetentzia Orokorren eta Ikas arloen arteko lotura**

#### **Planteamendua:**

Hezkuntza Konpetentzia Orokorren planteamendua haizeak eramango du eta ez du heldulekurik izango ez badira konpetentzia orokor horiek ikas arloetan eta jardueretan uztartzen. Egoera eta jarduera jakinetan gauzatzean bakarrik ikus daiteke Hezkuntza Konpetentzia Orokorren lortu diren ala ez. Adibidez, ikasle batek jakin dezake testu bat analizatzen eta beste batekin erkatzen, baina egoera jakin horretan analizatzeko eta erkatzeko gai izateak ez du besterik gabe ziurtatzen abesti bat analizatzeko eta beste abesti batekin erkatzeko gai izatea. Antzeko zerbait esan daiteke Hezkuntza Konpetentzia Orokorren eta Hezkuntza Xedeen arteko harremanari buruz. Lotura horiek egin behar direla jabetzeko eta duten garrantzia ebaluatzeko asmoz prestatu da 7. itemaren mezua.

Curriculum batean aipatu berri dugun Hezkuntza xedeen, Hezkuntza konpetentzia orokorren eta ikas arloen arteko deribazio edo eratortze prozesua egokia izan daiteke, baina paperean gera daiteke irakasleek irakaslanean hori gauzatzen ez badute. 6. itemak gai horrekin du zerikusia:

**Item 6:** Irakasleek, aritzen diren hezkuntza maila edozein dela ere, ikas arloen irakaskuntzarekin integratu behar dituzte hezkuntza konpetentzia orokorrak beren irakaslanean.

**Item 7:** Ikas arloek lotuta egon behar dute hezkuntzaren xedekin eta hezkuntza konpetentzia orokorrekin, eta horiek lortzera bideratu egon behar dute.

#### **Balioespen kuantitatiboa:**

- Euskal Curriculumean Hezkuntza Konpetentzia Orokorren eta Ikas arloen arteko loturari buruz egiten den planteamendua, goiko taulan ikusten den modura, onespren maila handia jasotzen du (balioespen globala: 6. itema=4.56, 7. itema=4.62).
- Estamentu, ikastetxe-mota, lurralde eta hizkuntza eredu desberdinen artean ez dago alde handirik, guztiek onarpen maila berdintsua eman diote.

Emaitza kuantitatibo horiek Euskal Curriculumeko hezkuntza ereduaren onarpena bermatzen dute eta, orobat, irakasleak hezkuntza xedeen, konpetentzia orokorren eta ikas arloen arteko loturaz jabetzen direla.

### Balioespen kualitatiboa:

Gai horri buruz egiten diren iruzkinak ez dute planteamendua zalantzan jartzen. Zalantzak eta kezak, eta asko gainera, planteamendu hori gauzatzeko behar diren baldintzei buruzkoak dira:

- Batetik, planteamenduaren aldaketak sortzen dituen kezak: “pentsamenduaren aldaketa sakona dakar...; praktikaren aldaketa...; nola pasatu eredu akademizista batetik...; DBHko arloetako irakasleak espezialistak dira, ez hezitzaileak...; gurasoek jakin nahi dugu ikasleen ebaluazioa, notak, azterketak nolakoak izango diren ...; zuzendaritza berritu behar da honako hau lortzeko: enpresa ikuspegitik haratago konprometituko dela, ikasleengan zentratuko dela, gurasoen esparrua indartuko duela eta curriculum garatzen eta ebaluatzen gauzatzen ari tuko dela...”.
- Planteamendu hori noren bizkar gainean jarriko den: “hori guztia eskolatik bakarrik ezin da eraman..., irakasleei erantzukizun gehiegi eskatzen zaigu...; non azaltzen dira gurasoen betebeharrak?...; familiaren parte-hartzea beharrezkoa da...; ez da nahikoa ikastetxeak egiten duena; gizarteak ere zerbait egin beharko du...; hezkuntza konpetentziaak garatzea ez da irakasleen lana bakarrik, gizartearena eta, bereziki, gurasoena ere bada, ikasleena era badela ahaztu gabe...”.
- Planteamendua aurrera eramateko prestakuntzaren eta motibazioaren beharra: “irakasleok prestakuntza beharko dugu..., irakasleen prestakuntzaz ez da ezer esaten...; irakasleok birgaitu eta motibatu beharko gaituzte..., ikasleen prestakuntza bezala, gurasoen prestakuntza ere bideratu behar da...”.
- Planteamendua aurrera eramateko ikasmaterialen beharra: “material kurrikular bereziak prestatu beharko dira...; euskarazko materialgintzan, kontuan hartu beharko da euskara ardatza dela...”.
- Planteamendua aurrera eramateko giza eta ekonomia baliabideak: “ratioak, koordinazio orduak hartu behar dira kontuan ..., ikasle kopurua murriztu beharko da konpetentziaak hobeto lantzeko...; hori guztia aurrera eramateko, ekonomia egonkorra behar da...; zalantza egiten dugu administrazioaren dirulaguntzarik gabe lor daitekeenik...”.

### Hobekuntza proposamenak:

Atal horretan ez dugu oraingoz hobekuntza proposamenik egingo. Argi dago Euskal Curriculumean egiten den hezkuntza planteamendua indarrean jartzeko aipatu berri ditugun baldintzak eta beste batzuk ere beharrezkoak izango direla eta horiek aurrez ikusi behar direla, baina, oraingoz, curriculum proposamena aztertzen eta balioesten ari gara. Proposamen hori, lan honen Atarikoan esaten den bezala, orientagarria da eta hezkuntza eta gizarte erakundeen esku jartzen da. Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa erabakitzen denean, berriz, hori indarrean jartzeko beharrezkoak diren baliabideak aurreikusi beharko dira.

### 6.1.2.- Hautatutako ikas arloak (9.-18. itemak)

#### Planteamendua:

Ikas arloak hautatzea da Curriculum bateko oinarritzko beste erabakietako bat. Euskal Curriculumeko proposamena Derrigorrezko eskolaldiaren bukaerako egiten da; beraz, epe horren bukaerako arloak hautatu dira. Horrek ez du esan nahi Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan ikas arlo horiek izan behar dutenik. Ikas arloen proposamena 29.-36. orrialdeetan egiten da, eta proposamen horren onespren mailaren informazioa 9.-18. bitarteko itemen bidez jaso da:

**9. itema: Hizkuntzak eta Literatura** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldirako. I

**10. itema: Hizkuntzak eta Literatura** arloko antolamenduaren ezaugarriek honako hauek izan behar dute: antolamendu eleaniztuna izan behar du, euskara ardatz duela, eta hizkuntzen antolamendu integratua izan behar du; hau da, esparru komun batean, hizkuntzek elkarren osagarri izan behar dute

**11. itema: Matematika** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

**12. itema: Teknologia** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

**13. itema: Musika eta Dantza** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

**14. itema: Plastika eta Ikus Adierazpena** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

**15. itema: Gizarte Zientziak** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

**16. itema: Mundu ikuskerak eta Erljiioak** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

**17. itema: Natur Zientziak eta Osasun Zientziak** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

**18. itema: Tutoretza eta Orientazioa** arloa Euskal Curriculumeko ikas arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.

Item horiek prestatzerakoan, akats bat egin da; izan ere, "Gorputz Hezkuntza" arloa planteamendu orokorraren ebaluazio honetan ez da sartu, nahiz eta Euskal Curriculum osatzen duten 10 ikas arloen artean hautatu den eta beste ikas arloen antzera horren ebaluazioa ere egiten den.

Hautatu ditugun arlo gehienak ohikoak dira, bi izan ezik: Mundu ikuskera eta Erljiioak eta Tutoretza eta Orientazioa.

#### Balioespen kuantitatiboa:

Egindako ebaluazioan oinarrituz, honako hauek izan dira, laburbilduz, hautatutako ikas arloei buruz emandako puntuazioak:

|                                | 9           | 10          | 11          | 12          | 13          | 14          | 15          | 16          | 17          | 18          |
|--------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| <b>ESTAMENTUAK</b>             |             |             |             |             |             |             |             |             |             |             |
| <b>Gurasoak eta titularrak</b> | 4.60        | 4.11        | 4.63        | 4.48        | 4.24        | 4.33        | 4.61        | 4.22        | 4.64        | 4.65        |
| <b>Zuzendaritza taldea</b>     | 4.70        | 4.38        | 4.79        | 4.60        | 4.49        | 4.54        | 4.74        | 4.39        | 4.75        | 4.72        |
| <b>HH eta LHko irakasleak</b>  | 4.69        | 4.56        | 4.72        | 4.55        | 4.53        | 4.51        | 4.70        | 4.30        | 4.65        | 4.73        |
| <b>DBH eta DBHO irakasleak</b> | 4.78        | 4.38        | 4.83        | 4.61        | 4.51        | 4.58        | 4.75        | 4.39        | 4.76        | 4.69        |
| <b>DBH eta DBHoko ikasleak</b> | 4.32        | 4.07        | 4.55        | 3.94        | 3.55        | 3.80        | 4.43        | 3.47        | 4.47        | 4.45        |
| <b>IKASTETXE MOTA</b>          |             |             |             |             |             |             |             |             |             |             |
| <b>Ikastola</b>                | 4.80        | 4.75        | 4.82        | 4.71        | 4.60        | 4.63        | 4.77        | 4.18        | 4.78        | 4.74        |
| <b>Publikoa</b>                | 4.63        | 4.47        | 4.56        | 4.47        | 4.42        | 4.47        | 4.59        | 2.45        | 4.53        | 4.53        |
| <b>Kristau eskola</b>          | 4.56        | 4.06        | 4.66        | 4.37        | 4.19        | 4.28        | 4.62        | 4.38        | 4.62        | 4.64        |
| <b>LURRALDEAK</b>              |             |             |             |             |             |             |             |             |             |             |
| <b>Araba</b>                   | 4.59        | 4.04        | 4.65        | 4.46        | 4.32        | 4.41        | 4.68        | 4.29        | 4.62        | 4.65        |
| <b>Bizkaia</b>                 | 4.64        | 4.11        | 4.70        | 4.44        | 4.32        | 4.36        | 4.63        | 4.14        | 4.62        | 4.65        |
| <b>Gipuzkoa</b>                | 4.67        | 4.49        | 4.74        | 4.54        | 4.33        | 4.44        | 4.71        | 4.35        | 4.72        | 4.70        |
| <b>Nafarroa</b>                | 4.59        | 4.63        | 4.68        | 4.54        | 4.51        | 4.46        | 4.60        | 3.83        | 4.68        | 4.63        |
| <b>HIZKUNTZA EREDUAK</b>       |             |             |             |             |             |             |             |             |             |             |
| <b>A</b>                       | 4.53        | 3.78        | 4.64        | 4.33        | 4.18        | 4.23        | 4.51        | 4.35        | 4.55        | 4.65        |
| <b>B</b>                       | 4.56        | 4.05        | 4.65        | 4.35        | 4.13        | 4.27        | 4.66        | 4.39        | 4.65        | 4.61        |
| <b>D</b>                       | 4.74        | 4.67        | 4.77        | 4.63        | 4.51        | 4.55        | 4.73        | 4.09        | 4.74        | 4.71        |
| <b>BALIOESPEN GLOBALA</b>      | <b>4.65</b> | <b>4.31</b> | <b>4.71</b> | <b>4.49</b> | <b>4.34</b> | <b>4.41</b> | <b>4.67</b> | <b>4.23</b> | <b>4.67</b> | <b>4.67</b> |

Ikas arloei dagozkien 10 itemen puntuazio oso altua da. Honako arlo hauek lortu duten balioespenik hoberena (batez beste, 4,71 eta 4,67) eta, beraz, onarpen mailarik altuena: Matematika, Gizarte Zientzia eta Natura Zientziak. **Munduaren ikuskerak eta erljiioak** arloak lortzen du balioespenik okerrera (4,23); dena den onarpen maila ere oso handia da arlo horretarako.

Ikas arloen balioespenetan antzemandako desberdintasunak analizatuko ditugu parte-hartzaileak taldekatzeko erabili ditugun aldagaien arabera (hizkuntza eredu, estamentua, lurralde eta eskola sarea). Honako hauek dira konturik aipagarrienak:

- **Hizkuntza ereduaren arteko desberdintasunak:** Oro har, D ereduak balioespen hobeak eman dituzte A eta B ereduak baino. **Hizkuntzak** arloan dira bereziki aipagarriak desberdintasun horiek. **Teknologia, Musika eta Plastika eta ikus Adierazpena** arloetan era badira desberdintasunak zentzu berean. B ereduak, berriz, batezbesteko baxuagoa ematen diote **Munduaren Ikuskerak eta Erliijoak** arloari.
- **Estamentuen arteko desberdintasunak:** Ikasleen taldeak ematen ditu puntuaziorik baxuenak arlo guztietan. Talde horrek, bereziki, honako arlo hauekin da kritikoa: **Munduaren Ikuskerak eta Erliijoak** (3,47) eta **Musika eta dantza arloak** (3,55) eta **Teknologia** (3,94) eta **Plastika eta ikus Adierazpena** (3,80) arloak. Beste estamentuek- irakasleek, titularrek, eta zuzendaritza taldeek- oso modu positiboan balioesten dituzte arlo guztiak; baina badira desberdintasun txiki batzuk; esaterako, ikastetxeen jabeek jarrera okerxeagoa agertzen dute.
- **Lurraldeen arteko desberdintasunak:** Hizkuntzak eta Literatura arloan daude desberdintasun handienak lurraldeen artean: bizkaitarrek eta arabarrek puntu-kopuru txikiago (4,04 eta 4,11) ematen dute nafarrek eta gipuzkoarrek baino (4,63 eta 4,49) baino. **Munduaren ikuskerak eta Erliijoak** arloan, berriz, nafarrek eta bizkaitarrek puntuazio baxuagoa (3,83 eta 4,14) ematen dute arabarrek eta gipuzkoarrek baino (4,29 eta 4,35).
- **Eskola sareen arteko desberdintasunak:** 16. itemean (Munduaren ikuskerak eta Erliijoak) agertzen dira alderik handienak; eta, ikastetxe publikoetan, esaterako, oso puntuazio baxua (2,45) jasotzen du. Halaber, kristau eskoletakoek besteek baino puntuazio gutxiago ematen diote **Hizkuntzak eta Literatura** arloari: 4,06 puntu kristau eskolakoek; 4,47 ikastetxe publikoek, eta 4,74 ikastolek.

#### Balioespen kualitatiboa:

Ikas arlo bakoitzari buruzko balioespen kritikoak eta hobekuntza proposamenak azaltzeko, hau baino leku egokiagoa da ikas arlo bakoitzaren aurkezpen osoa jasotzen duen atala. Hemengo helburua zera da: ikas arlo horiek hautatzea ontzat ematen den ala ez jakitea, eta balioespen kualitatiboaren laburpena horretara mugatzen da. Hizkuntza eta Literatura, Matematika, Teknologia, Plastika eta Ikus adierazpena, **Gizarte Zientziak eta Natur eta Osasun Zientziak** arloek ez dute inolako zalantzarik sortzen, beraz, ez dugu horien aipamenik egingo. 10. itemak (hizkuntza ereduak) eta 16. itemak (Munduaren ikuskerak eta Erliijoak) sortzen dituzte zalantzarik handienak. Beste ikas arloek --**Musika eta Dantza** (13. itema) eta **Tutoretza eta Orientazioak** (16. itema)-- zalantza batzuk sortzen dituzte. Gorputz Heziketaren hutsunea aipatzen da, baina, lehen esan bezala, hutsune hori ez da benetakoa inkestan horren inguruko item bat sartzea ahaztu baitzen.

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak*

#### Hizkuntza ereduari buruzko balioespenak (10. itema)

Euskara ardatz duen ele askotariko hizkuntzen planteamendu integratua egiteak adostasun maila handia jasotzen du (4.31), baina multzo horretako beste itemak baino txikiagoa. Gehiago zehaztuz, ez da kritikatzeko hizkuntzen planteamendua ele askotarikoa izatea eta hizkuntzen arteko planteamendu integratua egitea, baina desadostasunak bi gai hauetan agertzen dira: zer-nolako eleaniztasuna izan behar duen eta batez ere euskarak izan behar ote duen eleaniztasunaren ardatz.

Eleaniztasunari buruz, laburbilduz, honako irizpide kritiko hauek agertzen dira:

“Lau hizkuntza lantzea gehiegizkoa deritzogu, hiru hizkuntzekin nahikoa dela uste dugu”.

“Ez da logikoa ikusten ingelesa atzerriko lehen hizkuntza izatea. Nazio kontzientzia badugu, hegoaldean frantsesak izan behar luke eta iparraldean espainolak”.

“Eleanitza bai, euskara eta gaztelania ardatz dituelarik”.

“Eleaniztasuna bai, baina hizkuntza ardatza hautatzeko askatasunarekin”.

“Eleaniztasunaren ardatza ez du zertan euskarak izan”.

“Ardatza ez da euskara, eleaniztasuna baizik”.

“Ez gaude ados euskara ardatz izatearekin, gaztelaniak ere ardatz izan behar du, eta etorkizun hurbilean ingelesak ere bai”.

Euskara ardatz izateaz, laburbilduz, honako irizpide kritiko hauek jasotzen dira:

“Gaztelania eta frantsesa ere Euskal Herriko hizkuntzak dira”.

“Elebitasuna ofiziala da, eta, euskara aipatzen duen lekuetan, gaztelania ere jarri beharko da”.

“Hizkuntza ofizialak ipini euskara ardatz jartzen duen lekuan”.

“Ama hizkuntzak izan behar du eskolatzeko hizkuntza nagusia”.

“Gaztelania ardatz bilakatu, gure ama hizkuntza gaztelania delako”.

“Euskara ardatza ama hizkuntza euskara denean”.

“Euskara ardatza lurraldearen, ereduaren eta jatorriaren arabera”.

“Euskara ardatza ikastetxe bakoitzaren hizkuntza ereduaren arabera”.

“Ikasleak kompetentzia handien duen hizkuntzak izan behar du ardatza”.

“Euskara ardatz bilakatu eta ez eman gaur egun ardatz balitz bezala”.

“Euskara eta gaztelera ezin dira berdintzatatu. Euskara esplizituki bultzatu behar da”.

### **Musika eta Dantzari buruzko balioespenak (13. itema)**

Derrigorrezko eskolaldian “Musika eta Dantza” ikas arlo moduan lantzeak adostasun handia jasotzen du (4.34), baina ikas arloen artean, atzetik hasita, bigarren baxuena. Baten batek ez du arlo horren premiarik ikusten: “Arlo gisa ez jarri”. Beste batek dantza kenduko luke: “Ez dugu ongi ikusten dantza DBHn lantzea”. Bada hautazkotzat jarriko lukeena: “Musika eta Dantza hautazkotzat jarri”. Gehiago dira Musika eta Dantza arloa beste arlo batekin uztartuko lutekenak: Dantza Gorputz Heziketaren barnean landu daitekeela uste dugu”; “Gorputz adierazpena dantza baino gehiago litzateke”, “Musika, dantza eta Erljioa arloka hartu beharrean, arlo batean txertatu”; “Musika eta Dantza Gorputz hezkuntzan integratu”. Badira arlo hori osatzeko premia ikusten dutenak: “Dantza bezala, dramatizazioa ere landu behar litzateke”; “Antzerkia ere sartu behar da”.

### **Mundu ikuskerak eta Erljioak (16. itema)**

“Mundu ikuskerak eta Erljioak” arloa ez da ohikoa gure testuinguruan, hala ere, derrigorrezko eskolaldian ikas arlo moduan lantzeak adostasun handia jasotzen du (4.23), baina, ikas arloen artean, baxuena.

Badira arloa kendu nahi dutenak: “Diziplina hori ez dugu arlotzat jotzen”, “Eskolatik kanpo ere erlijioa lantzeko aukera dute eta ez da bizitzarako beharrezkoa”; “Onartezina den akats larria da”; “Mundu ikuskerak eta Erljioak kendu”. Arloa Kristau eskoletara mugatu: “Kristau eskolak erlijioa emateko eskubidea izan dezala”.

Gehiago dira arloa birplanteatzeko beharra sumatzen dutenak; “Mundu ikuskerak ikastea garrantzitsua da, baina erlijioarena ez dugu hain argi ikusten”; “Ez dezagun mundu ikuskeren atzean erlijioa sartu. Erljioa elizetan”; “Erljio hitza kendu eta mundu ikuskerak utzi”; “Erljioak ez luke arlo propiorik behar; Mundu ikuskeren barnean behar du”; “Erljioaren izaeraren ezagutza edo historia izan beharko luke eta Mundu ikuskeran txertatua”; “Erljioaren historia eta ez erlijio jakin bat”; “Erljioa eremu pribatuan lantzeko dela uste dugu; horrenbestez, ez du zertan azaldu”.

Badira arlo hori beste arlo batean sartzea egokiago ikusten dutenak: “Mundu ikuskerak eta erlijioak ez dugu ikasgaitzat jotzen, beste ikasgairan bat barruan baizik (gizarte)”, “Gizarte, etika eta filosofia arloen barruan sartu behar da”; “Erljioa Mundu ikuskeren barnean sartu eta Mundu ikuskerak Filosofiaen barnean”; Gizarte arloan sartu behar da” (askok); “Etikaren ikuspuntutik ikusita, hobe; garrantzitsua da, eta soziologiaren ikuspuntutik ere azter daiteke”; “Erljio hitza kendu; erlijioa filosofia moduan landu bai, baina doktrina gisa ez du lekurik derrigorrezko eskolaldian”; “Filosofia eta Historiaren ikuspegitik landu”.

### **Tutoretza eta Orientazioa (18. itema)**

Arlo hori ere ez da ohikoa ezagutzen ditugun curriculumetan. Hala ere, oso ondo onartu da ikas arlo hori derrigorrezko eskolaldian sartzea (4.67), eta estamentu, ikastetxe-mota, lurralde eta hizkuntza eredu guztietan onarpen maila handia jaso du. Hala ere, badira desadostasun batzuk, baina ez asko: “Tutoretza eta Orientazioa ez da arlo bat”, “Ez dugu uste besteak bezain garrantzitsua denik, beste tratamendu bat behar du”; “Tutoretza orduak ez du ikasleriaren ordutegian eraginik izan behar. Irakasleriaren eskola orduetatik kanpo egin behar litzateke”.

### **Hobekuntza proposamenak:**

Argi geratzen da Hizkuntzak eta Literatura, Matematika, Teknologia, Plastika eta Ikus adierazpena, Gizarte Zientziak, Natura eta Osasun Zientziak eta Tutoretza eta Orientazio arloek onspen osoa jaso dutela.

Gorputz Heziketaren kasuan, ez dugu galdetu sartu behar den ala ez, eta, beraz, ez dugu daturik, baina, gure ustez, ezin da zalantzatan jarri gorputz heziketa zein garrantzitsua den bizitzarako ondo prestatuta egoteko.

“Musika eta Dantza” arloak zalantza batzuk sortzen ditu, baina, gure ustez, arlo horrek garrantzia handia du bizitzan, gizabanakoaren garapenaren eta bizi pozaren ikuspegitik, eta derrigorrezko eskolaldian ematen zaion baino garrantzi handiagoa eman behar litzaioke. Are gehiago, euskal curriculumaren helburuetakoa bat euskal kultura espezifikoa transmititzea bada, musikaren eta dantzaren bidezkoak dira euskal kulturaren adierazpen nagusietarikoak, eta gure nortasuna eta taldekidetasuna suspertzeko bide eraginkorrek dira. Besterik da ikas arlo hori emateko giza baliabideen eskasia, bai musika, bai dantza irakasteko eta zer esanik ez biak batera irakasteko. Baina, beharra sumatuko balitz, errazagoa litzateke irtenbideak aurkitzea.

Ezin da ukatu erlijioa ikastetxeetan irakatsi behar izateak polemika pizten duela. Hala ere, “Mundu ikuskerak eta Erljioak” arloa derrigorrezko eskolaldian sartzea, oro har, begi onez ikusi da (4.23). Gure ustez, datu hori oso kontuan hartzekoa da. Gutxi kendu nahi dute arlo hori, eta hainbatek birplanteatu edota beste arlo batzuekin uztartu nahi dute arloa. Mamuak alde batera utziz, hezkuntzako sektore zabalak begi onez ikusten du arlo hori curriculumean era batera edo bestera uztartzea. Hobekuntza proposamen zehatzagoa egiteko, beharrezkoa da arlo honetan egiten den planteamendu zehatzari buruzko balioespena ezagutzea. Ikas arloaren balioespenean egingo da hori.

“Hizkuntza ereduen” proposamenak onespren maila handia jaso du (4.31), baina baita kritikak ere. Euskara “ardatz”tzat agertzeak batzuen sentiberatasunari min egiten die eta aurkako jarrerak pizten ditu. Aztertzea da ea euskara “ardatz” dela mantentzea edo kentzea komeni den ala ez. Euskara “ardatza” dela esatea badu balio sinbolikoa, “gaztelania” edo “frantsesa” dela esatea duen bezala. Praktikotasunari begira, gaiaren gakoa ez da “ardatz” izan behar duela aldarrikatzea, euskararen ezagutza hizkuntza ofizialaren (frantsesa) edo koofizialaren (gaztelania) maila berekoa izatea baizik. Hizkuntzak eta Literatura arloan, hizkuntza maila bera eskatzen zaie bi hizkuntzetan, hau da, berezko erabiltzailearen maila lortzea (B2). Hori onartzen eta lortzen bada, euskara “ardatza” den ala ez esatea egoeraren arabera izan daiteke. Argi dagoena eta frogatuta dagoena zera da: gaurko A eta B ereduen antzeko planteamenduekin, ikasleek ez dute lortuko euskaraz B2 hizkuntza maila. Iritzi horren arabera, honako hauek aztertu behar dira: “Beharren azterketa”, H puntua, 13 or. eta “Hizkuntzak eta Literatura, 99. or”

### 6.1.3.- Euskal Curriculum ebaluatzeko prozedura (19.-21. itemak)

#### Planteamendua:

Curriculum baten balioak eta curriculum horri egiten zaion ebaluazioaren balioak parte hartzeko eta ebaluatzeko prozedurekin dute zerikusia. Informazio eta balioespen prozedurei eta erabakiak hartzeko prozedurei buruzko informazioa 44.-46. orrialdeetan jasotzen da, eta proposamen horren onspren mailaren informazioa, berriz, 19., 20. eta 21. itemen bidez jaso da:

**19. itema:** Euskal Curriculum balioesteko eta legitimatzeko, funtsezkoak dira elementu horiek: interesatuen partaidetza, erabakiak hartzeko prozedurak eta proposamenaren onarpen maila.

**20. itema:** Euskal Curriculumaren informaziorako, balioespenerako eta erabakiak hartzeko prozedurekin bat nator.

**21. itema:** Komenigarria eta garrantzitsua litzateke Euskal Herriko hezkuntza administrazioak ados jartzea, Euskal Curriculum oinarritzeko eta komunari buruzko proposamen bateratua egiteko.

#### Balioespen kuantitatiboa:

Egindako ebaluazioan oinarrituz, honako hauek izan dira, laburbilduz, proposamena ebaluatzeko prozedurari buruz emandako puntuazioak:

|   | 19   | 20   | 21   |
|---|------|------|------|
| <b>ESTAMENTUAK</b>                      |      |      |      |
| <b>Gurasoak eta titularrak (jabeak)</b> | 4.35 | 3.83 | 4.57 |
| <b>Zuzendaritza taldea</b>              | 4.46 | 3.76 | 4.52 |
| <b>HH eta LHko irakasleak</b>           | 4.54 | 3.92 | 4.73 |
| <b>DBH eta DBHO irakasleak</b>          | 4.54 | 3.68 | 4.65 |
| <b>DBH eta DBHoko ikasleak</b>          | 4.32 | 3.83 | 4.49 |
| <b>IKASTETXE MOTA</b>                   |      |      |      |
| <b>Ikastola</b>                         | 4.59 | 3.91 | 4.77 |
| <b>Publikoa</b>                         | 4.61 | 4.13 | 4.17 |
| <b>Kristau eskola</b>                   | 4.36 | 3.72 | 4.50 |
| <b>LURRALDEAK</b>                       |      |      |      |
| <b>Araba</b>                            | 4.45 | 3.82 | 4.60 |
| <b>Bizkaia</b>                          | 4.40 | 3.62 | 4.49 |
| <b>Gipuzkoa</b>                         | 4.49 | 3.93 | 4.70 |
| <b>Nafarroa</b>                         | 4.41 | 3.93 | 4.53 |
| <b>HIZKUNTZA EREDUAK</b>                |      |      |      |
| <b>A</b>                                | 4.28 | 3.68 | 4.39 |
| <b>B</b>                                | 4.40 | 3.65 | 4.49 |
| <b>D</b>                                | 4.54 | 3.94 | 4.75 |
| <b>BALIOESPEN GLOBALA</b>               | 4.45 | 3.81 | 4.60 |

Multzo horretan agertzen diren hiru gaiak adostasun maila handia lortzen dute, baina 20. itemak lortzen du puntuaziorik okerrera (3,81). Informaziorako, balioespenerako eta erabakiak hartzeko prozedurari buruzko proposamena da galdegaia item horretan. 19. (erabakiak hartzeko prozeduratan interesatuek parte hartzea) eta 20. itemei (Administrazio guztiak ados jartzea euskal curriculum oinarritzko eta komuna proposatzeko) garrantzi handia ematen zaie: 4,45 puntu eta 4,60 puntu, hurrenez hurren.

Hizkuntza ereduen arteko desberdintasunak: Planteatutako hiru gaietan, adostasun handia dago; hala ere, D eredukoek balioespen hobexegoa ematen dute.

Ez dago desberdintasun handirik estamentuen artean. Eskola sareei dagokienez, kristau eskolakoak kritikoxeagoak dira eskola publikoak eta ikastolakoak baino hiru gai horien inguruan.

#### **Balioespen kualitatiboa:**

**19. itemean** dauden oharrak aldekoak dira; beraz, goiko irizpideari jarraituz, ez dugu horien aipamenik egingo.

**20. itema** jasotzen du "Planteamendu orokorra"ren barnean puntuaziorik baxuena (3.81). Aurkako iritzia, lau multzo hauetan sailka daitezke:

- Parte-hartzea ez da nahikoa izan. Adibidez, "Hezkuntza komunitatearen zati garrantzitsu bat prozesutik kanpo geratu da"; "Sindikatuak parte hartu ez izanak areagotu egin du hutsunea"; "Egituran eta prozeduran ez da ikasleen eta gurasoen parte-hartzea ziurtatzen"; "Eskola publiko osoaren inplikazioa behar da"; "Eskola publikoaren parte-hartze zabalagoa behar da".
- Denboraren eskasia kritikatu da gehien. Adibidez, "Denbora gehiago eragile guztiei"; "Epeak oso eskasak izan dira"; "Prozedura egokia, baina denbora gutxi"; "Denbora aldetik, negargarria"; "Pausoak egokiak eta epeak desegokiak"; "Presaka egin dugu eztabaida".
- Dokumentua zaila da ulertzeko, maila kontzeptuala eta hizkuntza maila jasoegiak dira. Adibidez, "Gurasoak ez gara adituak, abstraktuak da, teknizismoz beteak"; "Hizkuntza errazagoa edo gertukoagoa behar da"; "Txosten zaila eta astuna"; "Oso sakona iruditu zaigu, baina hausnarketa eta eztabaida egiteko baliagarria izan da"; "Ezin zaie gurasoei eman adituei eman zaien formatu berean"; "Gai sakonegia"; "Hizkuntza oso teknikoa"; "Ez da ikasleekin lantzeko egingarria izan"; "Ikasleen balioespena jasotzea zaila da"; "Biziki zaila guztia zinez barneratzea".
- Metodologiari buruzko iritzi kritikoak ere aipatzen dira. Adibidez, "Euskal Curriculum balioesteko eta hobetzeko metodologia ez da egokia"; "Gurasoen parte-hartzea garrantzitsua da, baina metodologia ez da egokia"; "Prozedura ez da nahikoa dokumentua balioesteko"; "Kontsentsuan oinarritutako metodologia kezagarria da"; "Kontsentsua lortu behar izateak benetako iritzia jasotzea eragozten du"; "Girote lana eskasa izan da"; "Galderak, prestatu diren bezala, ez dira batere egokiak eztabaida irekia eta gogoeta egiteko"; "Beste era batera landu behar litzateke, ezin da zenbaki batean bildu"; "Estamentu bakoitzari galdeketa ezberdina, laburragoa, zabalkunde handiagoa izateko".

**21. itemak** adostasun maila handia izan du (4.60). Argi dago garrantzizkoa irizten zaiola administrazioen rolari, baina badira iritzi horren aurrean nabardurak egiten dituztenak. Adibidez, "Administrazioez gaindiko curriculum osatu behar da; aplikatuko dela bermatu"; "Bai, baina obsesionatu gabe"; "Ados jartzen ez badira, gure lana da lantzea curriculum erreferentziazat hartuz nola bideratu eta inposatu zaiguna nola uztartu"; "Adostasuna lortzen ez bada ere, aurrera egin behar da"; "Unean dagoen administrazioen esku ez litzateke utzi behar; osotasun baten barruan joan behar du"; "Iurraldeen aniztasuna kontutan hartu behar da, adostasuna lortu behar bada. Bestela, administrazioen arteko gatazkarako beste arma bat izango da dokumentua"; "Errazagoa litzateke onespina emango balute, baino ezin da muga izan"; "komenigarria baino areago, beharrezkoa dela esan behar litzateke".

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

#### **Hobekuntza proposamenak:**

Beti daude hurrengo baterako gauzak hobeto egiteko moduak, baina aitortu behar da egin dugun saioa ez dela erraza izan, eta hobetu zitekeen arren ados gaudela erabilitako prozedurekin eta lortutako erantzunarekin:

- Egiten denean, normalena zera izaten da: curriculum baten ideia nagusien inguruan eta planteamendu orokorraren inguruko iritzia jasotzea, baina ez da ohikoa guk egin duguna egitea, hau da, garatutako curriculum zehaztu baten ebaluazioa egitea.
- Ez da ohikoa hezkuntza komunitate osoak parte hartzea: ikastetxeko titularrek eta gurasoak, zuzendaritza taldeak, maila guztietako irakasleak, ikasleak, eta eskolaz kanpoko adituak eta hezkuntza eta gizarte eragileak.
- Ez da ohikoa mugaz gaindiko eta hezkuntza administrazio bakoitzaren esparruak gaindituz Euskal Herri osoan horrelako ebaluazioa egitea.
- Ez da ohikoa curriculum horren aplikazioari begira eraginkorragoa delako erantzunak taldeka ematea eta adostasunak aurkitzen saiatzea erantzunak bakarka eman ordez.
- Ez da ohikoa lehia dauden hezkuntza sareak elkarrekin lanean aritzea eta 100.000 ikasle baino gehiago dituzten 218 ikastetxeren, adituen eta hezkuntza-gizarte eragileen erantzun kolektiboak



- jasotzea. Hala ere, aitortu behar administrazioen eskola publikoen partaidetza eskasa izan dela, eta ez gure borondatez eta ahaleginen faltaz.

Gai honi buruzko ebaluazioan parte hartu dutenek emandako erantzunen artean, honako iritzi honek bat egiten du gurearekin: “Munduan bakanak izango dira, ziurrenik, honelako saioak: herri baten hezkuntza eredia ez goitik behera lege bidez ezartzea, baizik eta behetik gora, herri ekimenez, zabaletara lan eginez, era horizontalean jorratzea, zehaztea, kontsultatzea, kontrastatzea, adostasunak bilatzea... Bakanak edo agian, hauxe izango da bakarra. Bestalde, esan beharra dago Euskal Curriculumaren egitasmoa aniztasunetik, pentsamolde desberdinetatik elkarlanean eraiki dela. Batetik sentsibilitate eta kolore ideologiko desberdinak hartu dira kontuan eta, bestetik, lurraldetasuna, irizpide moduan adituak hautatu eta lanak banatzeko orduan”.

#### 6.1.4.- Balioespen globala (22. itema)

22. itemean, planteamendu orokorraren ebaluazio globala eskatzen da, eta honako hauek sartzen dira hor: euskal curriculumaren oinarriak, hautatuko ikas arloen proposamena eta euskal curriculum balioesteko eta hobetzeko prozedura. Batez beste, 4,04 puntu lortu ditu (1etik 5era bitarteko eskalan). A eredukoak (batezbestekoa: 3,89) kritikoxeago agertzen dira besteak baino (B eredia: 4,01, eta D eredia: 4,11). Estamentu guztiek balioespen berdintsua egiten dute. Arabarrak (3,88) eta bizkaitarrak (3,96) gipuzkoarrak (4,12) eta nafarrak (4,14) baino kritikoxeagoak dira. Kristau eskolakoek (4,00) ere balioespen okerxeagoa ematen dute (4,06 eskola publikoek eta 4,10 ikasleek).


Oro har, esan dezakegu balioespena ona dela eta aldeak txikiak direla.

### 6.2.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORREN EBALUAZIOAREN LABURPEN ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

#### Planteamendua:

Euskal Curriculumean, garrantzi handia eman diogu Hezkuntza Konpetentzia Orokorrei, horien bidez lor daitezkeelako Hezkuntzaren xedeak eta horien bidez jakin daitezkeelako bizitzarako prest gauden ala ez.

Ez dago Hezkuntza konpetentzia orokorrak planteatzeko era bat eta bakarra. Guk, J.Delors-en zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean oinarrituz, 5 konpetentzia orokor bereizi ditugu, osotasun gisa hartu behar diren konpetentziaak, batak bestea baldintzatzen baitu. Adibidez, ezin da “egiten eta ekiten ikasi” pentsatzen, komunikatzen, elkarrekin bizitzen eta norbera izaten jakin gabe.



“Planteamendu orokorra”ren atalean, 4., 5., 6. eta 7. itemetan, gai honen ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak egiten hasi gara. Item horietako aztergaiak orokorrak ziren; hemen, berriz zehaztu egingo ditugu, Hezkuntza Konpetentzia Orokor bakoitzari buruzko balioespenaren laburpena eta hobekuntza proposamenak azalduko baitugu.

Gai honi buruzko proposamena 53.-80. orrietan aurkituko dugu, eta, sakonago aztertu nahi duenarentzat, 341.-414. orrietan jasotzen da proposamen osoa.

Euskal Curriculumaren Hezkuntza Konpetentzia orokorren balioespena analizatzeko galdetegiak bost atal ditu, balioespen globalaz gain.

- Ikasten eta pentsatzen ikastea (1.-6. itemak)
- Komunikatzen ikastea (7.-12. itemak)
- Elkarrekin bizitzen ikastea (13.-17. itemak)
- Norbera izaten ikastea (18.-23. itemak)
- Egiten eta ekiten ikastea (24.-28. itemak)
- Balioespen globala (29. itema)

#### Balioespena kuantitatibo orokorra:

Egindako ebaluazioan oinarrituz, honako hauek izan dira, laburbilduz, Hezkuntza Konpetentzia Orokorrei emandako puntuazioak:

| <b>Ikasten eta pentsatzen ikasi (1.-6. itemak)</b>                     |      |
|--|------|
| 1.- Informazioa interpretatzea: ulermenean oinarritutako pentsamendua. | 4.70 |
| 2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea                        | 4.28 |
| 3.- Informazioa ebaluatzea: pentsamendu kritikoa                       | 4.62 |
| 4.- Erabakiak hartzea  | 4.61 |
| 5.- Arazoak konpontzea   | 4.63 |
| 6.- Baliabide kognitiboak erabiltzea                                   | 4.47 |
| <b>Komunikatzen ikasi (7.-12. itemak)</b>                              |      |
| 7.- Ahozko komunikazioa  | 4.77 |
| 8.- Hizkuntza idatzia  | 4.69 |
| 9.- Beste hizkuntza batzuk: artistikoa, matematikoa...                 | 4.32 |
| 10.- Gizarte komunikabideen baliabideak                                | 4.33 |
| 11.- Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)                      | 4.44 |
| 12.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa                                  | 4.48 |
| <b>Elkarrekin bizitzen ikasi (13.-17. itemak)</b>                      |      |
| 13.- Pertsonarteko harremanak  | 4.71 |
| 14.- Gatazkak konpondu   | 4.79 |
| 15.- Parte-hartze demokratikoa   | 4.55 |
| 16.- Elkarlana eta talde lana  | 4.67 |
| 17.- Aniztasuna  | 4.76 |
| <b>Norbera izaten ikasi (18.-23. itemak)</b>                           |      |
| 18.- Gorpuztasuna  | 4.70 |
| 19.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala                          | 4.65 |
| 20.- Buruestimua   | 4.76 |
| 21.- Autonomia   | 4.68 |
| 22.- Sentsibilitate estetikoa  | 4.25 |
| 23.- Integrazio pertsonala   | 4.53 |
| <b>Egiten eta ekiten ikasi (24.-28. itemak)</b>                        |      |
| 24.- Análisis: informazioa hartzea eta gordetzea                       | 4.58 |

|   |             |
|---|-------------|
| 25.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea                    | 4.40        |
| 26.- Berrikuntza: ideiak gauzatzea                                      | 4.38        |
| 27.- Ebaluazioa   | 4.39        |
| 28.- Ekite prozesua aplikatzea  | 4.39        |
| <b>29.- Hezkuntza Konpetentzia Orokorrei buruzko balioespen globala</b> | <b>4.46</b> |

Multzo hau osatzen duten 29 itemen balioespen orokorrak oso onak dira. Izan ere, denek jaso dute 4,25tik gorako puntuazioa. Honako hauek jaso dute puntu kopururik altuena, 4,7tik gorakoa, hain zuzen: 1. itema (informazioa interpretatzea: ulermenean oinarritutako pentsamendua), 7. itema (ahozko hizkuntza), 13. itema (modu positiboan elkarreragiteko konpetentzia pertsonala), 14. itema (gatazkak konpontzea), 17. itema (aniztasuna), 18. itema (gorpuztasuna) eta 20. itema (autoestimua). 2. itemak (informazioa sortzea: pentsamen sortzailea) eta 22. itemak (sentiberatasun estetikoak) lortzen dute balioespenik okerrera, 4,30tik beherako puntuazioa baitute.

Batezbesteko balioespen globala ona da: 4,46. D ereduok balioespen hobea egiten dute (4,59). Ikasleek, berriz, balioespen okerrera ematen dute (4,17); gero, arabarrek (4,27) eta kristauk eskolakoek (4,35). Horiek puntuazio txikiak izanda, argi dago 1etik 5era bitarteko eskala batean puntuazio handiak direla eta, halaber, aldeak oso txikiak direla.

Atal bakoitza banan-banan analizatuta, honako hau esan dezakegu.

### 6.2.1.- Ikasten eta pentsatzen ikasi (1.-6. itemak)

#### Planteamendua:

“Pentsatzen eta ikasten ikasi” konpetentzia orokorraren barnean sei azpikonpetentzia bereizten dira. Konpetentzia bakoitzak baditu bere nortasuna eta lantzeko prozedura berezia, baina, pentsatzeko eta ikasteko orduan, batera jokatzeko dute. Azpikonpetentzia horietan, lehenengo hirurek (informazioa interpretatzea, informazioa sortzea eta informazioa ebaluatzea) multzo bat osatzen dute; beste biak konplexuagoak dira (erabakiak hartzea eta arazoak konpontzea), eta aurreko hiru azpikonpetentzia kognitiboek gainera, konpetentzia afektiboek, etikoek... badute zerikusia; azkeneko azpikonpetentziaa (baliabide kognitiboak erabiltzea) ikasten ikasteko hain garrantzizkoak diren metakognizioa, autoerregulazioa, ikasteko estrategiak eta ikasitakoaren transferentzia biltzen ditu.

Pentsatzen eta ikasten ikasteko konpetentziaei buruzko informazioa 54.-59. orrialdeetan jasotzen da eta, era zehatzagoan, 350.-362. orrialdeetan. Egindako proposamenaren onespren mailaren informazioa eta hobekuntza proposamenak honako sei item hauen bidez jaso da:

#### **1.itema.- Informazioa interpretatzea: ulermenean oinarritutako pentsamendua**

Jasotzen den informazioa modu esanguratsuan interpretatzea, prozesu kognitibo egokiak erabiliz, ezagutzaren, munduaren eta gainerakoaren sakoneko ezagutza lortzeko.

#### **2. itema.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea**

Informazioa sortzea, ideia, irudi edo gauza asko denbora gutxian sortuz. Ideia, irudi eta gauza horiek kategoria askotakoak, orijinalak eta xehatuak izan behar dute, arazoak konpontzeko, edertasuna sortzeko eta norbera erreferentzia den konstruktua garatzera bultzatzeko.

#### **3. itema.- Informazioa ebaluatzea: pentsamendu kritikoa**

Informazioa modu kritikoa ebaluatzea, ideien oinarri diren arrazoiak bilatuz eta norberaren jarrerak eta konpetentziaa eta inferentzia trebetasunak oinarritzat hartuz, ziurtasunez arrazoi sendoetan oinarritutako informazioa bakarrik onartzeko eta bete nahi diren helburuak errazago lortzeko.

#### **4. itema.- Erabakiak hartzea**

Erabaki eraginkorrak hartzea, prozesuaren urrats egokiei jarraituz eta urratsak arautuz, aukera zehatzak egiteko egoeretan adimenez eta zentzuz jokatzeko.

#### **5. itema.- Arazoak konpontzea**

Arazoak eraginkortasunez konpontzea, ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendu sortzailearen eta pentsamendu kritikoa trebetasunak erabiliz eta goi mailako prozesu horrek behar dituen aldeak urratsez urrats jarraituz, garrantzi eta eragin handiko zein txiki zein zailtasunei aurre egiteko eta pentsamenduaren jardura guztiak integratzeko.

#### **6. itema.- Baliabide kognitiboak erabiltzea**

Baliabide kognitiboak erabiltzea (adibidez, metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokabide estrategikoa eta ikasitakoaren transferentzia), ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendu kritikoa eta pentsamendu sortzailearen trebetasunak eta erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko prozesuak erabiliz, pentsamenduari berari buruz hausnartzeko, jokabidea behar bezala gidatzeko eta ikaskuntza orokortzeko.

### Balioespen kuantitatiboa:

*Ikasten eta pentsatzen ikastea* arloarekin erlazionatutako itemek oso balioespen ona jaso dute. 1etik 5era bitarteko eskalan, 4,28 puntutatik gora daude denak. "Informazio sortzea: pentsamendu sortzailea"ri erreferentzia egiten dionak puntu kopururik txikiena lortu du: 4,28. Beste gai guztiek balioespen ona jaso dute, eta "Informazioa interpretatzea: ulermenean oinarritutako pentsamendua" izenekoak balioespenik hoberena du, 4,70 puntu.

Curriculumaren Konpetentzia Orokorren balioespenetan antzemandako desberdintasunak analizatuko ditugu parte-hartzaileak taldekatzeko erabili ditugun aldagaien arabera (hizkuntza eredia, estamentua, lurralde eta eskola sarea). Honako hauek dira konturik aipagarrienak:

Hizkuntza ereduaren arteko desberdintasunak: Kasu guztietan, D eredukoek puntuazio altuagoak ematen dituzte A eta B eredukoek baino. Hala ere, talde guztiek 4tik gora balioetsi dituzte item guztiak. Desberdintasunik handiena 2. itemean dago (D eredia: 4,44 eta A eredia: 4,03).

Estamentuen arteko desberdintasunak: Ez dago desberdintasun handirik taldeen artean. Hala ere, ikasleek besteek baino puntuazio baxuagoak ematen dituzte modu beti-batekoan. Beste talde guztiek puntuazio berdintsuak eta oso altuak ematen dituzte planteatutako 6 gaietan.

Lurraldeen arteko desberdintasunak: Arabarrek balioespen okerrera ematen diete konpetentzia horiei. Dena den, haiek ere 4,07tik gorako balioespena egiten dute gai guztietan. 2. itemari ("informazioa sortzea") ematen diote puntu kopururik txikiena (4,07) arabarrek, eta, halaber, item horrexek jasotzen ditu desberdintasun handienak (0,35 puntu).

Eskola sareen arteko desberdintasunak: Ez dago desberdintasun handirik eskola sareen artean. Kristau eskolak 2. itemari ematen diona da puntu kopururik txikiena, 4,16. Beste item guztiei 4,30tik gorako puntuazioa ematen diete talde guztiek.

### Balioespen kualitatiboa:

Egindako hobekuntza proposamen artean, honako hauek iruditzen zaizkigu esanguratsuenak:

**2. itema:** Pentsamendu sortzaileaz ari da eta azpikonpetentzia horretan denbora gutxian ideia, irudi asko sortzeari ematen zaio garrantzia. Horren aurrean, zenbait erreakzio sortu dira. Adibidez, "bakoitzaren erritmoak errespetatu behar dira"; "Geldoek ere bizitzeko eskubidea dute".

**4. itema:** Erabakiak ondo hartzen jakitea garrantzi handiko konpetentzia da, baina ez da beti asmatzen. Horren aurrean, honako hobekuntza proposamen hauek egiten dira: "Erabakiak hartzerakoan hanka sartzeko eskubidea sartu behar litzateke testuan, baliagarria dela ikasteko"; "Hanka sartzeko ere egokia da ikaskuntzarako".

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

## 6.2.2.- Komunikatzen ikasi (7.-12. itemak).

### Planteamendua:

Komunikazioaren fenomeno zentzu zabalean hartzen da. Honako konpetentzia hauek garatzea proposatzen da: batetik, hizkuntzaren bidezko komunikazio mota guztiak modu integratuan erabiltzeko konpetentziaak (ahozko eta idatzizko hizkuntza; gorputzaren, keinuen, musikaren, dantzaren eta plastikaren bidezko hizkuntzak; hizkuntza matematikoa eta zientifikoa); bestetik, komunikaziorako bitartekoak eta euskarriak (gizarte komunikabideak eta informazio eta komunikazio teknologiak) arduraz erabiltzeko konpetentziaak, eta, azkenik, komunikazioaren planteamendua osatzeko eta osotasunez begiratzeko kontzientzia sozio-komunikatiboarekin zerikusia duten konpetentziaak.

"Komunikatzen ikasi" konpetentziaei buruzko informazioa 60.-65. orrialdeetan jasotzen da eta, era zehatzagoan, 363.-374. orrialdeetan. Egindako proposamenaren onespene mailaren informazioa eta hobekuntza proposamenak honako sei item hauen bidez jaso da:

#### **7. itema.- Ahozko komunikazioa**

Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzeko eta errealitatearen adierazpena eraikitzean, ahozko hizkuntza jariakortasunez, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta ahozko komunikazioaz gozatzea, nortasuna egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko aukera izateko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeko.

#### **8. itema.- Hizkuntza idatzia**

Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzeko eta errealitatearen berezko adierazpena eraikitzean, hizkuntza idatzia autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta komunikazio idatziaz gozatzea, nortasuna egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeko.

#### **9. itema.- Beste hizkuntza batzuk**

Hitzezo hizkuntzaren eta hizkuntza artistikoen eta matematikoen oinarriko kodeak modu integratuan eta harmoniatuan erabiltzea, norbanakoaren, gizartearen eta naturaren errealitatea hobeto interpretatzeko eta komunikatzeko, bai eta bizitzaz gozatzeko ere.

### **10. itema.- Gizarte komunikabideen baliabideak**

Gizarte komunikabideak eraginkortasunez eta autonomiaz erabiltzea, forma eta testuinguru askotako mezu mediatikoak eskuratuz eta haiak interpretatuz, ebaluatuz eta sortuz, eta hedabideen funtzionamendua eta gizarte funtzioa ezagutuz. Horren helburua zera da: kontsumo arduratsua eginez norberak gozatzea, informazio iturri izatea eta herritarrek parte hartzea.

### **11. itema.- Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT)**

Ohiko tresna eta baliabide teknologikoak trebetasunez, erantzukizunez eta espiritu kritikoz erabiltzea, informazio mota oro ekoizteko, biltegitzeko, berreskuratzeke, lantzeko eta hedatzeko edo komunikatzeko kompetentziaa garatu ahal izateko, bai eta norbera eta gizarte hobeto garatzeko egokienak diren informazioak bilatzeko, balioesteko, hautatzeko eta barneratzeko kompetentziaak emateko, informazioa ezagutza bihurtze aldera.

### **12. itema.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa**

Euskal gizartearen errealitate sozio-komunikatiboa espiritu kritikoz interpretatzea eta haren inguruneko komunikazio prozesuetan erantzukizunez eta zentzu etikoz parte hartzea, hedabideak eta teknologia berriak modu gogoetatsuan eta autonomoan erabiliz eta euskararen normalizazioaren alde jarrera aktiboa izanez (ingurune gainerako hizkuntzak balioesteko eta errespetatzeko jarrera izanik) ondo informatutako herritarrek izatera iristeko; hau da, gizarte demokratiko eta parte hartzailea eraikitzeke ezinbestekoa den autonomia pertsonal eta gizarte erantzukizuna izateko.

### **Balioespen kuantitatiboa:**

Komunikatzen ikasteari erreferentzia egiten dioten itemek oso balioespen onak jaso dituzte. 7. itemak (ahozko hizkuntza) eta 8. itemak (idatzizko hizkuntza) lortu dute, batez beste, puntu kopururik handiena, 4,77 eta 4,69 hurrenez hurren. 9. itemak (Beste hizkuntza batzuk) eta 10. itemak (Gizarte komunikabideak), berriz, puntuaziorik txikiena jaso dute batez beste: 4,32 eta 4,33, hurrenez hurren; dena den, horien inguruko adostasun maila ere oso altua da.

Ikas arloen balioespenetan antzemandako desberdintasunak analizatuko ditugu parte-hartzaileek taldekatzeko erabili ditugun aldagaien arabera (hizkuntza eredia, estamentua, lurralde eta eskola sarea). Honako hauek dira konturik aipagarrienak:

Hizkuntza ereduaren arteko desberdintasunak: D ereduko parte-hartzaileek balioespen hobea eman dute A eta B ereduak baino. Desberdintasun handienak 9. eta 10. itemetan agertu dira; hala ere, desberdintasun txikiak dira (0,20 puntu).

Estamentuen arteko desberdintasunak: Ikasleen taldeak ematen ditu balioespenik okerrera. 9. eta 10. itemak okerreago balioesten dituzte (*Beste hizkuntza batzuk* eta *gizarte komunikabideak*). Talde guztiek jotzen dituzte garrantzitsutzat *Komunikatzen ikastea* arloa osatzen duten 6 itemak.

Lurraldeen arteko desberdintasunak: Arabarrek gutxiago balioesten dituzte kompetentzia horiek. Hala ere, haiek ere 4,18tik gorako puntuazioak (10. itemari emandako puntuazioa) ematen dituzte gai guztietan. Talde guztiek garrantzitsutzat jotzen dituzte ahozko eta idatzizko hizkuntzak eta 4,65tik gorako puntuazioak ematen dituzte item horietako bakoitzaren kategoria guztietan.

Eskola sareen arteko desberdintasunak: Kristau eskolakoek jarrera kritikoxeagoa dute ikastolakoek eta eskola publikoak baino. Dena den, desberdintasunak oso-oso txikiak dira.

### **Balioespen kualitatiboa:**

Egindako hobekuntza proposamen artean, honako hauek iruditzen zaizkigu esanguratsuenak:

**7. itema:** Ahozko hizkuntzari dagokionez, bi hobekuntza proposamen hautatu ditugu: "Ahozko komunikazioaren zuzentasun gramatikalari ez zaio aipamenik egiten"; "Herritar aktiboa izateko beharrezko trebetasunak menperatzeko beharra gehiago azpimarratu behar litzateke: testuak aztertu, ondorioak atera; iritzia finkatu, eztabaidatu, adostu; jendearean hitz egin, bilerak dinamizatu, ideiak transmititu; mobilizatu, eragin, eraiki, sustatu. Ildo horretan, ahozko komunikazioari garrantzi handiagoa eman behar litzaiokoe, bereziki, jendearean hitz egiteko kompetentziaari...".

**8. itema:** Hizkuntza idatziari dagokionez, bi hobekuntza proposamen hautatzen ditugu: "Aho hizkuntzan eskatzen den jariatutasuna idatzizkoan ere eskatu behar litzateke"; "Hizkuntza idatzian zuzentasun gramatikalari ez zaion aipamenik egiten".

**9. itema:** Beste hizkuntza batzuen aipamena egiten da, baina hutsuneak ikusten dira: "Euskal Curriculumak beste hizkuntza batzuk ere jaso behar ditu, itsuena, gorrena... Arlo horretan, hutsuneak ditu".

**11. itema:** Informazioari eta Komunikazio Teknologiai (IKT) dagokionez, bi ohar hauek hautatu ditugu. Batetik, gehiegikeria litzateke "informazio mota oro ekoizteko" kompetentziaa: "Hitz gogorregiak. 'Informazio mota oro ekoizteko' esaldia soberan dago", "...eta espiritu kritikoz erabiltzea, informazio mota oro *interpretatzeko* (ekoizteko esan ordez)". Bestetik, gizarte komun

ikabideen baliabideen artean edo IKT barnean, kontuan hartzekoa litzateke mugikorren fenomenoak: "Komunikaziorako beste bide berri bat zabaldu da (telefono mezuak, Messenger), eta ez zaio erreferentziarik egiten".

**12. itema:** Kontzientzia sozio-komunitarioa garatzeko honako hobekuntza proposamen hauek aurkezten dira: "Euskararen egoera diglosikoa aipatu behar da"; "Ez du Euskal herrian dagoen komunikazio eredu soziala aipatzen: harreman sare sozialak, tokiko komunikabideak, gaztetxeak, auzo elkarteak... kuadrilen fenomenoak, tabernak..."; "Kontzientzia sozio-komunikatiboaren atala gehiago zabaldu eta sakondu behar litzateke, besteak beste, honako elementu hauen bidez: euskararekiko atxikimendua bultzatzea; euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza eta norbanakoarena dela sentitzea; dagozkigun hizkuntza eskubideen jabe izatea, euskara berreskuratzea geure eskuetan ere badagoela ulertzea eta barneratzea; herri mugimenduaren balioak ohartzea".

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

### 6.2.3.- Elkarrekin bizitzen ikasi (13.-17. itemak)

#### Planteamendua:

Elkarrekin ondo bizitzen jakitea zer den eta esparru horretan derrigorrezko eskolaldian garatu beharreko konpetentziaak zein diren proposatzen da. "Elkarrekin bizitzen ikasi" konpetentzia orokorra, bost azpikonpetentziaez osatzen da: pertsonarteko harremanak, gatazkak konpondu, parte-hartze demokratikoa, elkarlana eta talde lana, eta aniztasuna. Guztiak dira beharrezkoak elkarrekin ondo bizitzeko, baina guztien muina pertsonarteko harreman egokiak mantentzeko konpetentziaetik eratorritzen da, zeren beste pertsonen arazoak eta sentimenduak ulertzeko gauza baldin bagara bakarrik garatuko baititugu gainerako konpetentziaak.

"Elkarrekin bizitzen ikasi" konpetentziaei buruzko informazioa 66.-69. orrialdeetan jasotzen da eta, era zehatzagoan, 378.-387. orrialdeetan. Egindako proposamenaren onespren mailaren informazioa eta hobekuntza proposamenak honako bost item hauen bidez jaso da:

#### **13. itema.- Pertsonarteko harremanak**

Elkarreragin positiboak izatea, norberaren xedeak kontuan harturik, baina besteen beharrak ahaztu gabe.

#### **14. itema.-Gatazkak konpondu**

Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea, aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean beste aldeak frustrazioa esperimendatzen duen egoeretan; irtenbideak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez lortuko dira.

#### **15. itema.- Parte-hartze demokratikoa**

Parte-hartze aktiboa izatea eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan. Horretarako, protagonismoa banatu egingo da, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko.

#### **16. itema.- Elkarlana eta talde lana**

Beste batzuekin talde lana egitea, eta elkarrekin lan eginez helburu komunak lortzea. Horren helburua zera da: behar diren trebetasunak garatzea da, mundu konplexuan modu aktiboan integratzeko.

#### **17. itema.- Aniztasuna**

Norberarengandik desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak onartzea. Horretarako, ezaugarri psikologiko eta fisiko desberdinak edota adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina dituzten pertsonekin elkarlanean arituko dira zenbait proiektutan, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta oinarritzko giza eskubideak bermatzeko.

#### Balioespen kuantitatiboa:

Multzo honetan agertzen diren bost gaiek adostasun maila handia lortu dute, eta denek 4,55tik gorako puntuazioa dute batez beste. 15. itema (parte hartze demokratikoa) izan da puntu kopururik txikiena lortu duena (5etik, 4.55 puntu). Beste lau itemak hortik gorako puntuak lortu dituzte: 13.itema (4.71), 14.itema (4.79), 16.itema (4.67) eta 17.itema (4.76).

Hizkuntza ereduaren arteko desberdintasunak: Kasu guztietan, D ereduak puntu gehiago ematen dituzte A eta B ereduak baino. Hala ere, talde guztiek, batez beste, 4,39tik gora balioetsi dituzte item guztiak. B ereduak eman dute puntuaziorik baxuena (4,39), 15. itemean. Desberdintasunak ez dira batera handiak.

Estamentuen arteko desberdintasunak: Ikasleek ematen dituzte, batez beste, puntuaziorik baxuenak atal horretako item guztietan. Dena den, item guztiek puntu-kopuru handiak lortzen dituzte. 15. itema balioesten dute okerreren (batezbestekoa= 4,39) ikasleek. Ez dago desberdintasun handirik taldeen balioespenen artean.

Lurraldeen arteko desberdintasunak: Aldeak oso-oso txikiak dira. Hala ere, arabarrek ematen diete balioespenik okerreza konpetentzia horiei. Edozein moduz, haiek ere ematen dituzte 4,36tik gorako puntuazioak, hori baita 15. itemak lortzen duen puntu kopurua (parte-hartze demokratikoa).

Sare eskolen arteko desberdintasunak: Ez dago alde handirik eskola sareen artean. Kristau eskolak ematen du puntu kopururik txikiena (4,46), 15 itemean. Gainerako puntuazioak hortik gora daude.

### Balioespen kualitatiboa:

Egindako hobekuntza proposamen artean, honako hauek iruditzen zaizkigu esanguratsuenak:

**Orokorra:** “Elkar maitatzeko beharraren falta sumatu dugu”; “garrantzi handiagoa eman beharko litzateke honako balio hauei: kolektiboaren garrantzia..., elkartasuna..., eraldaketa...”

**14. itema:** Gatazkak konpontzen jakitea beharrezkoa da elkarrekin bizitzeko, baina, batzuen iritzi, ez da jasotzen gatazkaren beste aldea: “Gatazkaren alderdi positiboa aipatu behar da”; “Gatazkek ez dute zertan beti negatiboak izan”.

**15. itema:** Parte-hartze demokratikoari buruz, honako ohar hauek egiten dira: “Parte-hartze 'demokratikoa' ren or 'aktiboa' jarri”; “Parte-hartze kritikoa, disidentzia ez baita onartzen”; “Ados, baina nabarmendu nahi dugu eskola komunitate osoak (ikasleak barne) parte hartu behar duela eskolaren inguruan hartzen diren erabakietan”.

**16. itema:** Elkarlana eta talde lanaren inguruan, honako ohar hau egiten da: “Taldea lana aipatzerakoan, Euskal Herriaren berezko kontzeptua berreskuratu eta aldarrikatzea proposatzen dugu: auzolana”.

**17. itema:** Aniztasunaren inguruan, ohar hauek egiten dira: “Konpetentzia horren oinarrian baterako hezkuntzak egon beharko luke eta uste dugu ez zaiola behar beste garrantzi ematen”; “...adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina dutenak..., zerranda horretan erlijioen edo sinismenen aipamena egin”; “Gehiago landu behar da solidaritatea, elkartasuna”; “Aniztasuna onartzea baino hobeto, *errespetatzea*”; “Etorkinentzako irekiera espezifikoa, zonalde bakoitzari egokitua”.

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

### 6.2.4.- Norbera izaten ikasi (18.-23. itemak)

#### Planteamendua:

Norbera izaten jakiteko, pentsatzen, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, egiten eta ekiten jakin behar da; hau da, hezkuntza konpetentzia orokorrak osotasun gisa hartu behar dira. Baina, “Nia”ren kontzientziaren nukleoa garatzeko, badaude atal horretan biltzen diren osagai espezifikoak: batetik, “nia”ren gorpuztasunean, gorpuzaren kontzientzian eta garapenean oinarritzen dela jabetzea; bestetik, “nia”ren alde afektibo-emozionala, hau da, norberaren kontrola eta oreka emozionala, buruestimua, burujabetza eta autonomia; eta, osatzeko, “nia”ren alde estetikoak, kosmikoa eta transzendentziari irekia. Norbera izaten dakienak badaki aipatu ditugun elementu horiek guztiak era harmonizatuan integratzen.

“Norbera izaten ikasi” konpetentziaei buruzko informazioa 70.-73. orrialdeetan jasotzen da eta, era zehatzagoan, 388.-399. orrialdeetan. Egindako proposamenaren onespenean mailaren informazioa eta hobekuntza proposamenak honako bost item hauen bidez jaso da:

#### **18. itema.- Gorpuztasuna**

Nork bere gorpuzta onartzea, gorpuz aldaketak eta sexualitatea arduraz barneratuz, eta ohitura osasungarriak hartuz, nor bere buruarekin ongi sentitzeko.

#### **19. itema.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala**

Emozioak kontrolatzea eta portaerak mugatzea, lortu nahi diren helburuetara bideratuz, bizitarako ezarritako helburuak lortzeko eta gustura sentitzeko.

#### **20. itema.- Buruestimua**

Nork bere buruaren estimu positiboa eta erreala lortzea, norbanako gisa garatzeko dimentsio guztietan; horretarako, bere buruarekiko konfiantzan oinarrituko da, baita gainerakoek igortzen dioten estimu eta balioespen sentimenduan ere.

#### **21. itema.- Autonomia**

Proiektu pertsonal bat diseinatzea eta horrekin koherentea izatea, bere erabakien arduradun eginez, munduan bere lekua aurkitzeko.

#### **22. itema.- Sentsibilitate estetikoak**

Emozio estetikoak esperimendatzea, natura eta artea ezagutzeko eta miretsiz, edertasunaz gozatuz eta arte adierazpen berriak sortuz, estetikak artean eta naturan ematen dituen emozioez gozatzeko.

#### **23. itema.- Integrazio pertsonala**

Nork bere buruaren osotasuna esperimendatzea eta adieraztea honako dimentsio hauetan: indibiduala eta soziala, emozionala eta kognitiboa, immanentea eta transzendentea, pertsonaren osotasuna antolatzeke barne konpetentzia modu koordinatu eta harmonikoan sustatuz, giza ahalmena osotasunez garatzeko

### Balioespen kuantitatiboa:

Aipatzekoa da 22. itemaren batezbestekoa (sentikortasun estetikoak, batezbestekoa=4,25) besteen azpitik dagoela.

Ez dago desberdintasun handirik ez hizkuntza ereduen artean (D ereduok, modu uniformean eta beti-batekoan, besteek baino puntu kopuru gehiago ematen dituzte) ezta estamentuen artean ere, baina ikasleek puntuazio baxuxeagoak (hamarren bat edo bi) ematen dituzte.

Lurraldeen artean ere ez dago desberdintasunik.

Eskola sareen artean ere ez dago desberdintasun handirik. Alderik handiena 22. itemean (sentikortasun estetikoak) dago. Item horretan, Kristau eskolakoek puntu gutxiago (4,17) ematen ditu, ikastolakoek (4,37) eta eskola publikokoek baino (4,45).

### Balioespen kualitatiboa:

Egindako hobekuntza proposamen artean, honako hauek iruditzen zaizkigu esanguratsuenak:

**18. itema:** Gorpuztasunaren inguruan, honako oharrak egiten dira baterako hezkuntzari, sexuari eta drogei buruz: "baterako hezkuntza jaso behar luke"; "Sexu heziketa erantzunkizunera bideratu"; "Drogak baztertzeko, beste modu batean esan"; "Drogak baztertzeko" adierarekin desadostasuna agertu eta "drogekin elkarbizitzen edo harreman arduratsua" izateko hezteko proposatzen dugu".

**19. itema:** Norberaren kontrolaren eta oreka emozionalaren inguruan, batetik, uste dugu "emozioak kontrolatzea" baino egokiagoa dela: "Emozioak ulertzen jakitea, kudeatzea...", "Kontrola hitza ez zaigu egokia iruditzen; "Emozioak kontrolatzea baino garrantzi handiagoa du horiek adierazteak". Bestetik, kompetentzia horren eragina ez da mugatu behar norbanakoaren bizitzara: "Bizitzarako ezarritako helburuak lortzeko eta gustura sentitzeko, ez zaigu egokia iruditzen; elkarbizitzarako egokiagoa litzateke". Eta badago beste ohar bat kontuan hartzeko dena: "Oro har, egoera negatiboei, frustrazioei, gaixotasunari, bakardadeari, ezintasunari... aurre egiteari buruzko aipamena falta da"; "Azpikontpetentzia baten faltan sumatzen dugu: porrotari aurre egiteko edo asimilatzeko kompetentziaa"; "Frustrazioen tolerantzia landu".

**21. itema:** Gehiegizkotzat jotzen da azpikontpetentzia hori: "Proiektu pertsonala lor al daiteke adin horietan? 'egiten hastea' jarriko nuke"; "Ezinezkoa deritzogu DBHaren bukaeran ikasle batek bere proiektu pertsonala diseinatuta edukitzeari".

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

## 6.2.5.- Egiten eta ekiten ikasi (24.-28. itemak)

### Planteamendua:

Egiten den planteamenduan, "ekiten ikastea" eta "egiten ikastea" bereizten dira. Ekitea prozesua da eta prozesu dinamiko horrek uztartuta dauden lau fase ditu: analisia, sormena, berrikuntza eta ebaluazioa. Egitea zera da: berrikuntza fasea -hau da aurrean aipatutako fase horietako bat-, aurrera eramatea eta gauzatzea. Ekite prozesu hori hainbat esparrutan aplikatu daiteke: banakoaren esparruan, gizartearen eta naturaren esparruan eta prestakuntza eta lanbide esparruan. Proposamen honetan, ekiten eta egiten ikasteko eta ekite prozesua aplikatzeko beharrezkotzat jotzen diren kompetentziaak aurkezten dira. Hemen ere errepikatzen da aurreko kompetentziaetan gertatzen dena, hau da, egiten eta ekiten ikasteko pentsatzen jakin behar dela (analisia, sormena, ebaluazioa) eta berrikuntzak gauzatzeko eta ekite prozesua aplikatzeko komunikatzen, elkarrekin bizitzen eta norbera izaten jakin behar dela.

"Egiten eta ekiten ikasi" kompetentziaei buruzko informazioa 74.-80. orrialdeetan jasotzen da eta, era zehatzagoan, 400.-413. orrialdeetan. Egindako proposamenaren onespene mailaren informazioa eta hobekuntza proposamenak honako bost item hauen bidez jasotzen dira:

#### **24. itema.- Analisia: informazioa hartzea eta gordetzea**

Informazioa hartzea eta ulertzea, eta inguratzen duen errealitateari buruz hausnartzea, ideia eta konponbide berriak prestatzeko eta errealitate hobea planteatzeko, errealitatea arretaz eta jakin-minez behatuz, errealitatea zergatik den horrelakoa hainbat arlotatik ulertzen saiatuz, eta espiritu kritiko-erakitzailaren bidez zalantzan jarri errealitate hori hobetzeko ahalmena aztertuz.

#### **25. itema.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea**

Idea berriak eta konponbideak prestatzea eta errealitate hobea planteatzea, egungo errealitatearentzako alternatibak proposatuz (sorkuntza tekniken bidez), eta aurrez ezarritako ebaluazio irizpideen arabera ebaluatuz eta egokiak/bidezkoak aukeratuz, errealitate hori gauzatzeko/egiteko beharrezko ekintzak aurrera eramateko.

#### **26. itema.- Berrikuntza: ideiak gauzatzea**

Egungoaren alternatiba moduan planteatutako errealitatea gauzatzeko beharrezko ekintzak egitea, nahari konpromisoa batuz eta ekite plan bat ezarri, aurrera eramanez eta jarraipena eginez, hobekuntza gauzatu ahal izateko eta eragina ebaluatzeko.



**27. itema.- Ebaluazioa**

Egindako ekintzen eragin erreala ebaluatzea, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoz, bai pertsonalki, bai eragina jasan duten taldeekin eztabaidatuz, lortu nahi den helburuaren betetze maila aztertzeko (nahi gabe sortutako beste eraginak ere ebaluatu beharko dira), eta hori guztia ekite prozesuarekin jarraitzeko (prozesu jarraitua).

**28. itema.- Ekite prozesuaren aplikazioa**

Bizitzako esparruetan ekitea, ekite prozesua aplikatuz (autoerrealizatzeko), nor bere bizitzan parte hartuz eta besteei lagunduz eta positiboki eraginez eta gizateriaren eta planetaren garapen iraunkorrari lagunduz, giza espezieko kide izatearen sentimenduan oinarrituta.

**Balioespen kuantitatiboa:**

Konpetentzia hori neurtu nahi duten 5 itemek puntu kopuru berdintsua lortzen dute, batez beste (4,38 eta 4,59 bitartean). Berrikuntzak jaso du balioespenik okerreana: ideiak praktikan jartzea, eta analisirako konpetentziaak, berriz, hoberena: informazioa hartzea eta ulertzea.

Desberdintasunak hizkuntza ereduaren arabera analizatzen baditugu, ikusiko dugu D ereduak A ereduak baino 4 hamarren gehiago ematen dituztela eta B ereduak baino hiru hamarren gehiago.

Ikasleak dira talderik kritikoen, batez ere ebaluazioari dagokion 27. itemean (batezbestekoa=4,05).

Ez dago alde handirik lurraldeen artean, baina arabarrek ematen dute balioespenik okerreana. Halaber, kristau eskolako kideak besteak baino kritikagoak dira. Dena den, aldeak txikiak dira.

**Balioespen kualitatiboa:**

Egindako hobekuntza proposamenen artean, honako hauek iruditzen zaizkigu esanguratsuenak:

**Orokorra:** Badira ohar batzuk proposamenaren balioespen orokorra egiten dutenak: “Beste konpetentziaen nahasketatzat hartzen da; EFQM kutsua dauka, hotza”; “Motibazioa gutxitan aipatzen da, eta hezitzaileek ere motibazioa transmititu behar dute”; “Fase bat gehitu: ikasleek arazoei aurre egin behar zaiela ikusi behar dute”; “Eraldaketaren garrantzia eta errealtate hobeak amestearen ideia gehiago azpimarratzea eta garatzea proposatzen dugu guk”; “Proposamenean, luze hitz egiten da ekintzaren logikari buruz, baina nahiko gutxitan ekintzaren zentzuari buruz... oso ikuspegi eta erredakzio teknikoak da, kasik teknokrata... Etikaren elementua gehiago azpimarratu eta jorratu behar da”.

**25. itema:** Sormenaren faseari dagokionez, zera proposatzen da: “Sormena era askeagoan egitea proposatzen dugu, konpetentziaak diotenak bideratuegia dirudielako, \_Sorkuntza tekniken bidez’ kendu”.

**27. itema:** Ebaluazioaren faseari buruz, honako irizpide hau ematen da: “Ebaluatzeo prozesua mekanikoezia iruditzen zaigu; uste dugu autokritikan eta hobetzeko gogoan indar gehiago jarri behar dugula”.

*Oharra: laburpen honetan, proposamenaren aurkako irizpideak jasotzen dira, ez aldekoak.*

**6.2.6.- Hobekuntza proposamenak**

**6.2.6.1.- Balioespen eta hobekuntza proposamen orokorrak:**

Hezkuntza Konpetentzia Orokorren balioespenean gehien errepikatzen diren iruzkinak eta hobekuntza proposamenak lau multzotan sailka daitezke:

- Hezkuntza Konpetentzia Orokorren planteamenduan, adimen emozionala ez da jasotzen.
- Hezkuntza Konpetentzia Orokorren planteamendua utopikoa da.
- Hezkuntza konpetentzia orokorrak gauzatzea ez da soilik eskolaren eginkizuna, eta, indarrean jartzeko, prestakuntza eta baliabideak behar dira.

**- Hezkuntza Konpetentzia Orokorren planteamenduan, adimen emozionala ez da jasotzen.**

Balioespenen artean, esaten da adimen emozionala ez dela jasotzen eta bide horretatik proposamena hobetu behar dela: “Adimen emozionala ez da aipatzen”; “Non geratzen da emozio mundua?”; “Adimen emozionala konpetentzia guztietan sartu”; “Ez da sentitzen ikasteaz ezer esaten...ez da adimen emozionala aintzat hartzen”; “Ikuspegi emozionala gehitu”...

Adimen emozionalaren eta konpetentzia emozionalaren izaeraz eta osagaiak, ikuspegi bat baino gehiago dago, baina, Daniel Goleman-ek eta beste autore batzuek diotenez, lau multzotan sailka daitezke:

- a. Nork bere buruaren kontzientzia:** nor bere buruaren emozioez, sentimenduez eta berezitasunez eta horiek besteengan duten eraginaz jabetzeko gai izatea.

Adimen emozionalaren alde hori “Norbera izaten ikasi” konpetentziaaren barnean biltzen da:

**20. itema.- Buruestimua**

Nork bere buruaren estimu positiboa eta errealia lortzea, norbanako gisa garatzeko dimentsio guztietan; horretarako, bere buruarekiko konfiantzan oinarrituko da, baita gainerakoek igortzen dioten estimu eta balioespen sentimenduan ere. (Ikus zehatzago, azpikonpetentzia horren garapena proposamenean).

- b. Nork bere buruaren erregulazioa:** ezkorrak eta kaltegarriak diren emozioak kontrolatzeko eta berbideratzeko eta zerbait egin aurretik ekintza horren ondorioak aurrez ikusteko gai izatea.

Adimen emozionalaren alde hau "Norbera izaten ikasi" konpetentziaaren barnean biltzen da:

**19. itema.- Burukontrola eta oreka emozionala**

Emozioak kontrolatzea eta portaerak mugatzea, lortu nahi diren helburuetara bideratuz, bizitzarako ezarritako helburuak lortzeko eta gustura sentitzeko.

**21. itema.- Autonomia**

Proiektu pertsonal bat diseinatzea eta horrekin koherentea izatea, bere erabakien arduradun eginez, munduan bere lekua aurkitzeko. (Ikus zehatzago, azpikonpetentzia horien garapena proposamenean).

- c. Enpatia:** Besteiei arretaz entzuteko, besteen beharraz jabetzeko eta erantzuten laguntzeko gai izatea.

Adimen emozionalaren alde hori "Elkarrekin bizitzen ikasi" konpetentziaaren barnean biltzen da:

**13. itema.- Pertsonarteko harremanak**

Elkarreragin positiboak izatea, norberaren xedeak kontuan harturik, baina besteen beharrak ahaztu gabe.

(Ikus zehatzago, azpikonpetentzia horren garapena proposamenean. Hor ikus dezakezue era zehatzagoan "entzute aktiboa, enpatia, asertibotasuna, prosozialtasuna").

- d. Sozializazioa:** Besteekin harreman afektiboak eta eraginkorrak sortzeko, giro onean aritzeko, arazoak konpontzeko, elkarlanean aritzeko eta besteak errespetatzeko gai izatea.

Adimen emozionalaren alde hori "Elkarrekin bizitzen ikasi" konpetentziaaren barnean biltzen da:

**14. itema.-Gatazkak konpondu**

Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea, aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo hasererearen aurrean beste aldeak frustrazioa sentitzen duen egoeretan; irtenbideak elkarriketataren eta negoziazioaren bidez lortuko dira.

**15. itema.- Parte-hartze demokratikoa**

Parte-hartze aktiboa izatea eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan. Horretarako, protagonismoa banatu egingo da, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko.

**16. itema.- Elkarlana eta talde lana**

Beste batzuekin talde lana egitea, eta elkarrekin lan eginez, helburu komunak lortzea. Behar diren trebetasunak garatzea da horren helburua, mundu konplexuan modu aktiboan integratzeko.

**17. itema.- Aniztasuna**

Norberarengandik desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak onartzea. Horretarako, ezaugarri psikologiko eta fisiko desberdinak, adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina duten pertsonekin elkarlanean arituko dira zenbait proiektutan, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta oinarritzeko giza eskubideak bermatzeko.

(Ikus zehatzago, azpikonpetentzia horien garapena proposamenean).

Adimen emozionalaren gaia, bereziki eta esplizituki, "Norbera izaten ikasi" eta "Elkarrekin bizitzen ikasi" hezkuntza konpetentzia orokorretan biltzen da. Baina, honako konpetentzia eta azpikonpetentzien barruan ere, nahitaez eta ezinbestean lantzen dira konpetentzia emozionalak: "Ikasten eta pentsatzen ikasi" konpetentziaren barruan, "erabakiak hartzea" eta "arazoak konpontzea" azpikonpetentzietan, "Komunikatzen ikasi" konpetentziaren barruan, "ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia eta beste hizkuntza batzuk" azpikonpetentzietan, eta "Egiten eta ekiten ikasi" konpetentziaren barruan, "ekite prozesuaren aplikazioan".

**- Hezkuntza Konpetentzia Orokorren planteamendua utopikoa da.**

Maiztasun handiz egiten dira horrelako balioespenak: "Gehiegizkoak dira"; "16 urteko ikasleentzat oso zaila"; "Idealak eta irrealak dira", "Asmo handiegikoak eta zabalegiak"; "Praktikara eramateko zailtasunak ikusten ditugu"; "Gizarte honetan lortzea ezinezkoa da, baina utopiaren aldekoak gara"; "Egunerokotasunetik urrun dago"; "Zailak dira eta aldaketa eskatzen dute ikasleria kontutan harturik"; "Erabat ados gaude, baina, egungo egoeran, oso utopikoa da"; "Teorian ona, baina errealitatetik urruti xamar"; "Maximalista"; "Idealistatza jotzen da eta baliabideak ez dira aipatzen"...

Hezkuntza Konpetentzia Orokorren planteamenduari buruzko iritzi horiekin, funtsean, bat gatoz. Ezin da ukatu planteamendua asmo handikoa, idealista, utopikoa eta gaur egungo eskolaren praktikatik urruti xamar

dagoela. Hori aitortuz, hurrengo galdera da ea utopia eta ideal horretara hurbiltzeko ahaleginak egitea merezi duen ala ez. Egindako proposamenari emandako puntuazioak aztertuz, badirudi hezkuntza komunitateko estamentu guztiak eta lurralde eta hizkuntza eredu guztietako ikastetxe mota guztiak utopia horren alde apustu egiteko prest daudela.

Hezkuntza Konpetentzia Orokorretan jasotzen diren konpetentzia eta azpikonpetentzia guztiak lortzea ezinezkoa da hamasei urterekin, eta baita lauogeia urterekin ere. Nork esan dezake ondo pentsatzeko, ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, izateko eta ekiteko konpetentziaetan mugara iritsi dela? Ez dago mugarik. Hala ere, dokumentuan, ebaluazio irizpideak eta orientazioak eskaintzen dira, muga batzuk proposatuz. Muga horiek konpetentzia horien garapenaren adierazleak dira, baina ezin da eskatu hamasei urteko ikasle batek konpetentzia horiek guztiak bereganatzea. Proposamenak, mugak jartzeko baino, hezkuntzaren eginkizunak eta funtzioak osotasunez ikusten laguntzeko balio dezake. Erreferentzia edo ispi lu bat da heziketa ardura dituztenak beren eginkizunaren zentzuaz osotasunez jabetzeko. Erreferentzia testuinguru hori oso baliagarria izan daiteke jakiteko eguneroko irakaskuntza jardueran zein eratako konpetentzia orokorrak lantzen ditugun eta zein ez, eta ebaluazio horren arabera gure praktika hobetzeko. Era berean, tresna baliagarria da ikas materialak sortzeko.

Hezkuntza Konpetentzia Orokorren inguruan ideia faltsurik ez egiteko, gogoratu behar da dokumentuan behin baino gehiagotan esaten dena eta ikastetxe batek iritzi moduan hain egoki esaten duena: "hezkuntza konpetentzia orokorrak ezin dira era abstraktuan eta isolatuan landu, eginkizun baten barruan baizik". Hezkuntza konpetentzia orokorrak ikas arloen bidez eta eguneroko jardueran bidez eskuratzen dira. Eta, hain zuzen ere, hurrengo atalean aipatuko ditugun eduki metadiziplinarrak dira horiek eskuratzeko bitarteko garrantzitsuak.

### **- Hezkuntza konpetentzia orokorrak gauzatzea ez da eskolaren eginkizuna soilik, eta indarrean jartzeko prestakuntza eta baliabideak behar dira.**

Maiz egiten dira horrelako balioespenak. Adibidez, konpetentzia hori lantzeko ardura nori dagokion gaiari buruz: "Familiaren eta gizartearen eginkizuna ere garrantzitsua da. Garapen integrala ez da eskolaren lana bakarrik"; "Lan bateratua eskola eta familia"; "Zein dira benetan gure ardurakoak? Komeni da mailaren eta garrantziaren arabera antolatzea"; "Ez dira eskolan soilik geratu behar"; "Familiaren eginkizuna ere bada"... Indarrean jartzeko prestakuntza eta baliabideei buruz: "Prestakuntza sakona behar dugu"; "Irakasleen prestakuntza beharrezkoa da"; "Irakasleen eta familien prestakuntza"; "Nork lagunduko digu gure eskemak hausten? Berriak eraikitzen?"; "Bitarteko egokiak behar dira"; "Ez dakit nola pentsatuta dauden: irakasle guztien prestakuntza eta zein material erabiliko den"; "Testugintza ere behar da"; "Beharrezkoak dira prestakuntza eta materialak"...

"Planteamendu orokorraren" ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak aztertu ditugunean ere azaldu da gai hori, eta ez dugu han esandakoa errepikatuko. Baina, Hezkuntza Konpetentzia Orokorren planteamenduekin koherenteak bagara, zalantzarik ez dago horrek irakasleen, ikasleen eta gurasoen arteko elkarlan handia eskatuko duela, eta bakoitzaren eginkizun espezifikoak zein diren zehaztu eta elkarrekin landu behar dituzten konpetentziaak koordinatu eta ebaluatu behar direla. Argi dago, orobat, irakasleen eta gurasoen prestakuntza, ikasmaterialak eta beste zenbait baliabide beharko direla. Baldintza horiek gabe, ezinezkoa izango da proposamen hau aurrera eramatea, baina, orain, proposamena onargarria den ala ez balioesten eta hobekuntza proposamenak egiten ari gara.

### **6.2.6.2.- Hobekuntza proposamen zehatzak:**

Hezkuntza Konpetentzia Orokor bakoitzaren balioespen kualitatiboa egiterakoan, hobekuntza proposamenak azaldu ditugu. Han sakabanatuta agertzen dena bateratuko dugu hemen.

#### **- Pentsatzen eta ikasten ikasi:**

**2. itema:** Pentsamendu sortzaileaz ari da, eta, azpikonpetentzia horretan, denbora gutxian ideia, irudi asko sortzeari ematen zaio garrantzia. Horren aurrean, zenbait erreakzioa daude. Adibidez, "bakoitzaren erriitmoak errespetatu behar dira"; "Geldoeke ere bizitzeko eskubidea dute".

Hobekuntza proposamena: "Denbora gutxian sortuz"en ordean, "gauzak sortuz" jarri.

#### **2. itema.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea**

Informazioa sortzea, ideia, irudi edo **gauzak sortuz**. Ideia, irudi eta gauza horiek kategoria askotakoak, originalak eta xehatuak izan behar dute, arazoak konpontzeko, edertasuna sortzeko eta norbera erreferentzia den konstruktua garatzera bultzatzeko

**4. itema:** Erabakiak ondo hartzen jakitea garrantzi handiko konpetentzia da, baina ez da beti asmatzen. Horren aurrean, honako hobekuntza proposamen hauek egiten dira: "Erabakiak hartzerakoan hanka sartzeko eskubidea sartu behar litzateke testuan, baliagarria delako ikasteko"; "Hanka sartzeko ere egokia da ikaskuntzarako".

Hobekuntza proposamena: Konpetentziaaren azalpenaren bukaeran, honako testu hau erantsi: "Hala ere, ez da ahaztu behar huts eginaz ikasten dela gehienetan erabaki zuzenak hartzen"

**- Komunikatzen ikasi:**

**7. itema:** Ahozko hizkuntzari dagokionez, bi hobekuntza proposamen hautatu ditugu: “Ahozko komunikazioaren zuzentasun gramatikalari ez zaio aipamenik egiten”; “Herritar aktiboa izateko beharrezko trebetasunak menperatzeko beharra gehiago azpimarratu behar litzateke: testuak aztertu, ondorioak atera; iritzia finkatu, eztabaidatu, adostu; jendaurrean hitz egin, bilerak dinamizatu, ideiak transmititu; mobilizatu, eragin, eraiki, sustatu. Ildo horretan, ahozko komunikazioari garrantzi handiagoa eman behar litzaioke, bereziki, jendaurrean hitz egiteko konpetentziaari...”.

**8. itema:** Hizkuntza idatziari dagokionez, bi hobekuntza proposamen hautatu ditugu: “Aho hizkuntzan eskatzen den jarioitasuna idatzizkoan ere eskatu behar litzateke”; “Hizkuntza idatzian, zuzentasun gramatikalari ez zaio aipamenik egiten”.

**9. itema:** Beste hizkuntza batzuen aipamena egiten da, baina zenbait hutsune ikusten dira: “Euskal Curriculumak beste hizkuntza batzuk ere jaso behar ditu, itsuena, gorrena...Arlo honetan, hutsuneak ditu”.

**11. itema:** Informazioari eta Komunikazio Teknologiei (IKT) dagokionez, honako bi ohar hauek hautatu ditugu. Batetik, gehiegikeria litzateke “informazio mota oro ekoizteko” konpetentziaa: “Hitz gogorregiak. \_Informazio mota oro ekoizteko\_ esaldia soberan dago”; “...eta espiritu kritikoz erabiltzea, informazio mota oro *interpretatzeko* (ekoizteko esan ordez)”. Bestetik, gizarte komunikabideen baliabideen artean edo IKT barnean, kontuan hartzekoa litzateke mugikorren fenomenoak: “Komunikaziorako beste bide berri bat zabaldu da (telefono mezuak, Messenger), eta ez zaio erreferentziarik egiten”.

**12. itema:** Kontzientzia sozio-komunitarioa garatzeko, honako hobekuntza proposamen hauek aurkezten dira: “Euskararen egoera diglosikoa aipatu behar da”; “Ez du Euskal herrian dagoen komunikazio eredu soziala aipatzen: harreman sare sozialak, tokiko komunikabideak, gaztetxeak, auzo elkarteak... kuadrilen fenomenoak, tabernak...”; “Kontzientzia sozio-komunikatiboaren atala gehiago zabaldu eta sakondu behar litzateke, besteak beste honako elementu hauen bidez: euskararekiko atxikimendua bultzatzea; euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza eta norbanakoarena dela sentitzea; dagozkigun hizkuntza eskubideen jabe izatea, euskara berreskuratzea gure eskuetan ere badagoela ulertzea eta barneratzea; herri mugimenduaren balioaz ohartzea”.

Hobekuntza proposamenak: Atal horren egileekin erkatuko dira iritzi hauek.

**- Elkarrekin bizitzen ikasi:**

**14. itema:** Gatazkak konpontzen jakitea beharrezkoa da elkarrekin bizitzeko, baina batzuen iritzi ez da jasotzen gatazkaren beste aldeak: “Gatazkaren alderdi positiboa aipatu behar da”; “Gatazkek ez dute zertan beti negatiboak izan”. Gatazkaren irtenbideak “elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez lortuko dira” esaten da, eta hori ez da beti horrela gertatzen: “gauza bat da gatazkak konpontzeko irtenbiderik egokiena elkarrizketa eta negoziazioa izatea, baina bide horiek ez dute nahitaz gatazka konpontzen”.

1. Hobekuntza proposamena:

**14. itema.-Gatazkak konpondu**

Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea, aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean beste aldeak frustrazioa esperimintatzen duen egoeretan; **elkarrizketaren eta negoziazioaren bidetik ahalegintzea da irtenbiderik egokiena.**

2. Hobekuntza proposamena:

Azpikonpetentzia horren azalpenaren hasieran, erantsi: “Gatazkak konpontzen jakitea beharrezkoa da elkarrekin bizitzeko, eta gatazkei aurre egitea da bide bakarra norbanakoaren heldutasuna erdiesteko”. Gatazkei modu egokian...

**15. itema:** Parte-hartze demokratikoari buruz, honako ohar hauek egiten dira: “Parte-hartze “demokratikoa”ren ordez “aktiboa” jarri”; “Parte-hartze kritikoa, disidentzia, ez da onartzen”; “Ados, baina nabarmendu nahi dugu eskola komunitate osoak (ikasleak barne) parte hartu behar duela eskolaren inguruan hartzen diren erabakietan”.

1. Hobekuntza proposamena:

**15. itema.- Parte-hartze aktiboa eta demokratikoa**

Parte-hartze aktiboa eta **denon mesedetakoa** izatea eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan. Horretarako, protagonismoa banatu egingo da, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko.

2. Hobekuntza proposamena:

Azpikonpetentzia horren azalpenean, ikasleen aipamena egin, eta parte-hartze kritikoa eman.

**16. itema:** Elkarlanaren eta talde lanaren inguruan, honako ohar hau egiten da: “Taldea lana aipatzerakoan, Euskal Herriaren berezko kontzeptua berreskuratu eta aldarrikatzea proposatzen dugu: auzolana”.

Hobekuntza proposamena:

Azpikonpetentzia horren azalpenean, auzolanaren aipamena egin.

**17. itema:** Aniztasunaren inguruan, honako ohar hauek egiten dira: “Konpetentzia horren oinarrian, baterako hezkuntzak egon beharko luke, eta uste dugu ez zaiola behar beste garrantzirik ematen”;

“...adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina dutenak..., zerrenda horretan, erlijioen edo sinismenen aipamena egin”; “Gehiago landu behar da solidaritatea, elkartasuna”; “Aniztasuna onartzea baino hobeto, *errespetatzea*”; “Etorkinentzako irekiera espezifikoa, zonalde bakoitzari egokitu”.

1. Hobekuntza proposamena:

### **17. itema.- Aniztasuna**

Norberarengandik desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak *errespetatzea*. Horretarako, ezaugarri psikologiko desberdinak eta fisiko, adin, sexu, *erlijio*, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina dituzten pertsonekin elkarlanean arituko dira, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta oinarritzko giza eskubideak bermatzeko.

2. Hobekuntza proposamena:

Azpikonpetentzia horren azalpenean, sexuen arteko berdintasunari eta baterako hezkuntzari aipamen zehatza egin.

### **- Norbera izaten ikasi:**

**18. itema:** Gorpuztasunaren inguruan, honako ohar hauek egiten dira baterako hezkuntzari, sexuari eta drogei buruz: “Baterako hezkuntza jaso beharko luke”; “Sexu heziketa erantzunkizunera bideratu”; “Drogak baztertzea, beste modu batean esan”; “Drogak baztertzea adierarekin ez gaude ados eta \_drogekin elkarbizitzen edo harreman arduratsua’ izateko heztea proposatzen dugu”.

**19. itema:** Norberaren kontrolaren eta oreka emozionalaren inguruan, batetik, “emozioak kontrolatzea” baina egokiagoa ikusten da: “Emozioak ulertzen jakitea, kudeatzea...”; “Kontrol hitza ez zaigu egokia iruditzen”, “Emozioak kontrolatzea baino garrantzi handiagoa du horiek adierazteak”. Bestetik, konpetentzia horren eragina ez da mugatu behar norbanakoaren bizitzara: “Bizitzarako ezarritako helburuak lortzeko eta gustura sentitzeko, ez zaigu egokia iruditzen, elkarbizitzarako egokiagoa litzateke”. Eta badago beste ohar bat kontuan hartzekoa dena: “Oro har, egoera negatiboei, frustrazioei, gaixotasunari, bakardadeari, ezintasunari... aurre egiteari buruzko aipamenaren falta da”; “Azpikonpetentzia baten falta sumatzen dugu: porrotari aurre egiteko edo asimilatzeke konpetentziaa”; “Frustrazioen tolerantzia landu”.

**21. itema:** Gehiegizkotzat jotzen azpikonpetentzia hori: “Proiektu pertsonala lor al daiteke adin horietan? \_egiten hastea’ jarriko nuke”; “Ezinezkoa deritzogu DBHaren bukaeran ikasle batek bere proiektu pertsonala diseinatuta edukitzeari”.

Hobekuntza proposamenak: Atal horren egileekin erkatuko dira iritzi horiek.

### **- Egiten eta ekiten ikasi**

**25. itema:** Sormenaren faseari dagokionez, zera proposatzen da: “Sormena era askeagoan egitea, konpetentziaak dioenak bideratuegia dirudielako. \_Sorkuntza tekniken bidez’ kendu”.

**27. itema:** Ebaluazioaren faseari buruz, honako irizpide hau ematen da: “Ebaluatzeke prozesua mekanikoezia iruditzen zaigu; gure ustez, autokritikan eta hobetzeko gogoan indar handiagoa jarri behar dugu”.

Hobekuntza proposamenak: Atal horren egileekin erkatuko dira iritzi horiek.

## **6.3.- EDUKI METADIZIPLINARRREN EBALUAZIOAREN LABURPENA ETA HOBKUNTZA PROPOSAMENAK**

Atal horretan, arlo guztientzat komunak diren jarrera eta prozedura edukiak azpimarratzen dira, eduki metadiziplinarrak, alegia. Proposamen honen helburua zera da: irakasleei laguntzea curriculumeko planteamendu integratuak egiten. Jarrera eta metodologia prozedura berekin lan egiten da, baina ikas arlo bakoitzari aplikatzen zaio, arlo horri dagozkion eduki kontzeptualak eta egoerak kontuan hartuta. Horrek hezkuntza planteamendu globala eta ikasbideak helarazteke konpetentzia handia duena sortzen laguntzen du. Planteamendu hori erabiltzearen ondorioak ezin dudatuzkoak dira, bai irakasleak antolatzeke eta koordinatzeke beharrari dagokionez, bai ikasleen ebaluazioa koordinatzeke beharrari dagokionez.

Prozedura induktibo eta deduktiboari jarrailu zaie eduki metadiziplinarrak hautatzeko. Hasteko, ikas arloetan proposatutako jarrera eta prozedura edukiak analizatu dira, eta hiru taldetan sailkatu dira: metadiziplinarrak, interdiziplinarrak eta diziplinarrak (prozedura induktiboa). Jarreraren eta prozeduren lehen mapa da horren emaitza. Gero, azpikonpetentzia orokorrekin erkatu da jarreraren eta prozeduren mapa hori (prozedura deduktiboa) eta bat-etortzeak eta hutsuneak azalarazi dira. Ondoren aurkezten den proposamena aipatutako bi prozedurak konbinatzearen emaitza da.

Jarrera eta prozedura metadiziplinarrak Euskal Curriculumaren “Testuinguru Orokorraren” azkeneko katebegia dira. Hezkuntzaren xedeak, Hezkuntza Konpetentzia Orokorraren bidez garatzen dira, eta, Hezkuntza konpetentzia orokorrak, berriz, jarrera eta prozedura metadiziplinarraen bidez. Testuinguru orokorra horrela osatzen da, baina testuinguru orokor hori osatu gabe garatzen da honako hauetan aplikatzen ez bada: hezkuntza formalean, ikas arloetan, hezkuntza informalean eta eguneroko bizitzako egoeretan.

### 6.3.1.- Jarrera metadiziplinarrak

#### Planteamendua:

Jarraian aipatuko diren jarrerak modu irekian daude formulatuta, horiek modu espezifikoan eta bereizian zehazteko aukera egon dadin (metadiziplinarratasuna). Adibidez, zenbait jarrera, -hala nola, arreta, jakin-mina eta sormena- arlo guztietan landu behar dira, baina jarrera horien helburua aldatuko egingo da arloaren arabera.

Jarrera metadiziplinarrak hautatzeko, hiru iturri erabili dira: a) Arlo diziplinar bakoitzeko jarrerazko edukiak hustu egin dira; b) Hezkuntza Konpetentzia Orokorretan agertzen diren jarrerak hustu egin dira; c) Aurreko informazio horiek Hall-Tonna-ren balioen maparekin alderatu dira. Hiru iturri horietatik bildutako era guztietako jarrerak alfabetikoki zerrendatu zitezkeen, baina egokiagoa iruditu zaigu esparru bereko edo antzeko esparruko jarrerak familietan biltzea, batez ere gehiegizko sakabanaketa ekiditearren. 25 talde edo familietan multzokatu dira jarrerak. Multzo bakoitzean, ñabardura bereizgarriak dituzten eta aldi berean jarrera arlo bat osatzeko elementu komunak dituzten jarrerak bildu ditugu.

Jarrera multidiziplinarrak balioesteko galdetegia honako lau atal hauetan banatuta dago (26 item):

- Ikasten, pentsatzen, egiten eta ekiten ikasi: 9 item.
- Komunikatzen eta elkarrekin bizitzen ikasi: 10 item.
- Norbera izaten ikasi: 6 item.
- Balioespen orokorra: 1 item.

Jarraian azaltzen den balioespena informazio kuantitatiboan oinarritzen da. Ez da informazio kualitatiboa asko jaso, eta "Hobekuntza proposamenak" atalean laburbiltzen da.

#### Balioespen kuantitatibo orokorrak:

| <b>Ikasten, pentsatzen, egiten eta ekiten ikasi</b>   |      |
|---|------|
| 1.- Arreta, jakin-mina, balioespen positiboa, irekitasuna, interesa, sentikortasuna   | 4.59 |
| 2.- Sormena, irudimena, originaltasuna, ausardia  | 4.26 |
| 3.- Malgutasun intelektuala, hutsegitearekiko tolerantzia   | 4.50 |
| 4.- Jarrera gogoetsua, kritikoa, balioestearen aldekoa  | 4.57 |
| 5.- Ekimena, gogo bizia, arriskua, eraginkortasuna, ekintzailetasuna  | 4.26 |
| 6.- Antolamendua, aurreikuspena, sistematikotasuna  | 4.41 |
| 7.- Ahalegina, irmotasuna, borondatea, iraunkortasuna, autodiziplina, pazientzia, gehiago izateko espiritua                             | 4.70 |
| 8.- Xehetasuna, argitasuna, zehaztasuna, lana ondo egiteko joera, ordena, txukuntasuna  | 4.44 |
| 9.- Erantzukizuna, segurtasuna, ardura, arreta  | 4.56 |
| <b>Komunikatzen eta elkarrekin bizitzen ikasi</b>   |      |
| 10.- Entzute aktibo, elkarrizketzaile, ireki eta zehaztua, zuhurtzia, negoziazioa, bitartekotasuna                                      | 4.56 |
| 11.- Sentikortasuna, onarpena, estimua, enpatia, errukitasuna   | 4.50 |
| 12.- Kooperazioa, lankidetzeta, adiskidetasuna, bizikidetasuna  | 4.69 |
| 13.- Ideia, iritzi, balio, hizkuntza, kultura eta nortasun desberdinak eta askotarikoak onartzea eta errespetatzea; tolerantzia aktiboa | 4.74 |
| 14.- Zuzentasuna, justizia, bereizketarik eza, solidaritatea  | 4.73 |
| 15.- Talde lana eta talde lankidetzeta, erabakiak hartzen eta erantzukizun instituzionaletan parte hartzea                              | 4.40 |
| 16.- Bizikidetzeta eta gizabide arauak errespetatzea, instituzioak errespetatzea  | 4.51 |
| 17.- Eskuzabaltasuna, altruismoa, adeitasuna, laguntzeko prest egotea, adiskidetasuna, begikotasuna                                     | 4.49 |
| 18.- Zintzotasuna, leialtasuna, esker onekoa izatea   | 4.59 |
| 19.- Naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua   | 4.63 |

| <b>Norbera izaten ikasi</b>  |             |
|--|-------------|
| 20.- Gorputza zaintzea, ohitura osasungarriak  | 4.57        |
| 21.- Euskara eta euskal kultura estimatzea, baita ukipen hizkuntzak ere  | 4.61        |
| 22.- Autoestimua, norberaren duintasunaz jabetzea, konpetentziaak eta mugak onartzea, norberaren eskubideak defendatzea, norberarengan konfiantza izatea | 4.73        |
| 23.- Autonomia, askatasuna   | 4.66        |
| 24.- Autokontrola, emozioen egonkortasuna eta oreka, heldutasuna   | 4.61        |
| 25.- Gozamena, sentikortasun estetikoa   | 4.14        |
| <b>Jarrera metadiziplinarrei buruzko balioespen orokorra</b>   | <b>4.49</b> |

Atal hau osatzen duten 26 itemen balioespen orokorra oso ona da. Denek lortu dute 4,26tik gorako batezbestekoa.

Honako item hauek jaso dute balioespenik hoberena: 7. itema (ahalegina, irmotasuna, borondatea, iraunkortasuna, autodiziplina, pazientzia, gehiago izateko espiritua), batez beste 4,70 puntu lortuta; 13. itema (idea, iritzi, balio, hizkuntza, kultura eta nortasun desberdinak eta askotarikoak onartzea eta errespetatzea; tolerantzia aktiboa), batez beste 4,74 puntu lortuta; 14. itema (zuzentasuna, justizia, bereizketarik eza, solidaritatea), batez beste 4,73 puntu lortuta, eta 22. itema (autoestimua, norberaren duintasunaz jabetzea...), batez beste 4,73 puntu lortuta.

Puntuazio altua jaso arren, balioespen okerrera, berriz, honako item hauek lortu dute: 2. itemak (sormena, irudimena, originaltasuna, ausardia) eta 5. itemak (ekimena, gogo bizia, arriskua, eraginkortasuna, ekintzailetasuna), 4,26 punturekin 1etik 5era bitarteko eskalan.

Batez beste, oso balioespen ona jaso du jarrera metadiziplinarrak ebaluatu nahi dituen galdetegiaren atal horrek: 4,49 puntu. Eskola moten arabera aztertuta: eskola publikoek, batez beste, 4,41 puntu ematen dituzte; kristau eskolek, berriz, 4,43 puntu, eta ikastolek, 4,62. Lurraldea kontuan hartuta: arabarrek, batez beste, 4,34 puntu ematen dituzte; gipuzkoarrek eta nafarrek, berriz, 4,54, eta bizkaitarrek, 4,48. Hizkuntza ereduen arabera desberdintasunak antzekoak dira: A ereduok, batez beste, 4,34 puntu ematen dituzte; B ereduok, 4,44, eta D ereduok, 4,58. Azkenik, estamentuei begiratzen badiegu, ikasleak dira kritikoenak: batez beste, 4,24 puntu. Irakasleek, berriz, puntuaziorik altuena ematen dute: 4,57 puntu bigarren hezkuntzakoek, eta 4,55 haur eta lehen hezkuntzakoek.

Atalak banan-banan aztertuta, honako hau ondoriozta dezakegu:

### **6.3.1.1.- Ikasten, pentsatzen, egiten eta ekiten ikasi (1-9. itemak)**

#### **Balioespen kuantitatiboak:**

*Ikasten, pentsatzen, egiten eta ekiten ikastearekin lotutako gaiek oso balioespina ona jaso dute.*

Ikas arloen balioespenetan antzemandako desberdintasunak analizatuko ditugu parte-hartzaileak taldekatzeko erabili ditugun aldagaien arabera (hizkuntza eredia, estamentua, lurralde eta eskola sarea). Honako hauek dira konturik aipagarrienak.

Eskola moten arteko desberdintasunak: Ikastetxe publikoek puntuazio gutxiago ematen dute item guztietan, modu beti-batekoan. Puntuazioen batezbestekoak 4,13 (2. itema: sormena...) eta 4,53 (9. itema: erantzukizuna, segurtasuna...) artean daude. Ikastolek ematen dituzte puntuaziorik altuenak, 7. itemean (ahalegina...) izan ezik; izan ere, kristau eskolek ematen dute puntu kopururik handiena item horretan, ikastolek baino 6 hamarren gehiago. 1. itemak (arreta eta jakin-mina...) eta 7. itemak (ahaleginak...) lortu dituzte balioespenik hoberenak: 4,74 (ikastolek) eta 4,73 (kristau eskolek), hurrenez hurren.

Ez da desberdintasun handirik sumatu lurralde historikoen artean. Alderik handiena 9. itemean (erantzukizuna...) dago, arabarrek, batez beste, 4,33 puntu ematen baitituzte eta nafarrek, berriz, 4,60.

Hizkuntza eredia kontuan hartuta ere, ez dago alde handirik. 1. itemean (arreta, jakin-mina...) jaso dira desberdintasunik handienak, D ereduok, batez beste, 4,69 puntu ematen baitituzte eta A ereduok, berriz, 4,47. 6. eta 9. itemetako desberdintasunak ere antzekoak dira. Izan ere, D ereduok dagozkien batezkoak 25 ehunen handigoak dira A ereduoa baino.

Azkenik, estamentuen arteko konparazioa eginez gero, aipagarriena da ikasleek ematen dituztela modu beti-batekoan balioespen okerrerenak. 2. itemak (sormena...) eta 5. itemak (ekimena, gogo bizia...) lortzen dituzte puntuaziorik baxuenak (altuak badira ere). Horien batezbestekoak honako hauek dira hurrenez hurren: 4,03 eta 4,01. Ikastetxeetako titularrek, maila guztietako irakasleek eta zuzendaritza taldeek oso balioespen antzekoak egiten dituzte atal horretako 9 gaiei buruz.

### **6.3.1.2.- Komunikatzen eta elkarrekin bizitzen ikasi (10.-19. itemak)**

#### **Balioespena kuantitatiboa:**

Jarrera metadiziplinarra inguruko galdetegian, atal horrek lortu du adostasunik handiena. Izan ere, item guztiek lortu dute 4,40tik gorako balioespen orokorra eta hori da, hain zuzen, 15. itemak lortutako batezbestekoa (talde lana eta talde lankidetzatza...).

Ikastetxe motaren arabera analisisia egiten badugu, ikastetxe publikoek ematen dituzte balioespenik okerrerrenak item talde horretan. Lau itemetan, 40 ehunenetik gorakoak dira alde horiek: 15. itema (talde lana eta talde lankidetzatza...), 16. itema (bizikidetzatza eta gizabide arauak errespetatzea...), 17. itema (eskuzabaltasuna...) eta 18. itema (zintzotasuna...). Ikastetxe publikoek, betiere, puntu kopuru txikiagoa ematen dute eta ikastolek eta kristau eskolek, berriz, antzekoa. Beste item guztietan, ia-ia erabateko adostasuna dago balioespenetan.

Lurraldeak kontuan hartuta, arabarrek puntuazio baxuagoak ematen dituzte 15. eta 18. itemetan, baina, kasu honetan, aldeak ikastetxe motakoen artekoak baino txikiagoak dira. Alderik handiena 17. itemean dago, baina 25 ehunen besterik ez dira (Araba: 4,40 eta Bizkaia: 4,65).

Hizkuntza ereduak kontuan hartuta, adostasuna ia erabatekoa da. Ez dago aintzat hartzeko moduko alderik. Handiena (15 ehunen) 19. itemean dago (naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua), D ereduan, batez beste, 4,70 puntu lortzen baititu eta A ereduan, berriz, 4,55.

Estamentuen arabera, ikasleek berriz ere ematen dute balioespenik okerrera azaldutako jarrera guztietan. Hala ere, 11. itemari (sentikortasuna eta onarpena...) eman diote puntuaziorik okerrera eta, batez beste, 4,03 puntu lortu ditu. 13. itemari, berriz, balioespenik hoberrera eman diote (ideia, iritzi, balio, hizkuntza, kultura eta nortasun desberdinak eta askotarikoak onartzea eta errespetatzea...).

### **6.3.1.3.- Norbera izaten ikasi (20.-25. itemak)**

#### **Balioespen kuantitatiboa:**

*Norbera izaten ikasi* ataleko 6 itemek oso balioespen ona jaso dute. 25. itema (gozamina, sentikortasun estetikoak) da, batez beste, 4,50 puntura ailegatu ez den bakarra. Harrigarria da nolako adostasuna dagoen hainbat irizpideren arabera sortutako azpitalde guztien artean 25. itemari balioespenik okerrera emateko. Esan bezala, beste item guztiek oso batezbesteko altua lortu dute, bereziki 22. itemak, batez beste 4,73 puntu eman baitizkiote.

Ikastetxe motaren arabera desberdintasunak aztertuta, zera ikusi dugu: ikastolek, beti, besteek baino balioespen hobereagoa egiten dute, baina alde horiek ez dira inoiz ere 25 ehunen baino handiagoak. Kasu guztietan, 25. itemak (gozamina, sentikortasun estetikoak) jaso du balioespen okerrera. 22., 23., eta 24. itemetan, ia erabateko adostasuna dugu; horiek autoestimari, autonomiari eta autokontrolari egiten diote erreferentzia, hurrenez hurren.

Lurraldeei eta hizkuntza ereduak dagokienez, ez dago aintzat hartzeko moduko desberdintasunik.

Estamentuen arteko desberdintasunak: Ikasleen taldeak ematen ditu balioespenik okerrerrenak arlo guzti-guztietan. Galdetegi osoan zehar agertu dira alde horiek, baina, 25. itemean (gozamina, sentikortasun estetikoak), are handiagoak dira. Talde horretan, 3,76 da batezbestekoa, galdetegi honetako item guztien artean baxuena. Balioespen okerrera dutenen artean, 20. itema (gorputza zaintzea...) da hurrengoa; batez beste, 4,23 puntu lortu ditu eta galdetegi honetako beste itemetako puntuazioen antzekoa edo altuagoa da. Horretaz gain, ez dago aipatzeko moduko alderik zuzendaritza taldeen, irakasleen artean eta ikastetxeetako jabeen balioespen artean.

### **6.3.1.4.- Hobekuntza proposamenak**

Atal horretan egin diren balioespen kualitatiboen artean gehien errepikatzen direnak honako multzo hauetan sailka daitezke:

- *Jarrera hauek lantzea ez da soilik eskolaren eginkizuna*: "Jarrera hauetako asko etxean ikasi behar dira"; "Gero eta problema gehiago dago gizartean eta irakasleek laguntza behar dute"; "Gizarteak ere badu zeregina"; "Jarrera hauek lantzeko, familiaren laguntza behar dugu".

*Hobekuntza proposamena*: Argi dago jarrerak lantzea ez dela soilik eskolaren eginkizuna, eskolarena ere badela, baina baita familiarena eta gizartearena ere. Lankidetzatza bideak, beraz, ezinbestekoak izango dira.

- *Jarreraren planteamendua utopikoa da*: "Idealak eta utopikoak dira, gaurko gizartearekin topo egiten dute"; "Utopia hutsa da"; "Gizartean dauden balioak eta hemen jorrazten direnak ez datoz bat".

*Hobekuntza proposamena*: Jarreraren planteamendua utopikoa dela esaten da, eta hori ere hala da, baina, gure ustez, eta proposamenari emandako balioespen ona kontuan hartuz, badirudi



## 6.- Marko orokorraren ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboaren laburpena eta hobekuntza proposamenak

hezkuntza komunitateko estamentu guztiak eta lurralde eta hizkuntza eredu guztietako ikastetxe mota guztiak utopia horren alde apustu egiteko prest daudela.

- *Jarrerak familian elkartzeko erari buruz:* “Esaldi bakoitzean kategoría desberdinetako jarrerak daude eta zaildu egiten du balioespena”; “Balioespenean multzo berean kontzeptu ugari sartuta daudenez, zaila egin zaigu”; “Kontzeptu asko nahasten dira”.

*Hobekuntza proposamena:* Jasotako oharretan oinarrituz, aurreko proposamena hobetzen saiatu gara eta kategoría berekoak batera jartzen. Aurreko proposamena hobetzen dela uste dugu, baina ziur gaude badagoela oraindik zer hobetua. Adibidez, proposamen hori argiagoa eta aberatsagoa litzateke familia bakoitzeko jarrera multzo bakoitzak esplikazioa izango balu eta jarrera horiek lantzeko norabideak eta, ahal bada, prozedurak azalduko balira.

- *Jarreraren kopuruari buruz:* “Jarrera gehiegi”; “Jarrera kopuru handiegia da eta trinkotzea komenigarria litzateke”; “Posible al da hori guztia lantzea?”; “16 urte bitarte lantzeko ez al da gehitxo?”; “Nola eraman praktikara?”.

*Hobekuntza proposamena:* Ez dugu uste jarreraren kopurua murriztuz proposamena hobetzen denik. Besterik da ustea jarrera horiek guztiak 16 urterako bereganatzekoak direla, ezinezkoa da eta. Proposamena “nola eraman praktikara” galderaren erantzunean dago gakoa. Proposamen hau jarreraren banku modura ulertu behar da. Banku horretara jo behar da etengabe, ikas arlo bakoitza lantzerakoan eta gelako bizitza kudeatzerakoan. Jarrera asko dira etxeko giroan eta bizitzaren beste egoeretan ere lantzekoak.

Item bakoitzari egindako hobekuntza proposamenak aztertu ondoren, honako proposamen berri hau egiten dugu:

### Jarreraren bankua

| <b>A.- Ikasten, pentsatzen, egiten eta ekiten ikasi</b>  |
|--|
| 1.- Arreta, jakin-mina, irekitasuna, interesa, motibazioa  |
| 2.- Sormena, irudimena, originaltasuna, ausardia   |
| 3.- Malgutasun intelektuala, zorroztasuna eta hutsegitearekiko tolerantzia uztartzea.  |
| 4.- Jarrera gogoetatsua, kritikoa, balioestearen aldekoa   |
| 5.- Ekimena, gogo bizia, arriskuak neurtuz hartzen jakitea, eraginkortasuna, ekintzailetasuna  |
| 6.- Antolamendua, aurreikuspena, sistematikotasuna   |
| 7.- Ahalegina, irmotasuna, borondatea, iraunkortasuna, autodiziplina, pazientzia, hobea izateko gogoa  |
| 8.- Xehetasuna, argitasuna, zehaztasuna, lana ondo egiteko eta bururaino eramateko joera, ordena, txukuntasuna   |
| 9.- Erantzukizuna, segurtasuna, ardura, gauzekiko arreta   |
| <b>B.- Komunikatzen eta elkarrekin bizitzen ikasi</b>  |
| 10.- Entzute aktiboa, elkarriketatzailea, irekia eta zehaztua, zuhurtzia, negoziazioa, bitartekotasuna   |
| 11.- Euskara eta euskal kulturarekiko eta nork bere hizkuntzaren eta kulturarekiko atxikimendua, eta beste hizkuntza eta kulturekiko irekitasuna         |
| 12.- Sentiberatasuna, onarpena, estimua, enpatia, errukia (sufritzen duenarekin bat egitea)  |
| 13.- Kooperazioa, lankidetzatza, adiskidetasuna, bizikidetasuna, baterako hezkuntza  |
| 14.- Ideia, iritzi, balio, sexu, hizkuntza, erlijio, kultura eta nortasun desberdinak eta askotarikoak onartzea eta errespetatzea; tolerantzia aktiboa   |
| 15.- Zuzentasuna, justizia, bereizketarik eza, generoen berdintasuna (maila berean), solidaritate aktiboa  |
| 16.- Talde lana eta talde lankidetzatza, erabakiak hartzen eta erantzukizun instituzionaletan parte hartzea  |
| 17.- Bizikidetzatza eta gizabide arauak errespetatzea, hezkuntza komunitateak eskolan hartzen dituen erabakiak errespetatzea, instituzioak errespetatzea |
| 18.- Eskuzabaltasuna, altruismoa, adeitasuna, barkatzen jakitea, laguntzeko prest egotea, adiskidetasuna, begikotasuna                                   |
| 19.- Zintzotasuna, leialtasuna, esker ona  |

|  |
|--|
| 20.- Naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua eta zaintza aktiboa  |
| <b>C.- Norbera izaten ikasi</b>  |
| 21.- Gorputza zaintzea, ohitura osasungarriak  |
| 22.- Autoestimua, norberaren duintasunaz jabetzea, konpetentziaak eta mugak onartzea, norberaren eskubideak defendatzea, norberarengan konfiantza izatea |
| 23.- Autonomia, askatasuna   |
| 24.- Autokontrola, emozioen egonkortasuna eta oreka, heldutasuna   |
| 25.- Gozamena, sentikortasun estetikoa, transzendentziara irekia egotea  |

### 6.3.2.- Prozedura metadiziplinarrak

#### Planteamendua

Prozedura metadiziplinarrak hautatzeko hiru pauso eman dira: a) Ikas arlo bakoitzeko prozedurazko edukiak hustu egin da; b) Prozedurazko edukiak hiru multzotan sailkatu dira: arlo guztietarako baliagarriak diren prozedurak (metadiziplinarrak), arlo bat baino gehiagorako baliagarriak diren prozedurak (interdiziplinarrak) eta arlo bakar batentzat soilik baliagarriak diren prozedurak (diziplinarrak); c) Prozedura metadiziplinarrak bost ataletan edo multzotan sailkatu dira. Gai honi buruzko proposamena 83-84. orrialdetan dago.

Prozedura metadiziplinarraen balioespena analizatzeko galdetegia 6 ataletan banatuta dago:

- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea: 10 item.
- Informazioa bilatzea eta antolatzea: 3 item.
- Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lanaren antolaketa: 8 item.
- Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea: 4 item.
- Bizikidetzeta eta talde lana: 4 item
- Balioespen orokorra: 1 item

Jarraian azaltzen den balioespena, informazio kuantitatiboan oinarritzen da. Jaso den informazio kuantitatiboa ez da oso ugaria izan eta "Hobekuntza proposamenak" atalean laburbiltzen da.

#### Balorazio kuantitatibo orokorra

| <b>A.- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea</b>                    |      |
|--|------|
| 1.-Ahozko mezuak ulertzeko jarraibideak  | 4.57 |
| 2.- Polikudeaturiko mintzaldiak (elkarrizketetan) ekoizteko jarraibideak         | 4.33 |
| 3.- Monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketan) ekoizteko jarraibideak           | 4.26 |
| 4.- Idatzizko testuak ulertzeko jarraibideak                                     | 4.62 |
| 5.- Testu generikoak egiteko jarraibide orokorrak                                | 4.42 |
| 6.- Txosten deskribatzaileak egiteko jarraibideak                                | 4.32 |
| 7.- Balioespen edo kritika txostenak egiteko jarraibideak                        | 4.36 |
| 8.- Testu iruzkinak egiteko jarraibideak   | 4.35 |
| 9.- Lan monografikoak egiteko jarraibideak                                       | 4.31 |
| 10.- Gai baten ahozko aurkezpena edo azalpena egiteko orientabideak              | 4.49 |
| <b>B.- Informazioa bilatzea eta antolatzea</b>                                   |      |
| 11.- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak                            | 4.36 |
| 12.- Informazioa bilatzean, ordenagailua erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak | 4.42 |
| 13.- Informazioa antolatzeko jarraibideak, taulak eta diagramak erabiliz         | 4.28 |
| <b>C.- Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lana antolatzea</b>                 |      |
| 14.- Ideiak argitzeko, sortzeko eta ebaluatzeko jarraibideak                     | 4.46 |
| 15.- Eskemak egiteko jarraibideak  | 4.53 |

|   |             |
|---|-------------|
| 16.- Kontzeptu mapak egiteko jarraibideak   | 4.43        |
| 17.- Laburpenak egiteko jarraibideak  | 4.55        |
| 18.- Testu edo dokumentu bati buruzko oharrik hartzeko, ahozko azalpen bat egiteko edo ikus-entzunezko proiektio bat egiteko urratsak | 4.38        |
| 19.- Testu bat ikasteko edo memorizatzeko eman beharreko urratsak   | 4.47        |
| 20.- Metakognizioa garatzeko jarraibideak (norberaren ikasteko moduari buruzko gogoeta)   | 4.35        |
| 21.- Lan pertsonala antolatzeko jarraibideak: agenda, paper zorroa, etab.   | 4.47        |
| <b>D.- Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea</b>   |             |
| 22.- Ikerketa txikiak egiteko aholkuak  | 4.20        |
| 23.- Prozesu ekintzailearen jarraibideak  | 4.19        |
| 24.- Gatazkak aztertzeko protokoloak  | 4.38        |
| 25.- Erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko jarraitu beharreko protokoloak  | 4.47        |
| <b>E.- Bizikidetzeta eta talde lana</b>   |             |
| 26.- Bizikidetzeta arauak egiteko eta berraztertzeko aholkuak   | 4.54        |
| 27.- Ikasgelako eztabaidetan parte hartzeko arauak  | 4.51        |
| 28.- Talde lanak egiteko orientabideak  | 4.51        |
| 29.- Bilerak egiteko jarraibideak   | 4.28        |
| <b>Prozedura metadiziplinarraei buruzko balioespen orokorra</b>   | <b>4.41</b> |

Atal hori osatzen duten 30 itemen balioespen orokorrak oso onak dira. Izan ere, denek lortu dute 4,26tik gorako batezbestekoa.

Honako hauek dira hobekien balioetsitako itemak -4,50tik gorako puntuazioa lortu dutenak, hain zuzen-: 1. itema (ahozko mezuak ulertzeko jarraibideak), 4. itema (idatzizko testuak ulertzeko jarraibideak), 15. itema (eskemak egiteko jarraibideak) eta 17. itema (laburpenak egiteko jarraibideak); eta, bestalde, bizikidetzari eta talde lanak egiteari buruzko zenbait item: 26. itema (bizikidetzeta arauak egiteko eta berraztertzeko aholkuak), 27. itema (ikasgelako eztabaidetan parte hartzeko arauak) eta 28. itema (talde lanak egiteko orientabideak).

Balioespen okerrera lortu duten itemek 4,26tik gorako puntuazio lortu dute; honako hauek dira: 3. itema (monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketan) ekoizteko jarraibideak), 12. itema (informazioa bilatzean, ordenagailua erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak) eta 29. itema (bilerak egiteko jarraibideak).

Prozedura metadiziplinarraen planteamendua ebaluatzeko galdetegiaren balioespen orokorrak (30. itema) 4,41 puntu lortu ditu 1tik 5era bitarteko eskala batean. Puntuazio altutzat jo dezakegu.

Kristau eskolako partaideek (4,31) beste taldetakoek (eskola publikoak: 4,45 eta ikastolak: 4,58) baino balioespen okerreago eman dute. Lurraldeen artean ez dago aipatzeko moduko desberdintasunik (18 ehunen). A ereduak (batezbestekoa:4,16) balioespen okerragoa eman dute B ereduak (4,34) eta D (4,55) ereduak baino. Estamentuen artean, ikasleek eman dituzte balioespenik okerrerenak (batezbestekoa: 4,15) eta zuzendaritza taldeek, berriz, hoberena (batezbestekoa: 4,52).

Atalka analizatuz gero, honako hau azpimarra daiteke:

### **6.3.2.1.- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea (1.-10. itemak)**

Arlo hau osatzen duten 10 itemen puntuazioa, beste prozedura metadiziplinarraenak bezala, altua da.

Ikas arloen balioespenetan antzemandako desberdintasunak analizatuko ditugu parte-hartzaileak taldekatzeko erabili ditugun aldagaien arabera (hizkuntza eredu, estamentua, lurralde eta eskola sarea). Honako hauek dira konturik aipagarrienak:

Ikastetxe motaren arabera desberdintasunak analizatuz gero, oro har, kristau eskoletako batezbestekoak ikastoletakoena eta eskola publikoetakoena baino baxuagoak dira. Aipagarria da 3. itemean (monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketan) ekoizteko jarraibideak) agertu den balioeste desberdintasuna, kristau eskoletako batez beste 4,10 puntu eman baitiote eta ikastoletakoek eta eskola publikoetakoek, berriz, 4,47 eta 4,52, hurrenez hurren. 2. itemean (polikudeaturiko mintzaldiak ekoiztea) ageri den alde ere aintzat hartzeko modukoa da, kristau eskoletako batezbestekoa 4,19 baita eta 4,41 eta 4,56, eskola publikoetan eta ikastoletan. Zentzu bereko desberdintasunak ditugu 9. itemean (lan monografikoak egiteko jarraibideak) eta 10. (gai baten ahozko aurkezpena edo azalpena egiteko

orientabideak) itemean. Bi item horietan, kristau eskolen batezbestekoa eskola publikoetakoa eta ikastoletakoa baino baxuagoa da (20-30 ehunen).

Lurraldeen artean ez dago aintzat hartzeko moduko alderik. Hala ere, denek ematen diote 3. itemari (monokudeaturiko mintzaldiak) balioespenik okerrera. Bestalde, idatzizko (4. itema) eta ahozko testuak (1. itema) ulertzeak lortzen du balioespenik hobereana.

Ereduen arteko aldeak analizatuta, ikusiko dugu D ereduaren batezbestekoa B ereduarena baino altuagoa dela modu beti-batekoan, eta B ereduarena, berriz, A ereduarena baino altuagoa.

Estamentuen arabera, ikasleek, modu beti-batekoan, balioespen okerrera ematen dute prozedura guzti-guztietan. Desberdintasunik handienak 1. itemean daude, ikasleen eta irakasleen artean 54 ehunenen aldea baitago. Bestalde, 3. itemak (monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketan) ekoizteko jarraibideak) eta 2. itemak (polikudeaturiko mintzaldiak) lortu dituzte balioespenik okerrera, hurrenez hurren 3,97 eta 4,01 puntu eskuratuta batez beste.

### **6.3.2.2.- Informazioa bilatzea eta antolatzea (11.-13. itemak)**

13. itemak (informazioa antolatzeko jarraibideak, taulak eta diagramak erabiliz) beste biek baino batezbesteko baxuagoa (4,28) lortu du: 11. itemaren (Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak) batezbestekoa 4,36 da eta 12. itemarena (informazioa bilatzean, ordenagailua erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak), berriz, 4,42.

Ikastetxe moten arabera, kristau eskoletakoek balioespen okerragoa eman dute ikastetxe publikoetakoek eta ikastoletakoek baino. Lurraldeen arteko desberdintasunak ere ez dira batere handiak, eta gipuzkoarrek eman dute balioespenik hobereana. Dena den, oso alde txikiak daude, gehenez ere 24 ehunen baitira.

Hizkuntza ereduen artean, badira alde handiagoak. Atal horretako hiru itemetan, D ereduak B ereduak baino balioespen hobea eman dute, eta B ereduak, berriz, A ereduak baino hobea. Alderik handienak (46 ehunen) 13. itemean (informazioa antolatzeko jarraibideak...) jaso dira.

Estamentuen artean, eta aurreko joerari jarraituta, ikasleen taldeak eman du balioespenik okerrera item guztietan.

### **6.3.2.3.- Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lana antolatzea (14.-21. itemak)**

Atal hori osatzen duten 8 itemak oso ongi balioetsita daude, eta, haien artean, oso desberdintasun gutxi daude. Balioespenaren batezbestekoa 4,35 (20. itema: metakognizioa garatzeko jarraibideak) eta 4,55 (17. itema: laburpenak egiteko jarraibideak) bitartean dago.

Kristau eskoletakoek batez beste balioespen okerragoa eman badute ere, aldeak txikia dira, gehenez ere 27 ehunen 20. itemean. Lurraldearen arabera, arabarrak dira kritikoenak item guztietan. Dena den, hor ere, aldeak ez dira handiak, alderik handiena 31 ehunen baita 20. itemean.

Hizkuntza ereduaren arabera, A ereduak B ereduak baino balioespen okerragoa eman dute kasu guztietan, eta B ereduak, berriz, D ereduak baino okerragoa. Aldeak ez dira batere handiak.

Atal horretan ere, ikasleak dira kritikoenak. 21. itema (lan pertsonala antolatzeko jarraibideak: agenda, paper zorroa, etab.) balioetsi dute okerrera.

### **6.3.2.4.- Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea (22.-25. itemak)**

23. itemak (prozesu ekintzailearen jarraibideak) lortu du balioespenik okerrera atal horretan, batezbestekoa=4,19. 25. itemak (erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko jarraitu beharreko protokoloak), berriz, lortu du balioespenik hobereana, batez beste 4,47 puntu lortuta. Ikastoletakoek eta gipuzkoarrek besteek baino balioespen hobea eman dituzte. Arabarrek eman dituzte arlo guztietako batezbestekorik baxuenak.

Hizkuntza ereduen arabera, A ereduaren batezbestekoa B ereduarena baino baxuagoa da, eta B ereduarena, berriz, D ereduarena baino baxuagoa. Ikasleek puntuazio baxuagoak ematen dituzte, baina jorek berdin jarraitzen dute.

### **6.3.2.5.- Bizikidetzea eta talde lana (26.-29. itemak)**

Adostasuna aurkitu dugu galdetegiaren atal hori osatzen duten 4 itemak balioesteko garaian. 29. itemak (bilerak egiteko jarraibideak) lortu du balioespenik okerrera, batez beste 4,28 puntu lortuta. Beste hirurak honako batezbesteko puntuazio hauek lortu dituzte: 27. itemak (ikasgelako eztabaidetan parte hartzeko arauak) eta 28. itemak (talde lanak egiteko orientabideak), 4,51 puntu, eta 26. itemak (bizikidetze arauak egiteko eta berraztertze aholkua), 4,54.

Ez dago aintzat hartzeko moduko alderik ez ikastetxe moten artean, ez lurraldeen artean. D ereduak puntuazio altuagoak eman badituzte ere, itemen arteko aldeak antzekoak dira. Azkenik,

aipatu behar da ikasleek oro har puntuaziorik baxuenak eman dituztela eta bereziki nabaria dela 29. itemaren (bilerak egiteko jarraibideak) balioespen txarra.

### 6.3.2.6.- Hobekuntza proposamenak

Atal horretan egin diren balioespen kualitatiboaren artean, gehien errepikatzen direnak honako multzo hauetan sailka daitezke:

- *Prozedura horiek lantzea ez da soilik eskolaren eginkizuna:* “Balioespen positiboa da, baina hausnarketak irakasleekin eta gurasoekin argitzea nahi dugu”; “Gurasoek parte hartzen ez badute, hanka-motz geldituko litzateke proiektua”; “Eskolak eta familiak elkarrekin lan egin behar du”.

*Hobekuntza proposamena:* Argi dago prozedura batzuk lantzea ez dela soilik eskolaren eginkizuna, eskolarena ere badela, baina baita familiarena ere. Bakoitzaren eginkizunak zehaztea eta lankidetzak bideak egitea, beraz, ezinbestekoa izango da.

- *Prestakuntza beharrekoa izango da:* “Nork du hori guztia lantzeko kompetentzia? Nork daki nola lantzen diren kompetentzia horiek eta nola erakutsi besteei. Prestakuntza beharrezkoa dugu”; “Nola landu jakiteko, beharrezkoa da irakaslearen prestakuntza”; “Prestakuntza behar dugu eta jarraibide zehatzak denontzat”; “Garrantzitsua maisuak prestatzea”; “Gurasoei ere prestatzeko bideak eman, hitzaldien bidez edo”.

*Hobekuntza proposamena:* Prozedura metadiziplinarrak ikas arlo guztietan txertatu nahi badira, irakaslearen prestakuntza ezinbestekoa izango da. Era berean, badaude familietan bereziki lantzekoak diren prozedurak eta beste asko gurasoek ere ezagutzea komenigarri liratekeenak beren prestakuntzarako eta seme-alabei laguntzeko.

*Prozedura metadiziplinarrak zehazteko eta osatzeko beharra:* “Hurrengo urteetan, xeheago landu behar da hau”; “Batzuk oso orokorrak dira; horiek zehazten zailtasunak egongo dira”; “Ahalik eta ebaluazio irizpide objektiboaren eta argienak eraiki behar dira”; “Hainbat kasutan, azalpen gehiago behar da”; “Ebaluazioa landu behar da”; “Prozeduren jarraibideak gehiago zehaztu behar lirateke”.

*Hobekuntza proposamena:* Proposamen hau aurkibide bat besterik ez da eta osatu gabe dago. Proposamen hau osatzeko, honako hauek zehaztu egin behar dira: prozedura bakoitzaren definizioa, prozedurara hori lantzeko metodologia, ebaluazio irizpideak eta norabideak.

Proposamen hau hobetzeko, prozedurak ataletan edo multzotan sailkatzeko erari dagokio beste hobekuntza bideetako bat, nahiz eta puntu horretaz ez den hobekuntza proposamenik jaso. A, B, C, D eta E atal multzo bakoitza harremanetan jar daiteke hezkuntza kompetentzia orokor batekin, baina komeni da harreman hori argiago adieraztea. Bestela, badirudi prozedura metadiziplinarraek ez dutela zerikusirik jarrera metadiziplinarraekin eta hezkuntza kompetentzia orokorrekin. Horregatik, prozedura metadiziplinarraen aurretik esandakoak eta item bakoitzari egindako hobekuntza proposamen zehatzak aztertu ondoren, proposamen berriaren aurkibidea egin dugu:

|  |
|--|
| <b>A.- Ikasten eta pentsatzen ikasi</b>  |
| <b>A1.- Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lana antolatzea</b>  |
| 1.- Ideiak argitzeko, sortzeko eta ebaluatzeko jarraibideak  |
| 2.- Eskemak egiteko jarraibideak   |
| 3.- Kontzeptu mapak egiteko jarraibideak   |
| 4.- Laburpenak egiteko jarraibideak  |
| 5.- Testu edo dokumentu bati buruzko oharrik hartzeko, ahozko azalpen bat egiteko edo ikus-entzunezko proiektio bat egiteko urratsak |
| 6.- Testu bat ikasteko edo memorizatzeko eman beharreko urratsak   |
| 7.- Metakognizioa garatzeko jarraibideak (norberaren ikasteko moduari buruzko gogoeta)   |
| 8.- Lan pertsonala antolatzeko jarraibideak: agenda, paper zorroa, etab.   |
| <b>A2.- Informazioa bilatzea eta antolatzea</b>  |
| 9.- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak   |
| 10.- Informazioa bilatzean, ordenagailua eta bestelako baliabide teknologikoak erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak               |

|  |
|--|
| 11.- Taulak eta diagramak erabiliz, informazioa antolatzeko jarraibideak   |
| <b>B. Komunikatzen ikasi:<br/>Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea eta ekoiztea</b>                          |
| 12.- Ahozko mezuak ulertzeko jarraibideak  |
| 13.- Polikudeaturiko mintzaldiak (elkarrizketetan) ekoizteko jarraibideak  |
| 14.- Monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketan) ekoizteko jarraibideak  |
| 15.- Idatzizko testuak ulertzeko jarraibideak  |
| 16.- Testu generikoak egiteko jarraibide orokorrak   |
| 17.- Txosten deskribatzaileak egiteko jarraibideak   |
| 18.- Balioespen edo kritika txostenak egiteko jarraibideak   |
| 19.- Testu iruzkinak egiteko jarraibideak  |
| 20.- Lan monografikoak egiteko jarraibideak  |
| 21.- Gai baten ahozko aurkezpena edo azalpena egiteko orientabideak  |
| <b>C.- Egiten eta ekiten ikasi:<br/>Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea</b>               |
| 22.- Ikerketak egiten hasteko jarraibideak   |
| 23.- Prozesu ekintzailearen faseak aplikatzeko jarraibideak: fase analitikoa, sortze fasea, berritze fasea eta ebaluazio fasea |
| 24.- Gatazkak aztertzeke jarraibideak  |
| 25.- Erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko jarraitu beharreko protokoloak   |
| <b>D.- Elkarrekin bizitzen ikasi:<br/>Bizikidetzeta eta talde lana</b>   |
| 26.- Bizikidetzeta arauak egiteko, aplikatzeko eta berraztertzeke jarraibideak   |
| 27.- Ikasgelako eztabaidetan kide, bitartekari eta moderatzaile gisa parte hartzeko arauak eta jarraibideak                    |
| 28.- Talde lanak egiteko orientabideak   |
| 29.- Bilerak egiteko jarraibideak  |

#### 6.4.- MARKO OROKORRAREN BALIOESPEN GLOBALA ETA ONDORIOAK

Euskal Curriculumaren “Marko orokorra”ren proposamenari buruz, estamentu, ikastetxe, lurralde eta hizkuntza eredu bakoitzak egin duen balioespena, oro har, oso ona izan da. Jarraian aurkezten dugun taula lau inkesten bukaerako itemaren bidez egin den balioespen globalaren erantzunetan oinarritzen da, eta honako emaitza hauek jaso dira :

##### Marko orokorraren balioespen globala

|                                | Planteamendu Orokorra (1-5) | Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak (1-5) | Eduki metadiziplinarrak (1-5) |                              |
|--------------------------------|-----------------------------|--|-------------------------------|------------------------------|
|                                |                             |  | Jarrera meta diziplinarrak    | Prozedura meta diziplinarrak |
| <b>ESTAMENTUAK</b>             |                             |  |                               |                              |
| <b>Gurasoak eta titularrak</b> | 4.08                        | 4.46                                   | 4.45                          | 4.38                         |
| <b>Zuzendaritza taldea</b>     | 4.01                        | 4.49                                   | 4.54                          | 4.52                         |
| <b>HH eta LHko irakasleak</b>  | 4.10                        | 4.51                                   | 4.55                          | 4.43                         |
| <b>DBH eta DBHO irakasleak</b> | 3.91                        | 4.52                                   | 4.57                          | 4.43                         |

|                                    |      |      |      |      |
|------------------------------------|------|------|------|------|
| <b>DBHko eta DBHOkoko ikasleak</b> | 4.05 | 4.17 | 4.24 | 4.15 |
| <b>IKASTETXE MOTA</b>              |      |      |      |      |
| <b>Ikastola</b>                    | 4.10 | 4.63 | 4.62 | 4.58 |
| <b>Publikoa</b>                    | 4.06 | 4.48 | 4.41 | 4.45 |
| <b>Kristau eskola</b>              | 4.00 | 4.35 | 4.43 | 4.31 |
| <b>LURRALDEAK</b>                  |      |      |      |      |
| <b>Araba</b>                       | 3.88 | 4.27 | 4.35 | 4.31 |
| <b>Bizkaia</b>                     | 3.96 | 4.43 | 4.48 | 4.33 |
| <b>Gipuzkoa</b>                    | 4.12 | 4.51 | 4.54 | 4.49 |
| <b>Nafarroa</b>                    | 4.14 | 4.57 | 4.54 | 4.45 |
| <b>HIZKUNTZA EREDUAK</b>           |      |      |      |      |
| <b>A</b>                           | 3.89 | 4.20 | 4.34 | 4.16 |
| <b>B</b>                           | 4.01 | 4.39 | 4.44 | 4.34 |
| <b>D</b>                           | 4.11 | 4.59 | 4.58 | 4.55 |
| <b>BALIOESPEN GLOBALA</b>          | 4.04 | 4.46 | 4.49 | 4.41 |

Azpirarratzekoa iruditzen zaigu estamentu, ikastetxe mota, lurralde eta hizkuntza eredu guztietan planteamendu orokorrari ematen zaion puntuazioa eta haien arteko adostasun maila altuak direla. Badaude aldeak, bereziki ikastetxe moten eta hizkuntza ereduaren artean, baina txikiak dira. Dena den, guretzat, bederen, ustekabe pozgarria izan da eta aurrera begira oso kontuan hartzekoa komunikabideetan eta politika mailan agertzen den tirabiren aurrean hezkuntza sektorean aurkitutako adostasun maila handia dela itxuraz gatazkatsuak diren gaietan.

Egindako ebaluazioak "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum"ean proposatzen den hezkuntza ereduaren bermea du. Eta, laburbilduz, honako hau esaten da hezkuntza eredu horretan:

1.- Proposatzen diren hezkuntza xedeekin ados daude (4.36), hau da, banaezinak diren eta era orekatuan garatu behar diren pertsonaren hiru dimentsioak -gizabanako, gizartekide eta izadikide gisa- baliozko erreferentziak dira bizitza osorako eta derrigorrezko eskolaldiari zentzia eta orientazioa emateko.

2.- Derrigorrezko eskolaldiaren funtzio nagusia zera da: ikasleak bizitzarako presta daitezkeen lortzea da, eta, horretarako, gai izan behar dute pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta egiten eta ekiten ikasteko (4.77).

3.- Euskal Curriculumak euskararen eta euskal kulturaren transmisioa bermatu behar du (4.56), baina, era berean, Europan integratutako gizarte batean bizitzeko eta munduarekin elkarreaginean bizitzeko beharrezkoak diren kompetentziak garatu behar dira (4.57).

4.- Hizkuntza ereduaren ardatza euskarak izan behar du, baina, era berean, batetik, ele askotarikoa izan behar du; bestetik, integrala, hau da, hizkuntzaren alde guztiak osotasunez besarkatzen dituen, eta, azkenik, integratzailea, hau da, hizkuntzak elkarren osagarri egiten dituen (4.11).

5.- Irakasleek, aritzen diren hezkuntza maila eta jakintza maila edozein dela ere, hezkuntza kompetentzia orokorrak (4.57) eta eduki metadiziplinarrak (jarrerak, 4.49; prozedurak, 4.41) ikas arloen irakaskuntzarekin integratu behar dituzte beren irakaslanean.

6.- Hezkuntza kompetentzia orokorren lorpenaren ardura (ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi, eta egiten eta ekiten ikasi), irakasleen, gurasoen eta ikasleen, hau da, hezkuntza komunitate osoaren zeregina da, baina baita gizartearena eta gizarte komunikabideena ere.

Amesten den hezkuntza eredu horrek, indarrean jarri nahi bada, aldaketa sakonak eskatuko ditu derrigorrezko eskolaldirako etapan:

***Derrigorrezko eskolaldirako epea ikusteko eta ulertzeko era:***

- Derrigorrezko eskolaldirako epea bizitza osorako hezkuntzaren barnean kokatzen da. Bizitza osorako hezkuntzaren eta derrigorrezko eskolaldirako hezkuntzaren zeregina bera da: pertsonaren garapen osoa eta orekatua gizabanako, gizartekide eta izadikide gisa lortzen laguntzea.
- Bizitza osorako hezkuntzaren etapa bat da derrigorrezko eskolaldia, lehen etapa, eta bizitzarako prestatzea da haren eginkizun nagusia, ez bakarrik (baina baita ere) goi mailako ikasketak egiteko prestatzea.

- Bizitzarako prestatzeko eginkizunaren ardura banatuta dago ikasleen, gurasoen, irakasleen eta gizartearen artean. Hori horrela bada, bakoitzaren ardura espezifikoak identifikatu, estaldurak non dauden aztertu eta lankidetzak bideak adostu beharko dira.

***Curriculum eta ebaluazioa ikusteko eta ulertzeko era:***

- Derrigorrezko eskolaldirako curriculumaren ardatzak ez dira ikas arloak, bizitza guztirako hezkuntzaren xedeak, hezkuntza konpetentzia orokorrak eta eduki metadiziplinarrak baizik. Horietako asko ikas arloetako jardueren eta gelako bizitzaren bidez lantzen dira, baina beste asko familiaren, lagunartearen edo komunikabideen bidezko egoeretan.
- Euskal Curriculumaren berriazko ezaugarria honako hau da: irakasteko hizkuntza nagusia euskara izatea eta euskal kulturaren transmisioa bermatzea. Aurrekoa guztiz uztargarria da hizkuntza ofizial-koofizialen eta beste hizkuntza eta kulturen transmisioarekin.
- Curriculumaren ardatzak hezkuntzaren xedeak eta konpetentziak orokorrak baldin badira, eta horiek lantzeko ardura bereziki ikasleena, irakasleena eta gurasoena bada, ebaluaziorako erreferentziak hezkuntza xede eta konpetentzia orokor horiek izan beharko dute eta horiek ebaluatzeko ardurak ikasleena, irakasleena eta gurasoena.

***Ikastetxearen barneko antolaketa eta kudeaketa:***

- Hezkuntzaren eta curriculum-ebaluazioaren ikuspegi horrek derrigorrezko eskolaldirako epe osoa (0-16 urte) osotasunez begiratzea eskatzen du. Bidezkoa litzateke derrigorrezko eskolaldirako epe guztirako ikastetxe baten (ez derrigorrez eraikin batean), gobernu organo baten, zuzendaritza talde baten, eta etapa eta ikas arlo guztietako irakasleen arteko koordinazio estua bermatuko duten funtzionamendu organoak egotea.
- Era berean, gizartearen, eta, bereziki, ikasleen, gurasoen eta irakasleen partaidetza zabala eta bizia eskatzen du, ikasleen, irakasleen eta gurasoen arteko lankidetzak bideak aurkitzen saiatuz.
- Irakasle guztiek (0-16 urte), bakoitzak bakoitzari dagokion adinean eta ikas arloan, hezkuntza xede eta konpetentzia orokor berak lortu behar dituzte. Helburu horri begira, irakasle guztien arteko sinergia gauzatzeko, derrigorrezko eskolaldirako epearen barruko etapa eta ziklo guztietako irakasleen arteko koordinazio estua eskatzen du.

***Berrikuntza gauzatzeko oinarriko baldintzak:***

- Hezkuntza eredu horren arabera, non hezkuntza konpetentzia orokorrak eta eduki metadiziplinarrak curriculumaren ardatz bihurtzen diren, irakaslearen ezaugarriak asko aldatzen dira, eta irakasle izango diren hasierako prestakuntza eta lanean diharduten irakasleena ere ezinbestekoa izango da ikuspegi horretara egokitzeko.
- Euskal Curriculumaren egitasmoan, euskal curriculum espezifikoa, hau da, euskal kulturaren elementu bereizgarriak, ere sartuko dira, eta, elementu horiek irakasteko, prestakuntza berezia beharko da.
- Gurasoen prestakuntza beharrezkoa izango da, seme-alabekiko dituzten ardura espezifikoak eta irakasleekin batera dituztenak betetzeko.
- Hezkuntza eredu horrekin bat etorriko diren ikasmaterialak sortu beharko dira, eta euskal curriculum espezifikoa lantzeko monografikoak ere plazaratu beharko dira.



## 7.- EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTAK



### EUSKAL CURRICULUMAREN MARKO OROKORRA

- 1.- Planteamendu orokorra
- 2.- Hezkuntza kompetentzia orokorrak
- 3.- Jarrera metadiziplinarrak
- 4.- Prozedura metadiziplinarrak

IKASTETXEA:

IKASTETXEAREN KODEA:

HERRIA:

LURRALDEA:

| HIZKUNTZA EREDUAK                        | X/G | A | B | D |
|--|-----|---|---|---|
| Haur Hezkuntza                           |     |   |   |   |
| Lehen Hezkuntza                          |     |   |   |   |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza         |     |   |   |   |
| Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza |     |   |   |   |

*Oharra: Etapa bakoitzean hizkuntza eredu bat baino gehiago egon daiteke*

IKASTETXEKO TITULARRAK:

INKESTAREN KODEA:

## 1. PLANTEAMENDU OROKORRA

### Argibideak:

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumaren oinarrian dagoen planteamendu orokorrari buruzko duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako, seinala ezazu (X baten bidez) item bakoitzari buruzko zure adostasuna, ondorengo eskalaren arabera:  
1= Erabat desados; 2.- Desados; 3- Ez alde eta ez aurka; 4.- Ados; 5.- Erabat ados
- Item bakoitzaren bukaeran, item horri buruzko informazioa aurkitzeko erreferentzia seinalatzen da.
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

|  | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|--|---|---|---|---|---|
| <p><b>1.</b> Hezkuntza prozesuak bizitza osoa irauten du, eta horren xedea pertsonak bere gai-tasunak ahalik eta gehien garatzea da, pertsonaren izaera hirukoitz eta bereiztezina oinarritzat hartuta: gizabanakoa, gizarteko kide eta naturako kide izatea, alegia.<br/><i>4. kapitulua: Hezkuntzaren xedeak, 25-28 or.</i></p>                        |   |   |   |   |   |
| <p><b>2.</b> Euskal Curriculumerako proposaturiko hezkuntzaren xedeak baliozko erreferentziak dirá, eta derrigorrezko eskolaldiari zentzua eta orientazioa emateko balio dute.<br/><i>4. kapitulua: Hezkuntzaren xedeak, 25-28 or.</i></p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>3.</b> UNESCOko eta Europako Batzordeko txostenen (1996) erreferentzia esparruak, bai eta Euskal Curriculumaren proposamenean egiten den etorkizuneko beharren azterketak ere, egoki adierazten dituzte Euskal Herriko gizarteak eta hezkuntzak dituzten erronkak. <i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 11-14 or.</i></p>                          |   |   |   |   |   |
| <p><b>4.</b> Euskal Curriculumaren barnean, Europan integratutako gizarte batean bizitzeko eta munduarekin elkarreaginean bizitzeko beharrezkoak diren kompetentziak sartu behar dira.<br/><i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 11-14 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>5.</b> Derrigorrezko eskolaldiaren funtzio nagusia ikasleak bizitzarako presta daitezen lortzea da; hau da, gai izan behar dute pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta egiten eta ekiten ikasteko.<br/><i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or. IV. eranskina, 341-414 or.</i></p> |   |   |   |   |   |
| <p><b>6.</b> Bat nator hezkuntza kompetentzia eta azpikonpetentzia orokorre buruz Euskal Curriculumean egiten den interpretazioarekin.<br/><i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or. IV. eranskina, 341-414 or.</i></p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>7.</b> Irakasleek, aritzen diren hezkuntza maila edozein dela ere, hezkuntza kompetentzia orokorrak diziplina arloen irakaskuntzarekin integratu behar dituzte beren irakaslanean.<br/><i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>8.</b> Diziplina arloek lotuta egon behar dute hezkuntzaren xedeekin eta hezkuntza kompetentzia orokorrekin, eta horiek lortzera bideratuta egon behar dute.<br/><i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>9.</b> Euskal Curriculuma euskal kulturaren transmisioa ere ziurtatu behar du.<br/><i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 8-11 or.</i></p>   |   |   |   |   |   |

|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| <p><b>10.</b> Euskal curriculumaren proposamenak bi asmo ditu, batasunari eta aniztasunari dagokienez. Euskal Herriaren eta munduaren kultur ondarearen oinarritzko adierazpenak hautatzean, bizikidetzaz errazteko erreferentzia eremu komun bat eratzen dugu. Erreferentzia komunak partekatzeak "gutasuna" garatzen laguntzen du, eta, horrenbestez, elkarrekin bizitzeko gogoia ere bai. Baina, erreferentzia komunen beharraz gain, garrantzi handia du Euskal Curriculumean eleaniztasun eta kulturartekotasun planteamenduak sartzea, are gehiago euskal gizartea eleanitza eta kulturantza izanik. Bi asmo horiek, batasuna eta aniztasuna, elkarren osagarri dira.</p> <p><i>2. kapitulua: Esparru kontzeptuala, 15-18 or.</i></p> |   |   |   |   |   |
| <p><b>11.</b> Euskal Curriculumean honako hauek integratu behar dira: Euskal Herri osorako curriculum oinarritzko eta komuna, eta banakako beharretara eta herri, eskualde, autonomia edo estatu bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako curriculum espezifikoa.</p> <p><i>3. kapitulua: Esparru kontzeptuala, 18 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>12.</b> Euskal Curriculumean, komenigarria da diziplina arloetarako berezko proposamena egitea, baina Espainiako eta Frantziako Estatuetakoko curriculumetara moldatzeko modukoa izan behar du.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>13.</b> Hizkuntzak eta Literatura arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldirako.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>14.</b> Hizkuntzak eta Literatura arloko antolamenduaren ezaugarriek honako hauek izan behar dute: antolamendu eleanitza izan behar du, euskara ardatz duela, eta hizkuntzen antolamendu integratua izan behar du -hau da, esparru komun batean, hizkuntzek elkarren osagarri izan behar dute-.</p> <p><i>Hizkuntzak eta Literatura arloak, 95-172 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>15.</b> Matematika arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>16.</b> Teknologia arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>17.</b> Musika eta Dantza arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>18.</b> Plastika eta Ikus Adierazpena arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>19.</b> Gizarte Zientziak arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>20.</b> Mundu ikuskerak eta Erliioak arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.</p> <p><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>  |   |   |   |   |   |

|   |  |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|--|
| <p><b>21.</b> Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.<br/><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>   |  |  |  |  |  |
| <p><b>22.</b> Tutoretza eta Orientazioa arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean.<br/><i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i></p>  |  |  |  |  |  |
| <p><b>23.</b> Euskal Curriculuma balioesteko eta legitimatzeko, elementu hauek funtsezkoak dirá: interesatuen partaidetza, erabakiak hartzeko prozedurak eta proposamenaren onarpen maila.<br/><i>7. kapitulua: Informaziorako, balioespenerako eta erabakiak hartzeko prozedura, 44-47 or.</i></p> |  |  |  |  |  |
| <p><b>24.</b> Euskal Curriculumaren hasierako proposamena, bai eta horren balioespina eta hobetzeko proposamenak ere, sektore interesatu guztien partaidetzarekin egiten ari dira.<br/><i>7. kapitulua: Informaziorako, balioespenerako eta erabakiak hartzeko prozedura, 44-47 or.</i></p>         |  |  |  |  |  |
| <p><b>25.</b> Euskal Curriculuma eta Euskal Curriculum oinarritzko eta komuna aplikatzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartu behar dute ikastetxeek, hala nahi badute.<br/><i>3. kapitulua: Curriculum diseinua, 20 or.</i></p>  |  |  |  |  |  |
| <p><b>26.</b> Komenigarria eta garrantzitsua litzateke Euskal Herriko hezkuntza administrazioak ados jartzea, Euskal Curriculum oinarritzko eta komunari buruzko baterako proposamena egiteko.<br/><i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 8-11 or.</i></p>  |  |  |  |  |  |
| <p><b>27.</b> Euskal Curriculumeko antolamenduaren eta proposamenaren balioespen orokorra, eta balioespen eta hobekuntza prozedura.</p>   |  |  |  |  |  |

**Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzizkoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkeenak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoien azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

**Oharra:** orrialde honetan erantzuteko nahiko tokirik ez balego, erabili orrialde gehiago eta eranskin modura inkestari itsatsi.

## 2.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK

### Argibideak:

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumean jasotzen diren Hezkuntza Konpetentzia Orokorre buruz duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako informazioa, "Oinarrizko txosteneko" Planteamendu orokorreko 5. atalean (29-36 or.), Hezkuntza Konpetentzia Orokorreko 1go atalean (53-80 or.): eta IV Eranskinean (341-414 or.) aurkitzen da.
- ítem bakoitzari erantzuteko irizpidea, ítem bakoitzaren edukiak zein neurritan eragiten duen, zuen ustez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan lortu beharko lituzkeen Hezkuntza Konpetentzi Orokorrak eskuratzeko, baloraziotik dator.
- ítem bakoitza 1etik 5era baloratzen da, dagokion laukian X seinalatuz, eskala honen arabera: *1= Hutsala; 2.-Garrantzi gutxi; 3- Nahiko garrantzi; 4.- Garrantzi handia; 5.- Behar-beharrezkoa*
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

| 1.- Pentsatzen eta ikasten ikasi   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|--|---|---|---|---|---|
| <p><b>1. Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua</b><br/>Jasotzen den informazioa modu esanguratsuan interpretatzea, prozesu kognitibo egokiak erabiliz, ezagutzaren, munduaren eta gainerakoen sakoneko ezagutza lortzeko.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>2. Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea</b><br/>Informazioa sortzea, ideia, irudi edo gauza asko denbora gutxian sortuz. Ideia, irudi eta gauza horiek kategoriatuak, orijinalak eta zehatuak izan behar dute, arazoak konpontzeko, edertasuna sortzeko eta norbera erreferentzia den konstruktua garatzera bultzatzeko.</p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>3. Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa</b><br/>Informazioa modu kritikoan ebaluatzea, ideien oinarri diren arrazoiak bilatuz eta norberaren jarrerak eta gaitasuna eta inferentzia trebetasunak oinarritat hartuz, ziurtasunez arrazoi sendoetan oinarritutako informazioa bakarrik onartzeko eta bete nahi diren helburuak errazago lortzeko.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>4. Erabakiak hartzea</b><br/>Erabaki eraginkorrak hartzea, prozesuaren urrats egokiei jarraituz eta urratsak arau-tuz, aukera zehatzak egiteko egoeretan adimenez eta zentzuz jokatzeko.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>5. Arazoak konpontzea</b><br/>Arazoak eraginkortasunez konpontzea, ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendu sortzailearen eta pentsamendu kritikoren trebetasunak erabiliz eta goi mailako prozesu horrek behar dituen aldiak urratsez urrats jarraituz, garrantzi eta eragin handiko zein txikiko zailtasunei aurre egiteko eta pentsamenduaren jarduera guztiak integratzeko.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>6. Baliabide kognitiboaren erabilera</b><br/>Baliabide kognitiboak erabiltzea (adibidez, metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokabide estrategikoa eta ikasitakoaren transferentzia), ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendua kritikoren eta pentsamendu sortzailearen trebetasunak eta erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko prozesuak erabiliz, pentsamenduari berari buruz hausnartzeko, jokabidea behar bezala gidatzeko eta ikaskuntza orokortzeko.</p> |   |   |   |   |   |

| 2.- Komunikatzen ikasi   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|--|---|---|---|---|---|
| <p><b>7. Ahozko komunikazioa</b><br/>Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealitatearen adierazpena eraikitzean, ahozko hizkuntza jariakortasunez, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta ahozko komunikazioaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko aukera izateko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeke.</p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>8. Hizkuntza idatzia</b><br/>Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealitatearen berezko adierazpena eraikitzean, hizkuntza idatzia autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta komunikazio idatziaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeke.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>9. Beste hizkuntza batzuk</b><br/>Hitzezko hizkuntzaren eta hizkuntza artistikoen eta matematikoen oinarriko kodeak modu integratuan eta harmoniatsuan erabiltzea, errealitate indibiduala, soziala eta naturala hobeto interpretatzeko eta komunikatzeko, bai eta bizitzaz gozatzeke ere.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>10. Gizarte komunikabideen baliabideak</b><br/>Gizarte komunikabideak eraginkortasunez eta autonomiaz erabiltzea, forma eta testuinguru askotako mezu mediatikoak eskuratzuz eta haiek interpretatuz, ebaluatuz eta sortuz, eta hedabideen funtzionamendua eta gizarte funtzioa ezagutzuz. Horren helburua kontsumo arduratsua eginez norberak gozatzea, informazio iturri izatea eta herritarrek parte hartzea da.</p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>11. Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)</b><br/>Ohiko tresna eta baliabide teknologikoak trebetasunez, erantzukiez eta espiritu kritikoz erabiltzea, informazio mota oro ekoizteko, biltegitratzeko, berreskuratzeko, lantzeko eta hedatzeko edo komunikatzeko gaitasuna garatu ahal izateko, bai eta norbera eta gizartea hobeto garatzeko egokienak diren informazioak bilatzeko, balioesteko, hautatzeko eta barneratzeko gaitasunak emateko, informazioa ezagutza bihurtze aldera.</p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>12. Kontzientzia sozio-komunikatiboa</b><br/>Euskal gizartearen errealitate sozio-komunikatiboa espiritu kritikoz interpretatzea eta haren inguruneke komunikazio prozesuetan erantzukizunez eta zentzu etikoz parte hartzea, hedabideak eta teknologia berriak modu gogoetatsuan eta autonomoan era-biliz eta euskararen normalizazioaren alde jarrera aktiboa izanez (inguruneke gainerako hizkuntzak balioesteko eta errespetatzeko jarrera izanik) ondo informatutako herritarrek izatera iristeko; hau da, gizarte demokratiko eta parte hartzailea eraikitzeke ezinbestekoa den autonomia pertsonal eta gizarte erantzukizuna izateke.</p> |   |   |   |   |   |

| 3.- Elkarrekin bizitzen ikasi   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| <b>13. Pertsonarteko harremanak</b><br>Elkarreragin positiboak izatea, norberaren xedeak kontuan harturik, baina besteen beharrak ahaztu gabe.  |   |   |   |   |   |
| <b>14. Gatazkak konpondu</b><br>Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea, "aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean beste aldeak frustrazioa esperimintatzen duen" egoeretan; irtenbideak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez lortuko dira.  |   |   |   |   |   |
| <b>15. Parte hartze demokratikoa</b><br>Parte hartze aktiboa izatea eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan. Horretarako, protagonismoa banatu egingo da, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko.  |   |   |   |   |   |
| <b>16. Elkarlana eta talde lana</b><br>Beste batzuekin talde lana egitea, eta elkarrekin lan eginez, helburu komunak lortzea. Horren helburua behar diren trebetasunak garatzea da, mundu konplexuan modu aktiboan integratzeko.  |   |   |   |   |   |
| <b>17. Aniztasuna</b><br>Norberarekiko desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak onartzea. Horretarako, ezaugarri psikologiko eta fisiko, adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina duten pertsonekin zenbait proiektutan elkarlanean arituko dira, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta oinarrizko giza eskubideak bermatzeko. |   |   |   |   |   |

| 4.- Norbera izaten ikasi  | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| <b>18. Gorpuztasuna</b><br>Nork bere gorputza onartzea, gorputz aldaketak eta sexualitatea arduraz bameratuz, eta ohitura osasungarriak hartuz, nor bere buruarekin ongi sentitzeko.  |   |   |   |   |   |
| <b>19. Norberaren kontrola eta oreka emozionala</b><br>Emozioak kontrolatzea eta portaerak mugatzea, lortu nahi diren helburuetara bideratuz, bizitzarako ezarritako helburuak lortzeko eta gustura sentitzeko.   |   |   |   |   |   |
| <b>20. Nork bere buruaren estimua</b><br>Nork bere buruaren estimu positiboa eta erreala lortzea, norbanako gisa garatzeko dimentsio guztietan; horretarako bere buruarekiko konfiantzan oinarrituko da, baita gainerakoek igortzen dioten estimu eta balioespen sentimenduan ere.  |   |   |   |   |   |
| <b>21. Autonomía</b><br>Proiektu pertsonal bat diseinatzea eta horrekin koherentea izatea, bere erabakien arduradun eginez, munduan bere lekua aurkitzeko.  |   |   |   |   |   |
| <b>22. Sentsibilitate estetikoak</b><br>Emozio estetikoak esperimintatzea, natura eta artea ezagutzeko eta miretsiz, edertasunaz gozatuz eta arte adierazpen berriak sortuz, estetikak artean eta naturan ematen dituen emozioez gozatzeko.   |   |   |   |   |   |
| <b>23. Integrazio pertsonala</b><br>Nork bere buruaren osotasuna esperimintatzea eta adieraztea dimentsio hauetan: indibiduala eta soziala, emozionala eta kognitiboa, immanentea eta transzendentea, pertsonaren osotasuna antolatzeke barne gaitasuna modu koordinatu eta harmonikoan sustatuz, giza ahalmena osotasunez garatzeko. |   |   |   |   |   |

| 5.- Egiten eta ekiten ikasi   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| <p><b>24. Analisia: informazioa hartzea eta gordetzea</b><br/>                     Informazioa hartzea eta ulertzea, eta inguratzen duen errealitateari buruz hausnartzea, errealitatea arretaz eta jakin-minez behatuz, errealitatea zergatik den horrelakoa hainbat arlotatik ulertzen saiatuz, eta, espiritu kritiko-erakitzailearen bidez, zalantzan jarriz, errealitate hori hobetzeko ahalmena aztertuz, ideia eta konponbide berriak prestatzeko eta errealitate hobea planteatzeko.</p> |   |   |   |   |   |
| <p><b>25. Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea</b><br/>                     Ideia berriak eta konponbideak prestatzea eta errealitate hobea planteatzea, egungo errealitatearentzako alternatibak proposatuz (sorkuntza tekniken bidez), eta aurrez ezarritako ebaluazio irizpideen arabera ebaluatuz eta egokiena/bidezkoena aukera-tuz, errealitate hori gauzatzeko/egiteko beharrezko ekintzak aurrera eramateko.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>26. Berrikuntza: ideiak gauzatzea</b><br/>                     Egungoaren alternatiba moduan planteatutako errealitatea gauzatzeko beharrezko ekintzak egitea, nahiari konpromisoa batuz eta ekite plan bat ezarriz, aurrera eramanez eta jarraipena eginez, hobekuntza gauzatu ahal izateko eta eragina ebaluatzeko.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>27. Ebaluazioa</b><br/>                     Egindako ekintzen eragin erreala ebaluatzea, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoz, bai pertsonalki, bai eragina jasan duten taldeekin eztabaidatuz, lortu nahi den helburuaren betetze maila aztertzeko (nahi gabe sortutako beste eraginak ere ebaluatu beharko dira), eta hori guztia ekite prozesua jarraitzeko (prozesu jarraitua).</p>  |   |   |   |   |   |
| <p><b>28. Ekite prozesuaren aplikazioa</b><br/>                     Bizitzako esparruetan ekitea, ekite prozesua aplikatuz (autoerrealizatzeko), nork bere bizitzan parte hartuz eta besteei lagunduz eta positiboki eraginez, eta gizateriaren eta planetaren garapen iraunkorrari lagunduz, giza espezieko kide izatearen sentimenduan oinarrituta.</p>   |   |   |   |   |   |
| <p><b>29. Hezkuntza Konpetentzi Orokorrei buruzko balorazio globala</b></p>   |   |   |   |   |   |

**Hezkuntza Konpetentzia Orokorrek hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzizkoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkeenak...)

**Iruzkinek**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoien azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

**Oharra:** orrialde honetan erantzuteko nahiko tokirik ez balego, erabili orrialde gehiago eta eranskin modura inkestari itsatsi.



### 3.- JARRERA METADIZIPLINARRAK

#### Argibideak:

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumean jasotzen diren jarrera metadiziplinarrei buruz duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako informazioa, "Oinarrizko txosteneko" Hezkuntza Konpetentzia Orokorreko 2. atalean (...or.) aurkitzen da.
- Item bakoitzari erantzuteko irizpidea, item bakoitzaren edukiak zein neurritan eragiten duen, zuen ustez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan lortu beharko lituzkeen balore eta jarrerak eskuratzeko, baloraziotik dator.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da, dagokion laukian X seinalatuz, eskala honen arabera: 1= *Hutsala*; 2.-*Garrantzi gutxi*; 3- *Nahiko garrantzi*; 4.- *Garrantzi handia*; 5.- *Behar-beharrezkoa*
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Arreta, jakin-mina, balioespen positiboa, irekitasuna, interesa, sentsibilitatea.  |   |   |   |   |   |
| 2. Sormena, irudimena, originaltasuna, ausardia.  |   |   |   |   |   |
| 3. Malgutasun intelektuala, hutsegitearekiko tolerantzia.   |   |   |   |   |   |
| 4. Jarrera gogoetatsua, kritikoa, balioestearen aldekoa.  |   |   |   |   |   |
| 5. Ekimena, gogo bizia, arriskua, eraginkortasuna, ekintzailetasuna.  |   |   |   |   |   |
| 6. Antolamendua, aurreikuspena, sistematikotasuna.  |   |   |   |   |   |
| 7. Ahalegina, irmotasuna, borondatea, iraunkortasuna, autodiziplina, pazientzia, gehiago izateko espiritua.                               |   |   |   |   |   |
| 8. Xehetasuna, argitasuna, zehaztasuna, lana ondo egiteko joera, ordena, txukuntasuna.  |   |   |   |   |   |
| 9. Erantzukizuna, segurtasuna, ardura, arreta.  |   |   |   |   |   |
| 10. Entzute aktiboa, elkarrizketatzailea, irekia eta zehaztua; zuhurtzia; negoziazioa; bitartekotasuna.                                   |   |   |   |   |   |
| 11. Sentsibilitatea, onarpena, estimua, enpatia, erukitasuna, asertibotasuna.   |   |   |   |   |   |
| 12. Kooperazioa, lankidetzeta, adiskidetasuna, bizikidetasuna, begikotasuna, umorea.  |   |   |   |   |   |
| 13. Ideia, iritzi, balio, hizkuntza, kultura eta identitate desberdinak eta askotarikoak onartzea eta errespetatzea; tolerantzia aktiboa. |   |   |   |   |   |
| 14. Zuzentasuna, justizia, bereizkeriarik eza, solidaritatea.   |   |   |   |   |   |
| 15. Talde lana eta talde lankidetzeta, erabakiak hartzen eta erantzukizun instituzionaletan parte hartzea.                                |   |   |   |   |   |
| 16. Bizikidetzeta eta gizabide arauak errespetatzea, instituzioak errespetatzea.  |   |   |   |   |   |
| 17. Eskuzabaltasuna, altruismoa, adeitasuna, laguntzeko prest egotea, adiskidetasuna, begikotasuna.                                       |   |   |   |   |   |
| 18. Zintzotasuna, leialtasuna, eskertasuna.   |   |   |   |   |   |
| 19. Naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua.   |   |   |   |   |   |
| 20. Gorputza zaintzea, ohitura osasungarriak.   |   |   |   |   |   |
| 21. Euskara eta euskal kultura estimatzea, baita  |   |   |   |   |   |

|   |  |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|--|
| ukipen hizkuntzak ere.  |  |  |  |  |  |
| <b>22.</b> Autoestimua, norberaren duintasunaz jabetzea, gaitasunak eta mugak onartzea, norberaren eskubideak defendatzea, norberarengan konfiantza izatea. |  |  |  |  |  |
| <b>23.</b> Autonomia, askatasuna.   |  |  |  |  |  |
| <b>24.</b> Autokontrola, emozioen egonkortasuna eta oreka, heldutasuna.   |  |  |  |  |  |
| <b>25.</b> Gozamina, sentikortasun estetikoa.   |  |  |  |  |  |
| <b>26.</b> Jarrera metadiziplinarrei buruzko balorazio orokorra   |  |  |  |  |  |

**Jarrera metadiziplinarrak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzizkoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkeenak...)

**Iruzkinek**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoien azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

**Oharra:** orrialde honetan erantzuteko nahiko tokirik ez balego, erabili orrialde gehiago eta eranskin modura inkestari itsatsi.

## 4.- PROZEDURA METADIZIPLINARRAK

### Argibideak:

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumean jasotzen diren prozedura metadiziplinarrei buruz duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako informazioa, "Oinarrizko txosteneko" Hezkuntza Konpetentzia Orokorreko 2. atalean (...or.) aurkitzen da.
- Item bakoitzari erantzuteko irizpidea, item bakoitzaren edukiak zein neurritan eragiten duen, zuen ustez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan lortu beharko lituzkeen prozedurak eskuratzeko, baloraziotik dator.
- ítem bakoitza 1etik 5era baloratzen da, dagokion laukian X seinalatuz, eskala honen arabera:  
1= *Hutsala*; 2.-*Garrantzi gutxi*; 3- *Nahiko garrantzi*; 4.- *Garrantzi handia*; 5.- *Behar-beharrezkoa*
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

|  | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|--|---|---|---|---|---|
| <b>A.- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea</b>  |   |   |   |   |   |
| 1. Ahozko mezuak ulertzeko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 2. Polikudeaturko mintzaldiak (elkarrizketetan) ekoizteko jarraibideak.  |   |   |   |   |   |
| 3. Monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketetan) ekoizteko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 4. Idatzizko testuak ulertzeko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 5. Testu generikoak egiteko jarraibide orokorrak.  |   |   |   |   |   |
| 6. Txosten deskribatzaileak egiteko jarraibideak.  |   |   |   |   |   |
| 7. Balorazio edo kritika txostenak egiteko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 8. Testu iruzkinak egiteko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 9. Lan monografikoak egiteko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 10. Gai baten ahozko aurkezpena edo azalpena egiteko orientabideak.  |   |   |   |   |   |
| <b>B.- Informazioa bilatzea eta antolatzea</b>   |   |   |   |   |   |
| 11. Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak.  |   |   |   |   |   |
| 12. Informazioa bilatzean, ordenagailua erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak.   |   |   |   |   |   |
| 13. Informazioa antolatzeko jarraibideak, taulak eta diagramak erabiliz.   |   |   |   |   |   |
| <b>C- Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lanaren antolaketa</b>   |   |   |   |   |   |
| 14. Ideiak argitzeko, sortzeko eta ebaluatzeko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 15. Eskemak egiteko jarraibideak.  |   |   |   |   |   |
| 16. Kontzeptu mapak egiteko jarraibideak.  |   |   |   |   |   |
| 17. Laburpenak egiteko jarraibideak.   |   |   |   |   |   |
| 18. Testu edo dokumentu bati buruzko oharrik hartzeko, ahozko azalpen bat egiteko edo ikus-entzunezko proiektzio bat egiteko urratsak. |   |   |   |   |   |
| 19. Testu bat ikasteko edo memorizatzeko eman beharreko urratsak.  |   |   |   |   |   |
| 20. Metakognizioa garatzeko jarraibideak (norberaren   |   |   |   |   |   |

|   |  |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|--|
| ikasteko moduari buruzko gogoeta).  |  |  |  |  |  |
| 21. Lan pertsonala antolatzeko jarraibideak: agenda, karpetak, etab.                |  |  |  |  |  |
| <b>D.- Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea</b> |  |  |  |  |  |
| 22. Ikerketa txikiak egiteko aholkuak.  |  |  |  |  |  |
| 23. Prozesu ekintzailearen jarraibideak.  |  |  |  |  |  |
| 24. Gatazkak aztertzeko protokoloak.  |  |  |  |  |  |
| 25. Erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko jarraitu beharreko protokoloak.      |  |  |  |  |  |
| <b>E.- Bizikidetzaren eta talde lana</b>  |  |  |  |  |  |
| 26. Bizikidetzaren arauak egiteko edo berraztertzearen aholkuak.                    |  |  |  |  |  |
| 27. Ikasgelako eztabaidetan parte hartzearen arauak                                 |  |  |  |  |  |
| 28. Talde lanak egiteko orientabideak.  |  |  |  |  |  |
| 29. Bilerak egiteko jarraibideak.   |  |  |  |  |  |
| 30. Prozedura metadiziplinarrei buruzko balorazio orokorra                          |  |  |  |  |  |

**Prozedura metadiziplinarrak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzizkoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkeenak...)

**Iruzkina**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoien azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

**Oharra:** orrialde honetan erantzuteko nahiko tokirik ez balego, erabili orrialde gehiago eta eranskin modura inkestari itsatsi.